

## Euskaltelek bedeinkazioa jaso du

Arantzazuko Amari bisita egin diote | 28



Madariaga eta Zabala. | JULEN IRIONDO

Dagoeneko salgai jarri dituzte Korrikako kilometroak | 5

Topaguneak hilaren 26ko kongresurako dei egin du | 5



Iban Letamendi, Euskadiko mendiko eskiko txapeldun | 29



## 'MARITXU', KEPA ERRASTIK ZUZENDUTAKO LEHEN FILMA



Filmeko lantaldea Aretxabaletako Mitarte plazan.

Kepa Errasti gazteak zuzendu duen lehenengo film laburra, 'Maritxu', aurkeztuko du martitzenean Aretxabaletan, jaioterrian. 'Goenkale'-ko aktore ezagunak 2010eko maiatzean grabatu zuen herrian bertan. | 31

GOIENA

## Atzo, eguena, hasi zituzten AHTaren Antzuola eta Ezkio-Itsaso arteko lanak

Tarte horrek Antzuola, Urretxu, Zumarraga eta Ezkio Itsaso udalerriak zeharkatuko ditu eta 6,940 kilometro luze izango da. Aipatzekoa da azpiegiturak izango duen tunelik luzeena tarte horretan izango duela, 5,360 kilometro-ekin. Gipuzkoako adarreko lanak 2016rako bukatzekoak dira. | 4

### EDITORIAL BATERATUA EUSKARAZKO 63 HEDABIDEK

Herri erakundeen sostengu ekonomiko handiagoaren eske | 6

### "Kontua ez da krisitik noiz aterako garen, zelan baizik"



Jose Ramon Guridi | Foru diputatua | 8

### Hasi da Santa Agedako kintoen erronda



Asteburuan, lehen dantzaldia Eskoriatza eta Aretxabaletan | 23

goienakluba<sup>™</sup>  
Abantailaz betetako kluba!

ZURETAKO OPARIA

350 €

► Otsailaren 28a baino lehen bazkide egiten zaretenon artean egingo dugu zozketa.



# Erlijiotasunari eutsita, turismo zentro izan nahi du Arantzazuk

- Herritar gehienek erlijioarekin lotzen dute oraindik
- Gainerako eskaintza hobeto ezagutarazi nahi da



Basilika aurrealdea askoz despejatuagoa dago orain. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI


Bostehun urte ez dira alperrik pasatzen. Urte horietan guztietan, Arantzazu lehen mailako erlijio zentroa izan da Euskal Herriarendako, eta orain ere, gehienok erlijioaren sinonimo izaten jarraitzen du Arantzazuk gehienondako. Ez hori bakarrik; erlijioaz kanpo Arantzazuk eskaintzen duena –turismoa, kultura, gastronomia edo natura– ez da behar adina ezaguna Euskal Herrian, eta alderdi horiek ezagutarazteko lan handiagoa egin beharra dago. Horixe da Arantzazuko Adiskideen enkarguz Gizaker enpresak egin duen galdeketa baten ondorioetako bat: galdetutako bost lagunetik lauk ez dute Arantzazuren berrikuntzen berri; %57,9ek Santutegia ezagutzen dute; baina galdetutako %22ek bakarrik dakite zer edo zer Arantzazuko Santutegiak azken hamar urteotan egin dituen berrikuntzez.

Emaitza onak ere izan dira: adibidez, azken bost urteotan Santutegia bisitatu dutenek 10 puntutik 8,11 ematen dizkiote Arantzazuri, eta hamar lagunetik seik "laster" bueltatzeko asmoa agertu dute.

Frantziskotarrek normalizat jotzen dituzte emaitza gehienak.

Honela diosku Iñaki Beristain fraideak: "Arantzazu erlijioagatik da ezaguna, eta hori frantziskotarrondako pozgarria da, hori da eta gure lehenengo egitekoa. 500 urte daramagu hemen eta horrek bere eragina dauka". Eta

Arantzazu turismoarekin gehiago lotu gura dute Arantzazuko Adiskideek: "Guretako ezustekoa izan da, inkestaren arabera, Arantzazu ez dela turismo erreferentea. Ez dugu nahi turismo masiborik, baina gehiago



Honako itxura zuen Arantzazuk 2000. urtean. | ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARRAK

beste gogoeta hau egiten du: "Erlijioa motelduta dago gaur egun, batez ere gazteengan, eta behar bada horrek Arantzazura etortzeko gogoia kendu die. Gure nahia da, erlijioa alde batera utzi gabe, Arantzazuren beste alderdiak indartzen jarraitzea".

indartu dadin nahi dugu, eta bere kultura, gastronomia, natura... eskaintza ezagutarazi". Eta kritika bat ere egiten du: "Erakundeek egindako turismo gidaliburuetan ez da Arantzazu agertzen; erlijioarekin lotuta bakarrik agertzen da".

Bada, oraingo hilabeteen bertan jasoko dute bultzadatxo bat: Aizkorri-Aratz parke naturalaren interpretazio zentroa, parketxea, laster inauguratuko da. Azken ukituak ematen dabilta eta hil erdialdean inauguratuko dute, seguruenik.

## Arantzazuren "humanizazioa"

Arantzazu jendarteratzeko eta indarberritzeko helburua jarri zioten euren buruari hango frantziskotarrek 2000. urtean. 2002an ospatzen zuen ordena hark Arantzazun bizi izaten zeraman 500. urteurrena, eta ospakizun horren berotara, aro berria ere hasi zuten. Dena dela, ordurako lehenengo berrikuntzak eginda zituzten: Arantzazuren ikurretako bat, gogartetxea, berritu zuten 2000. urtean. Eta bosgarren mendeurrenean, santutegia eta ingurune osoa goitik behera berritzeko proiektua aurkeztu zuten. Batik bat 2004. eta 2005. urteetan egin ziren lan ikusgarrienak, baina, oro har, hamarkada oso bat hartu du itxuraldatzeak.

1990etik hutsik zegoen seminarioaren erdia baino gehiago bota egin zuten, eta 7.000 m<sup>2</sup>-ko eraikina utzi zuten, gero Gandiaga Topaguneak hartuko zuena. 2005erako,

## ESANAK

### "Erakundeen turismo gidetan ez da agertzen Arantzazu"

IÑAKI BERISTAIN | FRANTZISKOTARRA

### Hamarretik sei bueltatuko dira

- Arantzazun izan direnek 10 puntutik 7,96 eman diote, batez bestean. Eta hamar lagunetik seik bueltatzeko asmoa dute.
- Paisaiari 10 puntutik 9,10 ematen diote.
- Hamar lagunetik seik badakite Arantzazura nola joan.
- Bilbon, erlijio erreferente moduan Arantzazu aipatu dute lehenengo, Begoñaren gainetik; Araban ere lehena da, eta Nafarroan, bigarrena.

**INTERSPORT**

**LORAMENDI**

Arrasate

**50%** **SKI-SNOW** **30%**



bukatuta edo azken ukituak emateko zeuden topagunea bera, inguruko bidezidorrak, aparkaleku berria, turismo bulegoaren eraikin borobila, Oteizaren omenezko gogoeta-etxea eta basilikaren aurrealde osoa, hori ere berrituta. Hori dena kudeatzeko, 2007. urtean hitzarmen-marko bat egin zuten aurrerantzeko ekintzak eta finantzaketa zehazteko frantziskotarrek, Oñatiko Udalak eta Foru Aldundiak. Hain zuzen, lau urtean aurrekontuak egiteko konpromisoa hartu zuen Aldundiak, eta aurrez izango du hori berritzeko aukera. Hitzarmen horren fruitu, Arantzazu Gaur fundazioa sortu zen 2008an, Mondragon Korporazioaren eta Kutxaren parte-hartzearekin, eta Arantzazuko Adiskideak, gaur egun 900 norbanakok eta bost erakundek osatzen dutena.

Arantzazu Santutegia hotel berritua 2008ko irailean ireki zuten, 110 lagunendako lekuarekin; eta azaroan, Gipuzkoako lehenengo ibilbide egokitua, Gomistegitik Arantzazura doana. 2009an, Oteizaren apostoluen frisoa eta Pietatea berritu zituzten, eta basilikako kriptan berriz inauguratu zuten, Nestor Basterretxeari omenaldi batekin eta bere lanen berritzearekin batera. Iaz, umeendako parkea inauguratu zuten. Oraingo hilean, parkeetxea inauguratuko dute.

Bitoriano Gandiagak frantziskotarrei esandakoa zen, "Arantzazu humanizatu egin behar duzue", eta aurpegi-garriketa soila baino gehiago izan da han gertatu dena,



Natura bidezidorra eta, barrenean, gogartetxea. | L.K.



Hiru izarreko hotela, 2008an berritua. | GOIENA



Apostoluak txukuntzen. | LAGIRREAZALDEGI

hortaz. Izan ere, Arantzazu itxuraz aldatzen joan den neurrian, erlijio-esanahiari eustearekin bat, beste esanahi batzuk indartu ditu: jendartearendako lekua, turismoa egitekoa, naturaz gozatzekoa, lehen mailako artea mireszekoa, besteak beste.



Gandiaga Topagunea eta aparkaleku eraberrituak. | LEIRE KORTABARRIA



Nestor Basterretxearen margolanak kriptan. | JOSETXO ARANTZABAL

## 60 urtean asko aldatu da

**1950** Santutegiaren obrak hasi ziren. Bestalde, fraideek Gomistegi baserria erosi zuten; 1997an Artzain Eskola sortu zen han.

**1955** Santutegi berritua ireki zen, baina oraindik jarraitu egin zuten obrek; tartean, zati artistikoak.

**1969** Ama Birjina agertu zeneko 5. mendeurrenean, artelanak inauguratu eta basilika kontsakratu zen.

**1984** Kriptako margolanak bukatu zituen Nestor Basterretxeak.

**2000** Gogartetxea berritzen hasi ziren.

**2002** Frantziskotarren 5. mendeurrenean, proiektu berritzailea aurkeztu eta lanak hasi ziren.

**2005** Berritze-lan gehienak bukatu ziren eta Arantzazuk itxura berria zuen.

**2009** Oteizaren eta Basterretxearen lanak eraberritu zituzten.

**zenbaki**  
aholkulariak-abokatuak



### Zenbaki, aholkularitza integrala

Lan gogorra da enpresaren kudeaketa. Egin ezazu apustu behar duzun guztietan laguntza emateko konpromisoa duen profesional taldean.

Soinean mende laurdeneko eskarmentua duen Zenbaki proiektu aitzindariak bere ezagutza eskaintzen dizu lan-arloan, fiskalitatean, arlo-juridikoan eta kontabilitatean.

Hobetzen jarraitzeko laguntzarik nahi?



**Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • 25 postakutxa**  
**Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68**  
**zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es**



# Hasi dira Antzuola-Ezkio-Itsaso mendebaldeko lanak, eta AHTren tunel luzeena izango du horrek

Antzuolako Basalde auzoan lehen harria jartzeko ekitaldia egin zuten atzo eguerdian

**MIRIAN BITERI | ANTZUOLA**  
Antzuola-Ezkio-Itsaso mendebaldea: zati horretako lehen harria jartzeko ekitaldia egin zuten atzo eguerdian Antzuolako Basalde auzoan. Han izan ziren, besteak beste, Jaurilaritzako Garraio sailburu Iñaki Arriola eta Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkari Mikel Cabieces.

Antzuola-Ezkio zatiak 6,94 kilometro ditu eta Antzuola, Urretxu, Zumarraga eta Ezkio-Itsaso udalerriak zeharkatuko ditu. Azpimarratzekoak dira 495 metro luze den Deskargako erreka gaineko zubia eta Zumarragako bi hodi-tunelak. Trenbide sare berriaren tunel luzeena izango dira tunelok: 5,36 kilometro izango ditu bakoitzak.

Obraren neurria eta proiektuaren konplexutasuna dela-eta, horren gaineko lizitazioa (240 milioi euro) bi zatitan banatu da: atzo Antzuolan lehen harria jartzeko ekitaldia izan zuen mendebaldekoa; eta laster esleituko den ekialdekoa.

**120 milioi euro**  
Atzo hasitako zatiak 3,56 kilometroko luzera izango du; hain justu ere, Antzuolatik Urretxura bitartekoa. Lanek 119,9 milioi euroko (BEZa barne) aurrekontua dute, eta exekuzio epea 63 hilabetekoa izateko espero da. Zatia hasi eta 70 metrora aipatutako Deskargako bide-zubia egongo da; 8 bao (*vano*)



Iñaki Arriola eta Mikel Cabieces, atzo lehen harria jartzeko ekitaldian. | MIRIAN BITERI

izango ditu, eta 30 metroko gehieneko malda aldaketa gaindituko du Deskarga erreka osatzen duen bailararen gainean.

**Zumarraga azpitik**  
Zubia amaitzean, trazatuak bereiztu egingo dira, Zumarragako tunelen ahokaduran beharrezkoa den tarteak lortzeko. Tuntel horiek trenbide bakarra izango dute. Gehieneko sakonera 230 metrora iritsiko da, eta Zumarraga azpitik pasako da. Bi hodi horien arteko

13 lotura galeria proiektatuko dira, bat 400 metroan behin, larrialdirentzat gertatuz gero ebakuazioa ziurtatzeko. Tunelaren irteeran, Ezkio-Itsasoko geltokia egingo dute.

**2016rako, Gipuzkoako adarra**  
Atzoko ekitaldian, Jaurilaritzako Garraio sailburu Iñaki Arriolak AHTren eraikuntzan Jaurilaritzak aurrera egiteko duen "borondatea" nabarmendu zuen. Gogorarazi zuen aurreikuspenak betetzen baldin badira, 2016rako gertu egon-

go dela Gipuzkoako adarra. Haren esanetan: "Trenbide horri esker lehiakorragoak izango gara; trenak mugikortasun eremu berrietan izango du eragina eta eremu sozial eta ekonomikoaren beste alderdi guztietara ere hedatuko da".

Bestalde, Cabiecesek Jaurilaritzako Garraio sailburuaren lana txalotu zuen, gauzak ondo ari direlako egiten. Haren esanetan, "emaitzak eta gauzatzen ari diren lanak ikusita, ez dago inor Gipuzkoako adarrean trenbide sare berria

izaten ari den bultzada zalantzan jartzen duenik".

**Bi lizitazio prozesuan**  
Gaur egun, Gipuzkoako adarrean bederatzi zati daude martxan; horietako bi Debagoienez: Bergara-Antzuola eta Antzuola-Ezkio-Itsaso mendebaldea. Bestalde, Bergara-Bergara eta Antzuola-Ezkio-Itsaso ekialde zatiak lizitazio prozesuan daude. Arriolaren esanetan, aste gutxi barru obretan egongo dira zati horiek.

ESANAK

"Trenbide sare berriari esker lehiakorragoak izango gara"

IÑAKI ARRIOLA  
GARRAIO SAILBURUA

"Gipuzkoako adarraren bultzada zalantzan jarri duenik ez dago"

MIKEL CABIECES  
ESPAINIAKO GOBERNUKO ORDEZKARIA

## Euskadiko Kutxak 90 milioi bideratu ditu etxebizitzetara

2010ean etxebizitza babestuen erosteko hipoteka-mailegu gehien eman zituen izan zen

**M.B. | BERGARA**  
Jaurilaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) etxebizitza babestua erosteko bultzatutako proiektuari Euskadiko Kutxak eman dion laguntza berri eman du azken horrek asteon. 2010ean finantzaketa horretara 90 milioi-tik gora bideratu zituela jakinarazi du. Horrenbestez, gaineratu du EAEko eskaeren %37,7ri erantzun zela.

Iaz, urtarilaren 27an, 26 kreditu erakundek Jaurilaritzaren Finantza Hitzarmena sinatu zuten, babestutako etxebizitzak sustatzeko. Horren bidez, babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza tasatuak egokitu zaizkienei emandako hipoteken bidez laguntzea zuten helburu; baita alokairu sozialeko promozioak eraikitze eta partikularren etxebizitzak

berritzeko ere, eskatzaileei kredituak emanda.

Euskadiko Kutxaren arabera, 2010eko ekitaldian kredituaren hote orokorra nagusitu baldin bada ere, duen "sendotasuna" agerian utzi du hainbat daturen bidez. Euskal familiei dagokienez, jakinarazi du 348 hipoteka-mailegu eman dizkiela; hain justu ere, 25 milioi euro.

**608 etxebizitza berri**  
Sustatzaileen harira, babes ofizialeko 608 etxebizitza berri eraikitzea ahalbideratu duela aipatu du; horretarako, 64 milioi erabili ditu. Aldi berean, euskal familien ongizateari ere lagundu dietela diote, 102 etxebizitza komunitate birgaitzen edo berritzen lagunduta. Arlo horretara milioi bat euro bideratu zuen.

## Abendutik hona, 167 langabe gehiago bailaran

**M.B. | BERGARA**  
Abenduko langabezia datua baino zertxobait okerragoarekin hasi da urtea Debagoienez. Hala, Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak ezagutarazi dituen datuen arabera, 3.093 langabe (populazio aktibotaren %9,98) zeuden erregistratuta bailaran urtaril bukaeran, abendu bukaeran baino 167 gehiago (orduko tasa: %9,44).

**Arrasaten 1.328 langabe**  
Iazko abenduko datuekin alderatuz gero, Arrasate da langabe gehien bereganatu dituen herria: 80 pertsona gehiago daude orain lan barik. Bergaran eta Oñatin ere nabarmen egin du gora kopuruak: lehenengoak 46 langabe gehiago ditu eta bigarrenak, oster, 43.

Eskoriatzan ere gora egin du kopuruak: 196 langabe izate-tik 205 izatera pasa da. Elgetan ere bi langabe gehiago dituzte.

Bestalde, Antzuolan, Aretxabaletan eta Leintz Gatzagan kontrako joera izan da: Antzuolak eta Aretxabaletak sei langabe gutxiago dituzte eta Leintz Gatzagak, oster, 8tik 7ra pasa da.

| HERRIZ HERRI   |              |              |
|----------------|--------------|--------------|
| HERRIA         | LANGABEAK    | EHUNEKOA     |
| Antzuola       | 86           | %9,45        |
| Aretxabaleta   | 295          | %9,14        |
| Arrasate       | 1.328        | %11,48       |
| Bergara        | 723          | %10,08       |
| Elgeta         | 41           | %8,33        |
| Eskoriatza     | 205          | %9,86        |
| Leintz Gatzaga | 7            | %5,26        |
| Oñati          | 408          | %7,55        |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>3.093</b> | <b>%9,98</b> |

\*Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoa

## Arrakasta lortu du Ulma Fundazioaren elkartasun azokak

Pozik daude Ulma Fundazioan, arrakastaz amaitu delako Hermansoloña gobernu kanpoko erakundearen alde antolatutako elkartasun azoka. Argentinako Jose C. Pazera bidaliko duten kontainer bat bete dute, besteak beste, eskolako materialarekin, haur eta nagusiendako arroparekin eta jostailuekin.

## Gutziz konponduta dago Goiena telebista ikusteko arazoa

Urtarrilean antenan aldaketa bat egin zen eta harrezkero Goiena telebista ikusteko hainbat telebistatan sintonizatu egin behar izan da seinalea. Baina gertatu da hainbat telebista modelorekin (Philips eta Sony) ezin izan dela ikusi. Bada, arazoa konponduta dago eta orain, behin sintonizatuta, ez dago arazorik.



# Salgai daude Korrika 17k gurean egingo dituen 71 kilometroak

- ▶ Kilometroa 400 eurotan saltzen dihardute; enpresendako, 500 euro
- ▶ Apirilaren 7an hasiko da Trebiñun eta Donostian bukatuko da 17an

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE  
*Maitatu, ikasi, ari... euskalakari* lelopean egingo dute Korrika 17 Trebiñutik Donostiara. Hori horrela, euskararen aldeko festa girotzeko hainbat ekintza jarri dituzte martxan. Oraingo, garrantzitsuena kilometro salmenta da. Korrikak 71 kilometro egingo ditu Debagoienean –apirilaren 14an helduko da gurera–, eta dagoeneko salgai ipini dituzte Arrasateko Erdu-AEK euskaltegian. Kilometro bakoitzak 400 euro balio du, baina enpresek 500 euro ordaindu beharko dituzte. Interesatuak bi bide dituzte erosketa egiteko: 943 77 03 69 telefonoa edo *korrika17debagoiena@gmail.com* helbidea. Bestalde, antolatzaileek gogorazazi gura dute kilometroak

partekatu egin daitezkeela beste eragile, talde edo enpresa batzuekin. Gainera, Korrika 17ko materiala salgai dute Erdu-AEKn. Adin guztietarako materiala dute: emakumeendako, gizonendako, neska-mutikoendako eta umeendako. Kamisetak, kirol-jertseak, prakak, kirola egiteko arropa eta, berrikuntza moduan, zapa-tilak. **Korrika batzordeak** Korrika pasako den herrietan hasi dira batzordeak osatzen. Gurean sortu dituzte taldeak Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran eta Elgetan. Eta gainerako herri guztietan ere deialdia egingo dute. Euren ardura izango da Korrika Kulturalako ekitaldiak

eta korrika txikiak antolatzea, eta nork bere herrian Korrika pasatzen den egunean kaleak eta errepideak girotzea. Gainera, Korrikaren hasierara eta bukarara joateko deia zabaldu beharko dute. Hauek dira korrika batzordeen hurrengo hitzorduak: Arrasaten, otsailaren 8an, 19:00etan, AEDn; Gatzagan, otsailaren 14an, 18:30ean kultura etxean; eta, Bergaran, otsailaren 22an, 19:00etan, kultura etxean. **Bideo lehiaketa** Bestalde, Korrika Kulturalako antolatzaileek *Euskalaklip* delako bideo lehiaketa ipini dute martxan. Edozeinek parte har dezake lehiaketa horretan. Lanak otsailaren 25a baino lehen bidali behar dira *korrika17@gmail*.



Emakumeendako kamiseta. | KORRIKA



Mutilendako kirol-jertsea. | KORRIKA

DATUA

400

EURO

Horixe da Korrikako kilometro bakoitzagatik ordaindu beharrekoa. Enpresek 500 euro ordaindu beharko dituzte.

*com* helbidera. Asko jota hiru minutuko bideoak aurkeztu ahal dira lehiaketara eta Korrika 17ren leloa –*Maitatu, ikasi, ari... euskalakari*– behin erabili behar da, gutxienez. Saria, berriz, Mac gailu bat izango da. **Debagoieneko ibilbidea** Korrika 17 apirilaren 14an 04:41ean helduko da gurera Elgetatik. Angiozar, Bergara, Antzuola, Deskarga, Udana, Oñati, Elorregi, Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga zeharkatuko ditu.



Debaguneko ordezkariak agerraldia egin dute asteen. | MIRIAN BITERI

## Hilaren 26an Topaguneak egingo duen kongresurako dei egin dute

**MIRIAN BITERI** | BERGARA  
Otsailaren 26an Topagunea (Euskara Elkarten Federazioa) egitekoa den kongresuan parte hartzeko deialdia egin zuten joan den eguaztenean Debaguneko ordezkariak. Bilboko Alhondigan egingo dute **XXI. mendeko euskaldunon elkarteak** lelopean esandako kongresua, goiz partean; eta jarraian, jai giroan, bazkaria eta jaialditxo izango dira Bilboko Kafe Antzokian. Bergarako kultura etxean egindako agerraldian, Jarduneko Nerea Mendizabal bergararrak nabarmendu zuen bailarako euskara elkarteetako bazkideendako eta herritar guztiendako zabalik dagoela esandako ekimena, eta autobusa antolatuko dela. Horretarako izenematea dagoeneko zabalik dago. Otsailaren 11 baino lehen eman behar da izena euskara elkarten egoitzetan edo kongresuaren webgunean

(<http://kongresua.topagunea.org/izen-ematea>). Bazkaria baka-rrik ordaindu beharko da; hain justu ere, 17 euro. **XXI. mendera egokitu** Txatxilipurdi eta Topaguneko zuzendaritzako kide Aitor Izagirre arrasatearrak azaldu zuen Topaguneak urtebete dararamala hausnarketa prozesuan murgilduta. Haren esanetan, "Euskara elkarteak XXI. mendera egokitu behar dira. 25 urte baino gehiagoko bide luzean murgilduta gaudela kontuan hartuta, konturatu gara hausnartzeko ordua dela eta nondik nora joan behar dugun zehaztu; hain justu ere, zer garen, zertan gabiltzan eta hemendik aurrera zer izan eta egin nahi dugun". Horren harira, eskualdeka zein herri mailako ekarpenak jaso dira eta horiek batzen dituen txostena aurkeztuko da otsailaren 26ko kongresuan.

# Ikerlan eta Fagor, hirietan energia aurrezteko teknologia aztertzen

Biak ala biak 'FC-DISTRICT' delako proiektua lantzen dabilta, eta energiaren kontsumoa %60 aurreztea ekarriko luke

**M.B.** | ARRASATE  
Ikerlan-IK4k eta Fagorrek hirietan energia kontsumoa %60 aurrezteko tenkologia lantzen dihardute. *FC-DISTRICT* delako proiektua Europako Batasunaren Marco programaren zazpigarrena da eta 11,8 milioiko aurrekontua du. Lau urtean egingo dute eta 11 herrialdetako 23 erakundek parte hartzen dihardute, tartean Ikerlanek eta Fagorrek.

**Erregai-pilak erabilita** Proiektuaren muina da etxebizitzaren zehatz batzuetarako energia sortzea erregai-pilak erabilita. Hori horrela, toki horietan energia kontsumoa %60 murriztuko da eta gune iraunkorrakoak sortuko ditu ingurumen eta energia alorretan. Erregai-pila horiek etxebizitzak dauden barruti berean egongo dira, banaketa eta biltegitratzea eraginkorragoa izan dadin. Sistema hori martxan jartzeko etxebizitzek bero-isolamendu egokia izan beharko dute. Gainera, energia elektriko eta termikoa banatzeko sare eta etxebizitzaren bakoitzaren eta barrutiarren kudeaketarako sistema egokia izan beharko dute. Teknologia berriak orain artekoarekin duen ezberdintasun handiena da erregai-pilak erabiltzen dituzten generadoreak etxebizitzetatik oso gertu daudela.



Ikerlanek Fagorrekin dihardu lanean teknologia berrian. | GOIENA

DATUA

%60

ENERGIA

Horixe da FC-DISTRICT proiektuarekin aurreztu gura duten energia. Erregai-pilak erabiliko dituzte.

Hori horrela, orain arte energia termikoaren eta elektrikoaren banaketan galdutako portzentajea jaitسي egingo da. Gainera, barrutiak autonomia propioa izango du energia sortzeko. Isolamendua hobetzeko

materialak garatuko dituzte, eta eraikuntzetan eta hoderetan aplikatuko dituzte. **Ikerlan-IK4 eta Fagor** Proiektu handi horretan, Ikerlan-IK4k eta Fagorrek hainbat egin-kizun izango dituzte. Besteak beste, erregai-pilaren kontrolatzailea eta sistema orokorra lotzen dituen prototipo birtuala egingo dute; eta beroa biltegian gordezeko sistema landuko dute. Proiektuaren azterketa egiteko, Espainian, Grezian eta Portugalen probak egingo dituzte emaitzak ikusteko. Leku horietan jarriko dute teknologia berria martxan eta ikusiko dute energia elektrikoaren eta bero-energiaren transmisioan zenbateko galera dagoen.



ZABALIK

MAITE ARISTEGI  
'http://goiena.net/iritzia/'



## Utzi politikeriak, mesedez!

Umeak ere hala ibiltzen dira jolasean, *Mundua atzekoz aurre-ra* edo *Mundo al revés* delakoan. Marka da gero! Gazteek lan egin nahi eta ezin; zaharrek jubilatu nahi eta ezin; ustez sozialista den gobernua langile xumeenak estutzen; langileon eskubideak defendatu beharko lituzketen sindikatu handiak txiroenak gehiago sakatzeko bedeinkazioa ematen; itxuraz gizartearen ongizatearen bila dabiltzanak pentsio pribatuaren bidea zabaltzen, etorkizuna dirua egitea helburu duten esku pribatueta jartzen.

Gatazka politikoari konponbidea eman eta jendartearen bake-justu nahiari erantzun beharko lioketenak, armak betiko isiltzeko borondatea erakutsi dutenen aurrean sekulako hasperenak eta plantak egiten... Ez gara harritu, ez, Madrilgo haizeak ekarritako lelo bakarrarekin: agiriak ez dakar ezer berririk, ez da nahiko, guk berdin jarraituko dugu: ze prozesu demokratiko eta ze kristo, guk egurra eta egurra!

Baina Nafarroan asteotan gertatzen ari den espektakulu esperpentikoak onginahiko edozein euskaldunen harritzeko gaitasuna gailendu du. Benetako bake doinuak aditzen ditugun honetan, euskal lurra beste garai batzuetarako prestatzen dihardugunean, airean ilusioa, poztasuna nabarmen sumatzen dugunean eta beste eszenatoki bat ireki ahal izateko, benetan demokratikoa, abertzale kolore desberdinak elkar ulertu eta errespetatzetik ezinbestean batu beharraz, aldaketarako indarrak metatu beharraz etxeko txikienak ere konturatzen direnean, non eta Nafarroan horretarako premia eta beharra inon baino larriagoak direnean, zertara datoz baztertu nahiok, zertara bete ezinezko baldintza ia umiliatzerainokoak? Erantzukizunaren ordezkialderdikeria, hegemonia nahia herritarren borondatearen gainetik.

Batasuna otsotzat hartu, baina benetako otsoa, Madrilgoa, aspalditik artaldean sartuta? Idatzitxo hau bukatzera noala jakin dut azkenean Nabai oso hankamotz hasiko dela zerrendak osatzen. Penagarria benetan! Baina herriak jakingo du baztertzaila dabil-tzanei erantzuten eta duintasuna erakusten dutenak txalotzen.

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | 'jberezibar@goiena.com'

## Balorazioak

Harrituta, arduratuta eta asaldatuta utzi ninduen aurreko astean, greba egunean izango zela-eta, tabernariak *pintxo-pote* delakoa eguaztenera aurreratu zutela jakiteak. Gainera, egunkari eta halakoetan iragarri zuten kontua. Zur eta lur. Eta tabernak, noski, eguazten iluntzean bete egin ziren. Era berean, harritu, arduratu eta asaldatu egin nau horrek ezelako erreakziorik ez piztu izanak. Egiari zor, benetan haserrarazi nauena izan da gainera greba egunean zabalik izan zuten lurrin-denda baten erakusleihoan kapitalismoaren aurkako *pin-tadak* ikusteak. Kate bateko lurrindegia da aitaturako hori. Ondo-rio askotarako eman dezake kontuak.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



EDITORIALA

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA ETA EUSKARAZKO BESTE 63 HEDABIDE

## Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen dituzte euskarazko hedabideak, 2008-ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu.

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Edozelako gizarte eta kultura modernoren geroan giltzarri da hedabideen zeregina. Printzipio eta helburuetan letra larritz aitorren da garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez. Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundearen sostengua hutsala da; EAEen oso bestelakoa da, baina ez nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, guren aldean handi

eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, dirulaguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta eltxetresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiratu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilero soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai.

Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzera gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

"Salbamenduen garaian, guk ere aldarrikatzen dugu sostengu sendoagoa"

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailotako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseminua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
BERGARA 20570: Ibarra, 6  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12  
papera@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com  
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550:  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550:  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua**: NA-3329/2000  
**ISSN**: 1577-1210  
**Tirada**: 20.100 ale.  
**Difusioa**: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza









Jose Ramon Guridi, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko diputatua, martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**Jose Ramon Guridi** | Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatua

# "Krisia sortu zuten balioei eusten badiegu, ez gara krisitik ondo aterako"

- "Kontua ez da krisitik noiz aterako garen, zelan aterako garen baizik"
- Enpresei krisitik ateratzen laguntzeko 100 milioi gorde ditu Aldundiak

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Gipuzkoako Foru aldundiak martitzenean aurkeztu zituen krisiari aurre egiteko diseinatu duen planaren ardatz nagusiak. Berrikuntzarekin lotutako neurriak aurkeztu zituen Jose Ramon Guridik, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatuak. Harekin izan gara.

**Eredu sozio-ekonomikoak berriro definitzeko krisia aukera paregabea dela esan izan duzue. Hala da?**

Uste dut baietz. Aukera eta beharra daukagu. Gainera, kontua ez da krisitik noiz aterako garen, zelan aterako garen baizik. Beste balio batzuen garapena behar dugu krisitik ateratzeko. Krisia sortu zuten balio berei eusten badiegu, ez gara krisitik aterako behar den moduan. Jendarte berria eraiki behar dugu.

**Zelan doa Gipuzkoa Aurrera?**

Gure lurraldearen lehiakortasunari eusteko neurriak hartu genituen eta emaitzak onak izan dira. Enpresen beharrei erantzun eta krisitik berrindartuta ateratzeko balio izan du. Gipuzkoako eragileekin elkarlanean gabiltza hori lortzeko.

**Zein da egoera une honetan?**

Gure Barne Produktu Gordinaren herena, %33 baino gehiago, industria da. Inportantea da industria indartsua edukitzea, horren inguruan sortzen da eta benetako zer-

bitzu-ekonomia. Gure enpresak lehiakorrek dira mundu globalean eta langabezia tasa txikia dugu, %7,8. Egia da horrek azalpena eskatzen duela, ze orain dela urte bi geneukanaren bikoitza baita. Gainera, 30.000 lagun langabezian edukitzea larria da. Eta bizi gara leku baten non ikerketa, garapen eta berrikuntza arloetan asko inbertitzen den. Barne Produktu Gordinaren %2,4. Herri aurreratuen mailan. Hortaz, ekonomia osasuntsua daukagu.

**Eta aurrera begira?**

Beharrezkoa da neurri berriak hartzea. Parte-hartzearen kultura bultzatu behar dugu. Langileak proiektuetan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu: kudeaketan, emaitzetan, jabetzan...

**Enpresen erabakitze organoetan eta jabetzan parte hartzea sustatzen duten enpresei pizgarri fiskalak ezartzea proposatu duzue?**

Bai, benetako pizgarri fiskalak abian jarri nahi ditugu. Enpresaburuek erretiroa hartzen dutenean, gerta daiteke enpresa ixtea edo kanpoko norbaiti saltzea. Uste dugu kanpoko enpresa bati saldu baino lehen, bertako langileei saltzea dela onena. Hortaz, pizgarriak jarriko dizkiegu enpresa langileei saltzen dietenei. Pizgarri fiskalak saltzaileei eta erosleei.

**Enpresetan parte hartzea bultzatzeko Ameriketako Estatu Batue-**

**tako eredua aztertu duzue, ezta? Zergatik?**

Interes berezia dugu hango enpresetan langileek parte hartzeko darabilten prozesuekiko. Estatu Batuetan daude ia 11.000 enpresa non langileek parte hartze zuzena duten enpresaren erabakietan, kudeaketan, irabazietan... ESOP izena dauka eredu estatubatuarra. Legez arautua dago eta ia 40 urte daramate horrekin. Denborarekin ikusi da langileen parte-hartze zuzeneko enpresek askoz emaitza hobeak lortzen dituztela: salmentan, enplegua sustatzerakoan, errentagarritasunean... Soldata handiagoak dituzte; erretiroa hartzen dutenean, pentsio handiagoak dituzte; krisia hobeto gainditzen dihardute...

**Bertako enpresek nazioartean duten presentzia handitu egin behar dutela esan izan duzue. Zergatik?**

Merkatua mundua da. Argi ikusten da munduan aspalditik ondo kokatuta dauden enpresak hobeak eta arrakastatsuagoak direla. Hobeto kudeatzen dute krisia eta lehiakorragoak dira. Mundu globalak eskaintzen dituen aukerak ezagutu behar dituzte enpresek.

**Zer egiten du Foru Aldundiak enpresa horiei laguntzeko?**

Produktzioa Europako Batasunetik kanpo, Brasilerako edo Txinara esate baterako, eroan nahi duten enpresei dirulaguntzak ematen

dizkiegu inbertsioaren zati bati aurre egiteko.

**Martitzenean aurkeztu zenituzten krisiari aurre egiteko Foru Aldundiak sustatu duen planean berrikuntzari dagozkion neurriak. Zeintzuk dira plan horren ardatz nagusiak?**

100 bat milioi euro dira, lau ataletan banatuta. Gaur aurkeztu ditugu bi atal: batetik, enpresa munduari dirulaguntzak emateko; eta, bestetik, zientzia, teknologia eta berrikuntzako azpiegiturarako. Lehen ardatzean 28 milioi euro dira, bi urterako. Eta bigarren, beste 18 milioi.

**Zertan laguntzen diezue hemengo enpresei?**

Produktuari, fabrikazioari eta kudeaketari aplikatutako berrikuntza prozesuetan. Oinarri tek-

nologikoa duten enpresa berriei ekipamendu eta makinak erosteko dirulaguntza bereziak banatzen dizkiegu eta talentua edo gazte jende ekintzailea kontratazeko ere bai.

**Zelan erantzun dute enpresek?**

Iaz, esaterako, krisi larri sasoiaren eta altxortegi arazoekin zeudela, aurrera begirako apustuak egin zituzten enpresek eta hori txalotzekoa da. 200 gazte kontratu ziren Diputazioaren programei esker eta aurten beste bultzada bat emango diogu planari. Arrakasta izango dugu eskaeretan, ze Gipuzkoako enpresak apustu egiten dabiltza berrikuntzaren alde. Argia da Gipuzkoako enpresek teknologiaren alde egiten duten apustua.

**Merkel Alemaniako kantzilerra Madrilén izan da eskulan kualifikatuaren bila. Zelan ikusten duzu euskal gazteek atzerriara joan behar izatea?**

Gure gazteendako egokia dela iruditzen zait. Ona da babak eltzetik ateratzeko beste esperientzia batzuk ezagutzea, kanpoan hezte, formatzea... Jakina, niri gustatuko litzateke, kanpoan urte batzuk ikasten eman ostean, berriro Euskal Herrira itzultzea. Baina itzuliko dira edo ez, hemen eskaintzen diegunaren arabera. Gakoa hemen dago. Izan behar dugu erakargarri langileendako.

**"Langileak enpresa proiektuetan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu"**

**"Munduan ondo kokatuta dauden enpresak dira arrakastatsuagoak"**

**"Pizgarriak jarriko dizkiegu enpresa langileei saltzen dietenei"**

**"Ona da gazteek atzerrian beste esperientzia batzuk ezagutzea"**



# zatoz ikastolara!

*matrikula epea zabalik*  
urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra



informa zaitez

943 77 20 25  
[www.arizmendi.eu](http://www.arizmendi.eu)

**Arizmendi**  
ikastola



## DUELA 10 URTE

2001-02-02

## Bergarakoa, komisaria bakarra

Euskal Autonomia Erkidegoko ertzain etxeen berregituraketa egin zuen Barne Sailak 2001. urtean, eta Debagoienez komisaria bakarrarekin nahikoa geneukala ondorioztatu zuten. Hasiera baten bi komisaria egiteko proposamena egin zuten arren, berregituraketa horrek baztertu egin zuen bigarren komisariaren proiektua. Bergarako komisaria urte hartako Aste Santuan zabaldu zen.



Bergarako komisaria. | GOIENA

2001-02-02

## Bailarako zortzi eskola saritu

Umeei ingelesa erakusteko erabiltzen zuten metodoagatik saria jaso zuten Debagoienezko zortzi eskola publikok. Ingelesa erakusteko metodo hori Pedagogia Aholkularitza Taldeak landu zuen. 800.000 pezetako saria eskola hauek lortu zuten: Bergarako San Martin, Antzuolako herri eskola, Arrasateko Erguin, Musakola eta San Andres, Oñatiko Errekalde, Eskoriatzako Luis Ezeiza eta Aretxabaletako Kurtzebarri.

## DUELA 5 URTE

2006-02-03

## Gartziak alkatetza utzi

Andoni Gartziak, orduko Oñatiko alkateak, kargua utziko zuela jakinarazi zuen. Garaia Ikerkuntza Guneako gerente karguak ez zion alkate lanak egiten uzten, eta, ondorioz, kargua utzi zuen. Haren ondorengo Lurdes Idoiaga egungo alkatea aukeratu zuten. Andoni Gartziak gaur egun zinegotzi kargua dauka.

## BERGARA

## HERRITARRAK

**Izaro Aperribai 'Elvis Caino'** DJ-a, sanferminzalea, bi pailazo ezagunen kolaboratzaile, erdi bilbotarra, bergarar osoa eta bizarduna. Hamaika saltsatan dago murgilduta Aperribai. | LANDER MUÑAGORRI

# "Esaten da DJak musikari frustratuak garela; ni, ordea, musikari nagia naiz"

**B**adira pertsona batzuk hitz batekin definitu ezin direnak, eta horietako bat izan daiteke Izaro Aperribai. *Elvis Caino* izenpean DJ lanak egiten ditu, Pirritx eta Porrotxen Largabista pertsonaiari ahotso jarri dio eta Bizardunak taldearen aurkezle lanak egin izan ditu, sanferminetako arropa soinean duela. Gaur egun Bilbon bizi da, baina beti izango ei da bergararra.

**Pirritx eta Porrotxen Ongi etorri, Pupu eta Lore diskoan ahotso jarri diozu Largabista pertsonaiari. Nolatan?**

Bizardunak taldeak grabatu zuen Largabista protagonista duen abestia. Euren laguna naiz, eta koroak grabatzera joateko eskaini zidaten, baina berandu iritsi nintzen grabaziora, kantua grabatuta zegoela. Orduan Porrotzek esan zidan abestiaren aurretik Largabista pertsonaiak agertu behar zuela hitz egiten. Nire ahotsoa gustatu egin zitzaion, eta hala izan zen guztia.

**Eta Largabista moduan, zu ere naturazalea zara?**

Bai, noski! Gu natura gara; beraz, horrekin dena esanda dago. Ez gara naturaren jabe, alderantziz baizik, natura da gure jabe. Pentsatzen dugu dena gure neurritik eginda dagoela, baina ez gara ohartzen gu hemen egoteko kasualitate asko egon direla. Lurra hemendik milaka kilometrora balego, ez litzateke egongo eza gutzen dugun bizitza...

**Eta zu Largabista beharrean beste zerbait izango zinateke.**

Bai, Kortabista agian. Bestela, Lenin edo Hitler...

**Bizardunak taldekoak aipatu dituzula, euren kontzertuetan sanferminzale jantzita agertu izan zara...**

Euren kontzertu askotara joaten naiz, eta esan zidaten zerbait



Azken urteotan hamaika aldiz egin du Izarak Bergaratik Bilborako bidea. Autobidez. | LANDER MUÑAGORRI

**"Bilbotarrak oso harroak dira euren burua asko maite dutelako"**

**"Musikarien lana ezagutarazteko DJen lana ezinbestekoa da"**

egiteko, behintzat. Hala, emanaldien aurretik taldea aurkeztu izan dut kontzertu berezietan. Iruñean, Bergaran, Bilbon...

**Aurkezteaz gain, dantzara ere iriten zara taulara.**

Bai; baina hori, eskatuko ez balidate ere, berdin-berdin egingo nuke!

**Sanferminzalea ere bazara orduan, ezta?**

Bai, baina niri eguneko giroa gustatzen zait. Gauez oso ondo dago, ondo pasatzen baitugu, baina egun-pasa joateko ere aproposa iruditzen zait. Azken finean, jaien alde ludikoa aprobetxatzeko ere joaten gara, ez edatera bakarrik.

**Elvis Caino izenpean ere aritzen zara DJ lanetan...**

Noizean behin ibiltzen naiz han eta hemen musika jartzen. Esaterako, Inauterietan Iker Ugalderekin batera arituko naiz Bergarako

gaztetxean. DJen arteko borroka antzeko bat egingo dugu.

**Eta zer musika mota jartzen duzu?**

Nire estiloari rock-and-soul deitzaia gustatzen zait. Estilo horiek lantzen ditut, baita funka, doo-woopa, rockabilly, popa, hard rocka...

**Askotan esaten da DJak musikari frustratuak direla. Zu ere hala zara?**

Ez, frustratua ez. Izatekotan, musikari nagia naiz ni. Baina DJen lana garrantzitsua da, musikariak euren musika ezagutarazteko norbait behar izaten baitute, eta horixe naiz ni. DJ barik, musika ez litzateke horren erraz ezagutuko.

**Eta Elvis Caino zer dugu, Bilbon bizi den bergararra, Bergarako bilbotarra...**

Bilbon bizi den bergararra, noski. Niri Bilbo beti gustatu izan

zait, jende oso jatorra dago bertan. Harroak dira, baina ez txulokak direlako, euren burua asko maite dutelako baizik. Esaterako, nire ustez, Athletic munduko talderik onena da.

**Horregatik joan zinen Bilbora?**

Athleticekoa naizelako beti gustatu izan zait Bilbo. 1983an, 11 urterekin, lehen aldiz San Mamesera joan nintzenean sekulakoa izan zen. Bartzelonaren aurka. Hango giroa apartekoa zen!

**Eta gaur egun?**

Orain San Mamesera joateak lehengo distira hori galdu egin duela esan dezaket.

**Senar-emazteen arteko harremanetan moduan?**

Bai, apur bat bai. Hasieran, asko maite zaitut eta kariño handiena zuretzako da, baina hasiera hartako distira galdu egin du dagoneko.

## NIRE HERRIAN

**AUTOBIDEAREKIN, EDONORA**

Bergara eta bailara osotik igarotzen den autobide berri honekin edonora joan gaitzake gaur egun. Iparraldera, hegoaldera, ekialdera eta mendebaldera ere hel gaitzake. Erraztasun ugari ekarri ditu gurera. Orain dela urte batzuk ez geneuzkan era honetako baliabideak.

**AUTOBIDEAREKIN, BERGARARA**

Bergara eta bailara osotik igarotzen den autobide berri honekin edonora joan gaitzake gaur egun. Iparraldera, hegoaldera, ekialdera eta mendebaldera ere hel gaitzake. Baina unerik baten autobide honetatik bazoaz eta bertan galtzen bazara, Bergarara iristeko arriskua ere badaukazu.



## HERRIAK

ONATI

# Roke Azkune auzoari aurpegia aldatuko diote lau hilabetean

- Saneamendua, zoladura eta argiteria aldatu eta arrapala bi eta zebrabidea egingo dituzte
- Construcciones Ugarte enpresa hasi da dagoeneko auzoa zulatzen eta lurra kentzen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Roke Azkune auzoa hankaz gora jarri dute dagoeneko. Irailean onartu zituen Udalak auzoaren eraberritze lanak, eta dagoeneko martxan daude. Hori horrela, 1950eko hamarkadan eraikitako auzoak aurpegi berria izango du lau hilabeteko epean. Tarte hori izango du Construcciones Ugarte enpresak lanok egiteko.

Zarata eta hautsa dira nagusi Roke Azkuneko zazpi blokeen inguruan, baina bizilagunak pozik daude. "Badakigu gogorra izango dela, baina auzoa txukun geratzen bada, gaitz erdi", diote.

**Zoladura berria**

Udalak 61.000 euro pasatzoko aurrekontua onartu zuen 2010eko urriko osoko bilkuran Roke Azkuneko lanak egiteko; baina aurrekontua bikoiztu egingo da, lanak hasi ondoren beste hainbat berrikuntza egitea adostu dutelako. Horietako bat izango da auzoko espaloietako zoladura osoa aldatzea. "Gipuzkoako Urak enpresak esan digu lanok aprobetxatuko dituztela saneamenduko hodiak aldatzeko. Hori horrela, hodi berriak jarriko diren zatietan zoladura aldatu beharko genuke, eta egun dagoen baldosa berbera lortzea ezinezkoa da, enpresa itxi egin dutelako", esan digu Lourdes Idoiaga alkatea.

Hala, baldosa berria jarri beharko dute auzoan. "Errekalden



Auzoaren erdia zulatzen eta lurra kentzen dihardute Construcciones Ugarteko langileek. | MIREIA BIKUÑA

jarri dugunaren antzekoa izango da. Auzo osoan berbera ipintzea erabaki dugu batasuna mantentzeko", dio alkatea. Gainera, zoladura aldatzean, berdeguneetan dauden zintarriak berritu egingo dituzte.

Hasierako proiektutik aldatu den bigarren puntua da San Martinera doan bideari dagokiona: paretari eusteko hormigoi armatua jarriko dute. Asteon hasi dira

## ESANAK

**"Saneamenduko hodiak aldatuta zoladura berrituko dugu"**

LOURDES IDOIAGA | ALKATEA

pareta zulatzen, eta burdinazko hagak sartu dituzte arbela eror ez dadin.

**Semaforoa kendu egingo dute**

1957. urtean eraikitako auzoan 56 etxebizitza daude zazpi bloketan, eta gehienbat adindunak bizi dira. Horregatik guztiagatik, auzoak duen irisgarritasuna hein handi baten konpondu egingo dute. 1, 2, 3, 4, 5 eta 6. blokeetara

igotzeko dauden eskailerak kendu egingo dituzte. Horren ordeztu bako arrapala bi jarri dituzte: Arantzazuko Ama kale-tik bata eta lur azpiko garajee-tarako sarrera dagoen tokitik bestea. Zabalak izango dira, edozein ezgaitasun duenak erabil-tzeko modukoak.

Azken arrapala horren kokapen berriak beste hainbat aldaketa ekarriko ditu: Portalekuako biribilgunean dagoen semaforoa kendu egingo dute, eta arrapalaren bukaeraren parean zebrabidea egin. "Irisgarritasuna mantentze aldera, arrapalatik doazenek, zuzenean, zebrabide-tik pasatzeko aukera izatea aztertu genuen. Hori horrela, semaforoa kendu egingo dugu", esan digu udal aparejadore Xabier Zelaia. Zebrabidea egokitzeko Roke Azkune auzoaren parean, Kalegoienan dauden aparkalekue-tako batzuk kendu egin beharko dituzte, eta, akaso, edukion-tziak lekuz aldatu.

**Argiteria eta urbanizazioa**

Lan astunenak eta zikinenak bukatu ondoren, auzoaren urbanizazioa konponduko dute. Lora-tegiak txukundu eta eserlekuak aldatu egingo dituzte.

Azken lan bat ere egingo dute: argiteria konpontzea, hain zuzen. Sistema elektrikoa aldatu, eta fatxadetan zintzilik dauden kableak kendu egingo dituzte.

## San Martinera doan pareta

Roke Azkune auzoko aparkalekutik San Martinera igo daiteke. Pertsona askok erabiltzen dute bidea, eta konpondu egingo dute. Arbel-dun pareta da, eta erori egiten da. Hori ekiditeko, hormigoi armatua jarriko diote. Burdinazko hagak sartu dituzte pareta indartzeko, eta hormigoi armatua gainetik botako dute.



San Martingo pareta zulatzen. | M.B.

**GOTZON OSINAGA eta BENJAMIN BILLAR**  
BIZILAGUNAK

## "Gustura gaude lanekin, auzoa dotore geratuko da"

Roke Azkune auzoko bizilagunen ordezkariak dira Gotzon Osinaga eta Benjamin Billar. Haiekin egin dugu berba.

**Kostata, baina lanak hasi dituzte.**

Bai, azkenean hasi dituzte. Egia esan, oso pozik gaude. Auzoak itxura aldatzeko beharra zuen, eta lanekin dotore geratuko da.

**1950eko hamarkadako auzoa da, eta ez du berrikuntza askorik.**

Hala da, eta orduan egindako lan batzuk gaizki egin zituzten. Uraren norabidea fatxada aldera ipini zuten, eta hezetasun izugarria eduki dugu urtetan. Ea, bada, eraberritze lanekin arazoa konpontzen den.



Gotzon Osinaga eta Benjamin Billar. | M.B.

**Hainbat lan egingo dituzte. Bizilagunak konforme zaudete proiektuarekin?**

Bai, guk egindako eskaerak aintzat hartu dituzte-eta. 2006an joan ginen Udalera hainbat berrikuntza egiteko eskariarekin. Orduan esan ziguten baietz, auzoak konponketa beharra zuela, baina itxaron egin behar genuela. Eta iritsi da gure ordua.



# Institutura joateko urbano zerbitzua aztertzen dabil Udala

Kexuak jaso ditu Arrasateko Udalak, institutura doazenak goizegi edo beranduegi heltzen direlako eskolara gaur egungo urbanoaren zerbitzuarekin

UBANE MADERA | ARRASATE

Urbanoak instituturako duen zerbitzu berezia hartuz gero, goizegi iristen dira gazteak eskolara, 07:50ean ateratzen da eta autobusa Gorostizatik, eta eskolara 08:30ean hasten zaizkie.

Aldiz, urbanoaren 2. linea hartuz gero, justu-justu edo berandu samar iristen dira institutura, zerbitzu hori 08:15ean ateratzen da eta Gorostizatik.

## Ibilbidea zehazteko

"Bada, joan den astean eta oraingoan gabiltza, justu, gai hori lantzen. Aztertzen gabiltzana da ea urbanoaren oraingo ordutegia eta ibilbidea egokitzen diren edo ez institutuko erabiltzaileek dituzten beharrei. Izan ere, zerbitzu bereziaren kasuan, desberdina da erdigunetik pasatu, San Franzisko ingurutik, eta hortik Jose Luis Iñarratik igota institutura joan edo Garibatik pasa eta Legarren zehar institutura joan. Beraz, gura duguna jakin da non egoten diren, gaur egun, institutura doazen ikasle gehienak, eta horren arabera erabakiko dugu zelan funtzionatuko duen urbanoak

**DATUA**

**30**

BIDAIA

Autobus urbanoak institutuko ikasleei eskaintzen dien zerbitzu berezian 30 bat ikasle ibiltzen da egunero.

aurrerantzean", adierazi dute Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailak.

## Informazioa bidali institutura

"Bestalde, institutura doan autobusaren zerbitzu berezia urbanoa ipini genuenetik existitzen da, baina, zerbitzu berezia denez, ordutegietan ez da ematen haren berri. Pentsatzen dugu behar dutenek badutela informazioa, baina, badaezpada, eskuorria bidali behar dugu institutura, oraingo astean ez bada hurrengoan, horren guztiaren berri emateko", gaineratu dute.

## Geralekuetan denbora laburra

Horrekin batera, urbanoarekin lotutako beste abisu bat ere helarazi gura dute Udalek: urbanoak ibilbide eta ordutegi berriak dituzte, autobusek ez dute horrenbesteko denbora izaten Gorostizan eta Eroskin geldirik egoteko.

Hau da, orain arte, orduko zerbitzuarekin, bai Eroskin eta baita Gorostizan ere urbanoak 5-10 minutuko geldialdixoa egiten zuen, ordutegia betetzeko. Orain, berriz, ez dute astirik izaten, eta litekeena da autobusa Eroskira iritsi ostean bidaia berriak hartuta berehala alde egin behar izatea. Bestela esanda, ez duela astirik izango jendearen zain egoteko, ahalegindu behar dutelako ordutegi berria errespetatzen".

## Azoka egunetan ere, ondo

Bukatzeke, hainbat herritarrek kezka erakutsi zioten Udalarari autobus berriekin (txikiagoak) azoka egunetan ez ote zuten arazorik izango bidaia guztiak hartzeko. Bada, Zerbitzu Sailatik esan dute ez dutela halakorik antzeman.

# Markuleteko obrak hasita, bi astean espaloia gertu izango dute

U.M. | ARRASATE

Asteon hasi dituzte Garaia eta Markulete artean espaloia eraikitzeke obrak. Eta, ezarritako dataren arabera, hiru aste dituzte lanok bukatzeko; horrenbestez, bi aste barru gertu izango dute espalo berria.

## Bidegorritik ez

"Olandixoko tunelaren obrak bukatu genituenean, eta kontuan hartuta Aramaio errearen ondotik bidegorria datorrela, pentsatzen genuen oinezkoak bertatik joango zirela, bidegorritik, alegia. Baina hori ez da bete. Ikusi duguna da oinezkoak errepide ondotik dabilzala, arriskuan, eta zebrabidea ez dela nahikoa haien segurtasuna bermatzeko; horregatik hasi gara espaloia egiten", adierazi du Gipuzkoako Diputazioko Errepideetako zuzendari eta Arrasateko EAJko bozeramaile Luis Mari Apraizek.

200 metro luze izango da espalo berria, 2,5 metro zabal, "eta orain baino argiztapen hobe" izango du. 50.000 euro inbertitu ditu Diputazioak.

## Lorategi lanak

Diputazioko ordezkariak jakinarazi du espalo berria egiteaz batera, Olandixoko tunelaren hasieran dauden "lur beltzetan" lorategi lanak ere egingo dituztela, "belarrak sartzeko".

UTE Olandixok egingo ditu lan horiek guztiak.



Langileak lanean, espalo berria egokitzen. | U.M.



Matrikulazio epea zabalik  
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan  
**Urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra**

**Arrasate**  
Gurasoen Elkartea Herri Eskola



**baikara**  
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**Guk bezala,  
egin apustu, egin kiñu  
Euskal Eskola  
Publikoaren alde!**



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74



# Hainbat ibilbidetako zarata aztertuko dute ikasleek

Agenda 21 programaren barruan 6-17 urte bitarteko 2.000 ikasle dabilta zarataren arazoa aztertzen

**UBANE MADERA | ARRASATE**  
"Ibilbide batzuk planteatu eta neurketa batzuk egin ditugu sonometro simple batzuekin, ikusteko herrian non ditugun zaratarik handienak. Eta gura dugu ikasleak jabe daitezela zeintzuk diren zarata iturriak: zirkulazioa...", jakinarazi du Kandi Fernandezek, Udalako Ingurumen Eskolako arduradunak.

**Zarata, gaixotasun iturri**  
Izan ere, inguruan moduan, Arrasaten ere jasaten den zarata maila arazo da, eta horixe da aurten-go ikasturtean 6-17 urte bitarteko ikasleek Agenda 21 programaren barruan aztertzen dabilta gaia: "Badirudi ikasleen artean normaltasun guztiarekin hartzen dela, baina Osasunerako Mundu Erakundean diote mende hone-

tako arazo inportanteenetako bat izango dela zarata, gaixotasun asko etortzen direla arazo hori dagoelako, eta horrekin ez gara oraingoz jabetu", adierazi du Fernandezek.  
"Argi dago zarata asko entzuten dela inguruan eta munduan, Espainia da bigarren postuan dagoena. Aurretik Japonia bazarrik dago. Beraz, nahiko arazo

inportantea da", gaineratu du Ingurumen Eskolako arduradunak.  
**Zirkulazioa nagusi**  
Maiatzerako bukatuko dute azterketa, eta ordurako prestatuko dute, baita ere, herriko ordezkari politikoei aurkeztu behar dizkieten diagnostiko eta irtenbide posibleak.

Hala ere, gehienok sumatzen dugun moduan, Fernandezek aurreratu du, oro har, Arrasateko zarata-iturri inportanteena zirkulazioa dela. Eta hori konpontzeko neurri batzuk hartu diren arren, gehiago hartu behar dio: "Europar etxe edo eskola bat egitean, planifikazioan zarata kontuan hartu eta neurriak hartzen dituzte, ez sortzeko. Gure kasuan, hutsune handiak ditugu, legeak oso berandu iritsi dira... aurrera joan beharra dago eta pentsatzen dut laster hasiko garela neurriak hartzen".



Korrika Batzordea oraingo astean batzartu da lehen aldiz. | KORRIKA

## Gose taldeak kontzertua egingo du gaztetxean, Korrika dela-eta

Asteon egin dute Korrika Batzordea osatzeko lehen batzarra eta otsailaren 8an da bigarrena

**U.M. | ARRASATE**  
Hasi dira lantzen Korrika Arrasatera iristen denerako ospakizunak, Arrasateko Korrika Batzordearen bitartez. Are gehiago, dagoeneko ekitaldi bat edo bat zehaztu dute; hala ere, deialdia ere egin dute, laguntza gehiagoren eske: "Gauetan, gaztetxean, Gose taldeak joko du. Aurreko astebururako-edo pare bat ekitaldi handi ekartzeko lanean dabilta Udalarekin, eta AEDk antolatuta film laburren emanaldi bat ere bai... Baina bestelako ideien beharra ere ikusten da, zerbait originalagoa".  
Halakoak eta Korrikarekin lotutako bestelakoak lantzen segitzeko hitzordua datorren martitzenerako egin dute, otsailaren 8rako, AED elkartearen egoitzan (Pablo Uranga kalea), 19:00etan. Interesa duen edozein izan daiteke Korrika Batzordeko kide.

**11:00etan, Arrasaten**  
Bestalde, Korrika bera Arrasatera iritsiko da apirilaren 14an, 11:05ean. Portaloirako aurreikusitako ordua da hori.

## Abaroan hasi dira urteko kuotak kobratzen

2011. urteari dagozkion kuotak kobratzen hasi dira Abaroa egoitzan. Martxoaren 4ra arte dago ordaintzeko aukera, eta Abaroatik gogora ekarri gura dute "ezinbestekoa" dela kuota ordaintzea Abaroak antolatutako ekimenetan parte hartzeko.

### Aratusteak

Bestalde, Aratusteetarako hitzordua egin dute dagoeneko: martxoaren 8an, 18:30ean. Parte hartzeko gonbidapena jaso beharra dago otsailaren 14tik (astelehena) martxoaren 1era bitartean, bazkide txartela erakutsita.

ARRASATEKO UDAL HAUR ESCOLA

umezaintza

0-3 URTE *San Andres, 8*

uribarri

JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE *Uribarri etorbidea, z/g.*

MATRIKULA EPEA ZABALIK

URTARRILAREN 31tik OTSAILAREN 11ra

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu

943 77 20 25

www.arizmendi.eu

ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastola

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua



# Irailetik hona lana "ondo" egin ostean, etxean hasiko da lehiatzen Arrasate Dragoi taldea

## Gipuzkoako eskolarteko A mailako denboraldiko lehen fasea bihar hasiko da Uarkapen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Biharko saioa lehen fasea izango da eta gu nola gauden ikusteko eta batez ere aurkariak nola dauden neurtzeko balio izango du. Gure lana ondo egiten badugu pozik egongo gara, emaitza edozein dela". Edurne Elgoro Arrasate Dragoi gimnasia taldeko arduraduna itxaropentsu dago

bihar hasiko duten denboraldi berriari begira: "Irailean hasi genituen entrenamenduak eta ordutik hona lana ondo egin dugu, denboraz ondo ibili gara".

Bihar hasiko da Uarkapen Gipuzkoako eskolarteko A mailako 2010-2011 denboraldia -B mailako saioak ere izango dira-. A mailan EAEko gimnasta onenak

lehiatzen dira, Elkorok jakinarazi duenez. Egun osoan izango dira saioak: 10:00etatik 13:00etara alebinek eta infantilek bakarka eta taldeka hartuko dute parte. Kadeteak ere goizean lehiatuko dira, baina bakarka, A eta B mailetan. 16:45etik 20:30era, berriz, kadeteek, gazteek eta seniorrek taldeka egingo dituzte saioak, A eta B mailetan. Azkenik, seniorrak bakarka ikusteko aukera egongo da, A eta B mailetan.

### Arrasatetik 11 gimnasta

Honakoa izango da Arrasateko ordezkaritza, Arrasate Dragoi gimnasia taldearen eskutik: infantiletan, A mailan, Maialen Gallardo, Eider Altube, Ane Fernandez, Miren Amozarrain eta Maite Oliden lehiatuko dira, uztai banarekin. Kadeteak, berriz, B mailan lehiatuko dira, gimnasta bakoitza bi mazorekin: Ainhoa Delgado, Olatz Fernandez, Paula San Migel eta Ane Murillo. Gazteen mailan bakarka lehiatuko dira Aintzane Rodrighez eta Nerea Otxoa, uztai banarekin.

Lehen proba izango da Arrasateko neskendako, eta euren maila non dagoen ikusteko aukera izango dute. Baina baita, Elkororen arabera, aurten aurkariak zein maila izango duten ikusteko ere: "Urte urte gimnasta berriak izaten dira eta ez da erraza izaten denboraldiko helburuak zehaztea; biharkoa da lehen proba".



Iaz kadete mailan lehiatu ziren gimnastak: Olatz Fernandez, Aintzane Rodriguez, Eider Etxebarria, Paula San Migel eta Ainhoa Delgado. | ARRASATE DRAGOI



Nerea Otxoa A modalitatean lehiatuko da, bakarka, gazte mailan. | ARRASATE DRAGOI

## AKE tenis elkarteak Aloña Mendiren aurka lehiatuko da bihar, VNRC deritzon txapelketan

Goizean eta arratsaldean jokatu dira partidua

J.B. | ARRASATE

Tenis zaletasunak "gorakada" bizi du azkenaldian, Arrasateko AKE tenis elkartearen arabera. Gorakada horren lekuko

izango dira bihar Musakolako kiroldegiko tenis pistak. Izan ere, AKE elkarteak Aloña Mendiren aurka lehiatuko da VascoNavarroRiojanoCantabro (VNRC) deritzon txapelketan. Txapelketa hori aspaldi sortu zen Kantauri isurialdeko tenis elkarte ezberdinen eskutik, eta Davis koparen antzeko formatua dauka.

### Gure ordezkarien itzulera

Ibarreko taldeek hainbat urte daramatzate halako txapelketa baten parte hartu barik: "Aurten animatu egin gara eta izena eman dugu, tenisak gurean aspaldian izan duen gorakadaren adierazle", adierazi dute AKE elkartekoek. VNRC ligako hirugarren mailan lehiatuko dira bi taldeak.

## Dena erabakitzeke lehen fasea amaitzear dela

Hainbat talde zortzi onenen artean sartzeko lehiatzen

J.B. | ARRASATE

Bi jardunaldi besterik ez zaio geratzen Zaldibarko areto futbol txapelketari lehen fasea amaitzeko, eta, ia urtero moduan, dena dago erabakitzeke oraindik. Betrayar, Iluntz eta Portaboleiros ez daude zortzi onenen artean, baina oraindik aukerak dituzte txapelketa irabazteko lehiatzen sartzeko. Tentsioz betetako bi jardunaldi espero dira, beraz.

### Kopako finala hilaren 26an

Aurreko astean iragarri genuen ligako bigarren fasea eta kopa berritasunekin datozela. Ligari erreparatu, B liga sortu dute, zortzi onenen artean geratzen ez direnak jokatzeko jarraitzeko aukera izan dezaten. Bada, kopari dagokionez, antolatzaileek jakinarazi dute otsaileko azken bi aste bukaeretan jokatu dela txapelketa osoa. Otsailaren 19an final-



Futbolaria Zaldibarren jokoan. | GOIENA

zortzirenak jokatu dira -sei partidua- eta hilaren 20an final-laurdenak -lau partidua-. Finalerdia, berriz, otsailaren 26an jokatu dira, goizean. Azkenik, final handia egun berean jokatu da, baina arratsaldean.

### KARTELDEGIA

| EMAITZAK                       |      |
|--------------------------------|------|
| Iluntz-Fidel & Disc.           | 4-2  |
| Iriztu-Dribling                | 4-5  |
| Betrayer-Abokajarro            | 3-8  |
| Lasagabaster-Ekaltz            | 3-4  |
| Fuxxion-Dublin                 | 2-11 |
| Portaboleiros-Steaua del Grifo | 6-2  |
| Cipris-McAwenDauen             | 4-3  |

| SAILKAPENA          |    |    |
|---------------------|----|----|
| TALDEA              | P  | J  |
| 1 Dribling          | 26 | 11 |
| 2 Cipris            | 24 | 11 |
| 3 Ekaltz            | 24 | 10 |
| 4 Lasagabaster      | 22 | 11 |
| 5 Iriztu            | 21 | 11 |
| 6 Abokajarro        | 20 | 11 |
| 7 McAwenDauen       | 20 | 11 |
| 8 Dublin            | 17 | 11 |
| 9 Betrayer          | 15 | 11 |
| 10 Iluntz           | 13 | 11 |
| 11 Portaboleiros    | 12 | 10 |
| 12 Fidel & Disc.    | 6  | 11 |
| 13 Fuxxion          | 3  | 11 |
| 14 Steaua del Grifo | 0  | 11 |

| PARTIDUAK           |                                          |
|---------------------|------------------------------------------|
| OTSAILAK 5, ZAPATUA |                                          |
| 10:30               | Portaboleiros-Cipris / Lasagabaster      |
| 11:30               | Lasagabaster-Steaua del Grifo / Portabo. |
| 12:30               | Iriztu-Ekaltz / Steaua del Grifo.        |
| 16:00               | Dribling-Iluntz / Fuxxion                |
| 17:00               | Fuxxion-McAwenDauen / Dribling           |
| OTSAILAK 6, DOMEGA  |                                          |
| 10:30               | Portaboleiros-Ekaltz / Fidel & Disc.     |
| 11:30               | Abokajarro-Fidel & Disc. / Ekaltz        |
| 12:30               | Dublin-Betrayer / Abokajarro             |

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aulkien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Besaulki, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**





Ain\_1 taldearen ikuskizuna: musika, poesia eta dantza uztartzen dituzte, besteak beste. | GOIENA

## Ain\_1 taldeko neskek musika kaxan gordetakoak aterako dituzte gaztetxean

Arrasateko taldeak Musika kaxa proiektu berria aurkeztuko du gaur Arrasateko gaztetxean, 22:00etan; doan izango da kontzerturako sarrera

**ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE**  
Musika, poesia, dantza, antzerkia... uztartuko dituen ikuskizuna eskainiko dute gaur Arrasateko gaztetxean Ain\_1 taldeko neskek. Urtebete da kontzerturik eskaintzen ez dutena; urte hone-tan, batez ere, abesti berriak sortzen ibili dira. Hain zuzen, *Musika kaxa* proiektu berria da gaur 22:00etan hasita eskainiko dutena.

**Hutsetik hasitako lana**  
Proiektu berria orain arte egin dutenaren jarraipena den edo ez galdetuta, Iraitz Agirre taldeki-deak azaldu du oraindik ezin

dutela hori baloratu: "Kontzertuaren ondoren jendearekin egoteko gogo-a daukagu, proiektua zer iruditu zaien jakiteko". Agirrek azaldu du, alde batetik, euren-dako al-daketa izan dela *Musika kaxa* proiektua: "Sorkuntza hutsetik hasi dugu; abestien letrak eta musikak huts-hutsetik hasi ditugu". Gainera, euren abestietan flamenko kaxa sartzeak indarra ematen diela uste du.

Bestalde, abestietan melodia melankolikoak gailentzen direla uste du: "Orain arteko abestien tonu antzerakoa", azaldu du. Horregatik, kontzertuko sentsazioak ikusi gura dituzte.

**Objektu femeninoa**  
Proiektu berrian hainbat gai landuko dituzte, eta musika kaxa nonahi egongo den objektua izango da. "Guretzat esanahi handia duen objektua da. Metafora moduan balio du; izan ere, nork bere gauzatxoak sartzen ditu musika kaxa baten. Gainera, oso objektu femeninoa da", azaldu du Agirrek.

Bost lagun-ek osatzen dute taldea: Maialen Madariagak kaxa flamenkoa jotzen du; Amaia Pavonek biolina; Ainara Kortabarriak eta Iraitz Agirrek gitarra, eta ahotsa; eta Itsaso Navaridasek dantzan egiten du.

## Santi Leonek euskaratuko du 'Pantaleón y las visitadoras' lana

**A.E. | ARRASATE**  
Santi Leone Puncel iruindarrak irabazi du Literaturako Nobel saridunak euskaratzeko AEDk eta Elkarrek Kutxaren laguntzarekin antolaturiko Jokin Zaitegi itzulpen-lehiaketa. Mario Vargas Llosa idazle peruarraren *Pantaleón y las visitadoras* eleberria

euskaratu beharko du Leonek, eta 2011. urte amaiera baino lehen emango du argitara Elkar argitaletxeak.

Historian doktorea da Leone, historialari lanak egin ditu, zutabeak ere idazten ditu euskal prentsan eta irakaslea da Hizkuntza Eskolan.



Santi Leone. | GOIENA

## Alkoholik gabeko bertso afaria egingo dute Erguingo gazte txokoan bihar, 20:30ean

11 Bertute taldeko Mikel Arrillaga eta Felipe Zelaieta izango dira saioko bertsolariak

**A.E. | ARRASATE**  
Gazteei zuzendutako ekintza bereziak antolatzen dihardute gazte txokoan azkenaldian. Oraingoan, bertso afaria izango dute Erguinen; baina bertso afari berezia izango da: alkoholik gabeko afaria eta saioa.

Antolatzaileek haxe adierazi dute: "Bertsoak gustuko dituzte gazte arrasatearrek, eta, horren harira, alkoholik gabeko bertso afaria" antolatu dute.

bares ibiliko dira, gazte txokoe-tako hezitzaileak.

**Ekintza bereziak**  
Arrasateko gazte txokoe-ekintza bereziak antolatzen dituzte aste bukaeretakako. Urte hasieran mendira joan ziren, eskalatzen ere izan ziren eta joan den astean eskiatzera joan ziren 56 neska-mutikorekin.

### Gaztetxoendako doan

12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako bertso afaria izango da; eta, hain zuzen, gaztetxo horiek doan izango dute afaria. Ekitaldian parte hartuko duten bertsolariak Mikel Arrillaga eta Felipe Zelaieta izango dira, biak ala biak 11 Bertute taldeko kideak. Afaria prestatzen eta gai-jartzaile lanetan, ostera, Maitane Unamuno eta Jon Oli-

DATUA

30

PERTSONA

Afaritan 30 lagunendako lekua egongo da eta 12-17 urte bitarteko gazteek doan afaltzeko aukera izango dute.

## '3 metros sobre el cielo' filma eskainiko dute bihar eta etzi, eta 'Los viajes de Gulliver' haurrendako

Zapatuan 19:30ean eta 22:00etan izango dira nagusien emanaldiak, eta domekan 19:30ean. *3 metros sobre el cielo* Fernando Gonzalez Molina zuzendariarena da. 118 minutu irauten duen drama da, 12 urtetik gorakoei zuzendua. Haurrendako, ostera, *Los viajes de Gulliver* eskainiko dute, domekan 17:00etan. Rob Lettermanek zuzendutako abenturazko filma etxeko txiki- en gustukoa izango da. 86 minutu irauten du lanak eta publiko guztiendako moduko eskaintza da.

## Emakume Txokoak jolasaren eta gorputzaren sormen ikastaroa egingo du

**A.E. | BERGARA**  
Otsailaren 16tik martxoaren 31ra izango da *Jolasaren eta gorputzaren bitartez* ikastaroa, eguaztenetan, 18:00etatik 21:00etara. Gaztelan-iaz izango da. Langileek 37 euro oraindu beharko dituzte; langabeek 25 euro; eta Arrasaten erroldatuta ez daudenek, 42 euro.

### Ikastaroaren mamia

Bizipen ikastaro bat da, pinturaren bidez askatzeko eta naturaltasuna bizi izateko; jolasten duzula sortzea; behatzen duzula hausnartzea eta interesa agertzea sormenaren prozesuan eta ez emaitzan. Ez da beharrezkoa eskarmenturik izatea pintura kontuetan.



**BASATI**  
TABERNA

943 71 17 68

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*



**Gubi**

ILE APAINDEGIA  
Otalora Lizentziaduna 5  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 12 74

Restaurante  
**UGARAN**  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



# Cespa eta Udala salatu zituzten kale garbitzaileek epaiketa irabazi dute

- Udalbatzak errekurritzea erabaki zuen astelehenean, osoko bilkuran
- Kaleratze ezegokiagatik 222.149 euroko kalte-ordaina jasoko lukete

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Irailan Bergarako Udalak kaleak garbitzeko zerbitzua bere gain hartu zuen, eta orduz geroztik eztabaida ugari egon da garai hartan zerbitzua ematen zuten langile batzuen, Cespa enpresaren eta Udalaren artean. Irailera arte Cespa enpresak ematen zuen zerbitzu hori, baina, Udalak hartzean, langileek aldi baterako kontratua sinatu zuten Udalarekin, oposizio publikoak gaingintzeko baldintzarekin. Eta apurka deialdi horiek ateratzen ari dela jakinarazi dute Udaletik.

Urgentziazko adostasuna izan zen hori, Udal Gobernuaren eta Cesparen artean hartutakoa. 11 langilek ziharduten garai hartan Cespan, baina akordio horrekin ados ez, eta lauk ez zuten kontratua sinatu. Ondorioz, Udalak kaleratu egin zituen. Horrekin guztiarekin, lau kale garbitzaileok salatu egin zituzten Cespa eta Udala irailan.

Gainerako langileek, hasiera baten Udalaren baldintzak onartu arren ere, salaketa jarri zioten, baina epea kanpo aurkeztu zuten baliorik gabe geratu zen.

## Epaia, urtarrilean

Epaia publiko urtarril hasieran egin zen, eta, haren arabera, Udalak lau langileoi kalte-ordaina



Bergarako kale garbitzaile bat lanean. | LANDER MUÑAGORRI

eman beharko die, kaleratze desegokia egotzita. Hala, 222.149 euro -187.135 euro kalte-ordainei dago-kienez eta 35.013, kaleratzeetik honako soldatagatik- eman beharko dizkie Udalak langileei. Dirurik eman ezean, Udalak langileok hartu beharko lituzke, Cespan zituzten baldintzekin.

**Udalak errekurritu egingo du** Erabakiari errekurtsioa jarriko dio Udalak, astelehenean ohiko osoko bilkuran onartu zuten. Udal Gobernuaren aldeko botoekin, EAJ eta PSE-EEren kontra-

koekin eta EAren abstentzioarekin hartu zuten erabakia.

Horrekin guztiarekin, Udalak kalte-ordaina ematearen aukeraren alde egin du, eta, horretarako, Banesto banketxeko kontuan sartuko ditu 222.149 euroak. Era berean, 150 euroko gordailua ere egingo du kontu horretan.

Bestalde, Enara Minguez Gobernazio batzordeburuaren esanetan, "administrazio publikoaren eta enpresa pribatuaren artean subrogazioak ez du biderik". Horretarako, Europatik emandako sententzia bat ere bere egin

du Udalak, non haren postura defendatzen den.

## Langileak haserre

Langileak gustura azaldu dira epaiarekin, arrazoia ematen die-lako. Kritika zorrotza ere egiten diote Udal Gobernuari. Zera diote: "Gure konbenioan agertzen den moduan, subrogazioak enpresa publiko eta pribatuaren artean eman egin behar dira". Eta Cespa enpresarekin lanean zeudeneko baldintza beretan jarraitzea eskatzen dute.

## Oposizioaren ikuspuntua

Rafa Amasorrain EAJko zinegotziak dioenez, Udalak zerbitzua bere gain hartzeko asmoa aurkeztu zuen unetik beretik zegoen subrogaziorako arriskua, eta orain "epaileak argi eta garbi esan du hala dela. Gainera, normala da, enpresa bat zure gain hartuz gero, langileak hor baitaude, eta lehenengo baldintza berberetan hartu beharko bailirateke".

Amasorrainek, bestalde, hau ekarri du gogora: "Udalak zerbitzu batzuen ardura hartu behar du eta beste batzuk kanpoko enpresen esku utzi behar ditu. Kale garbiketaren kasuan, herri-tarren artean inkesta bat egin zen, eta nahiko ados agertu ziren zerbitzuarekin".

## 'Mugituko da' DVDaren 2. edizioa eskuragarri dago

Bolintxo, Konde Panaderokua eta Mizpildi okindegieta dago eskuragarri. Bideoak 5 euro balio du, eta 2010ean Bergaran Jose Luis Elkoro alkate ohia libre lagatzeko egin ziren ekintzak jasotzen ditu. 36 minutu irauten duen bideo muntaian, Jose Luis Elkoro kartzelan sartu baino egun bat lehenago egin zituen adierazpenak ere jasotzen dira, baita ekimenean parte hartu zuten beste batzuenak ere.

## OHARRAK

### SANTA AGEDA BEZPERAN KANTUAN ATERAKO DIRA

Alai Taldea Santa Ageda koplak abesten ibiliko da herriko kaleetan barrena gaur, egubakoitza. 18:30ean abiatuko dira San Martin plaza-tik.

### PAKISTANI BURUZKO HITZALDIA EGUAZTENEAN

*Euskadi eta Baltistan: mendian ere lagun* delako hitzaldia egongo da hilaren 9an, 18:00etan, osoko bilkuren aretoan. Felix Baltistan Fundazioak eta Udalak antolatu dute.

### DONOSTIARA IRTEERA SAN JOXEPEREKIN

Hilaren 23an egingo dute. 10:30ean abiatuko dira autobus geltokitik, eta, Donostia ikusi eta gero, Aginaga sagardotegian bazkalduko dute. Izenematea zabalik dago elkar-tearen bulegoan.

# Herri Programa ekimena aurkeztu dute

Ezker Abertzaleak herritarren iritzia bilduko du inkesta zabal baten bidez

L.M. | BERGARA

Azken hilabeteetan Bergarako Ezker Abertzalea herriko egoera aztertzen ari da. Hainbat alorren inguruko azterketa egin dute, eta, besteak beste Udala, euskara, emakumea, hezkuntza, kultura, migrazioa, etxebizitza, ingurumena, kirola, lana... eta halako

gaien gainean haunarketa egin dute. Diagnosi hori kontuan hartuta, hemendik aurrera herritarren parte-hartzean oinarritutako Herri Programa landuko du Ezker Abertzaleak datorren maiatzean egingo diren hauteskundeetara begira.

Horretarako, hauteskunderen

jomugarekin, datorren eguaztetenetik aurrera "Gipuzkoa eta Bergarari buruzko gai garrantzitsuen gainean Bergaran inoiz egin den inkesta handiena" egingo dutela jakinarazi zuten eguaztenean eskainitako prentsurrekoan. Bergarar guztiei galdeketa bat zuzenduko zaie, eta erantzun

horiek baliatuz Herri Programa osatuko dute.

Herritarren iritzia jasotzeko hainbat bitarteko jarriko dituzte martxan. Etxe guztietara inkestak helaraziko dituzte, herritar bakoitzak berea bete dezan. Erantzun horiek jasotzeko, herrigune esanguratsuetan postontziak jarriko dira. Azkenik, Interneten webgune bat jarriko dute martxan, herriaren beharren inguruan herritarrek euren iritzia emateko.

## BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74



**Estella ortopedia**



RPS 421/97



**ZERBITZU BERRIA**  
Gurpil-aulkien eta garabien  
alokairua



Matxiategi 5, Telefonoa: 943 76 19 63  
consultas@farmaciaestella.com

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 39 53





# Korrika Batzordea asteen hasi da lanean apirilaren 14ra begira

Angiozartik lehenengoz pasako dela-eta, han ere batzordea osatzeko dei egin dute gaurko, barikua

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Korrika 17 geroago eta gertuago dago. Apirilaren 14an, eguna, 07:00etan igaroko da Bergaratik, eta, ordurako guztia prest egon dadin, dagoeneko hasi da lanean herritar talde bat. Hain justu ere, asteen –martitzenean– egin dute lehenengo Korrika Batzordea eta han batu ziren Jardun elkarteko, LAB sindikatuko, Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastoletako, Miguel Altuna institutuko eta Musika Eskolako ordezkariak. Haiekin batera Debagoieneko

Korrikako arduradun Maite Ilarduia bergararra ere egon zen. Batzordeok irekiak dira, eta nahi duten herritar guztiek har dezakete parte. Hurrengo batzarra otsailaren 22an izango da, 19:00etan, kultura etxean.

Batzorde horren zereginetako bat da Korrika herritik igaroko den eguna eta aurrekoak girotzea, eta hainbat proposamen egin zituzten martitzenean, oraindik zehazteko dauden arren. Girotze lan horretan Korrika Kulturalak –kultura ekitaldi



Martitzeneko batzordean parte hartu zuen herritar taldea. | GOIENA

sorta– garrantzi handia du, baina otsailaren 22an lantzeko laga zuten, horretarako "herriko kultura talde gehiagoren falta sumatu" zuten-eta.

Korrika Txikiari dagokionez, apirilaren 13an egitea adostu zuten, eskola orduetan, urteroko ibilbidearekin.

## Angiozarren ere batzordea

Angiozarren ere Korrika Batzordea eratzeko ahalegina egingo dute. Lehenengoz pasako da handik Korrika –Elgetatik etorriko da– eta aukera hori aprobetxatu nahi izan du Guraso Elkartek. Hala, gaurko, barikua, egin dute deialdia, 20:00etan, saloian.

## Migeltxo Saralegi domekan, San Blas jaietan

M.B. | BERGARA

Murinondon sanblasak ospatzen dihardute. Bihar, 16:00etan, mus txapelketa jokatu da. Izenematea 15:30ean hasiko da eta bikote bakoitzak 15 euro ordainduko ditu. Domekan meza nagusia egongo da, 11:00etan; eta 11:30ean, dantza erakustaldia; gero, harri-jasotzaileen erakustaldia. Migeltxo Saralegi 100 kiloko zilindro eta esferikoarekin eta 200 kiloko laukiluzearekin arituko da. Idoia Etxeberria, berriz, 80 kiloko kubikoarekin, 63 kiloko esferikoarekin eta 100 kiloko laukiluzearekin.

Domekan, autobus zerbitzua egongo da ermitara igotzeko. 10:30ean irtengo da Agorrosin paretik eta 13:30ean jaitsiko da auzotik.



MARIAREN LAGUNDIA



MARIAREN LAGUNDIA

## Mariaren Lagundiko ikasleak, okin

Mariaren Lagundia ikastolako 5 urteko ikasleek ogia nola egiten den ikasten dihardute. Hori horrela, Mizpildi okindegian egon dira, ogia egiteko prozesua bertatik bertara ikusten. Eskumako argazkiko taldeak okindegian landutako oreka du eskuan; eskumakoak pipa ere badu.

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

**Eraikuntza  
materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**GURIA  
Taberna**

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**CAMACHO**

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**Mujika  
gozotegia**



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**  
943 76 10 34


**GOIERRI  
Autogidarien Eskola**



Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu  
Informa zaitez

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA





"Bergara eta UDA puntu bakarrera daude sailkapenean. Irudian, lehen itzuliko partidua, Ibarran. ". | GOIENA

## "Derbia oso aukera ona da bolada onaren bidera bueltatzeko"

UDArekin aurka "gogor eta partidua irabaztera" irtengo da bihar Bergara (Agorrosin, 16:30)

**JOKIN BEREZIARTUA** | BERGARA

Azken jardunaldian Tolosaren aurka 1-0 galdu ostean eten zen Bergararen bolada ona. Zortzi norgehiagoka egin zituzten jarraian

mahoneroek partidurik galdu gabe. Bada, hau uste du Oskar Maiztegi entrenatzaileak: "Derbia oso aukera ona da lehengo bidera bueltatu eta bolada onari berriro

ekiteko". Derbia jokatu dute bihar, beraz, Bergara (32) eta UDAk (33), Agorrosin. Elkar ondo eza gutzen duten jokalaria dira, eta, Agorrosin oso zela bera ez bada ere, harmailetako giroa bermatuta dago. Izan ere, Aretxabaletako zale asko espero dira.

### Aukerak aprobetxatu behar

"Etxean jokatzeko dugu eta gogor irtengo gara, partidua irabaztera. Derbia motibazio estra bat da jokariendako, baina, aldi berean, urduritasuna nagusitu ohi da eta joko gutxi egoten da halako partiduetan. Aukera gutxi egongo dira eta horiek aprobetxatu behar ditugu", adierazi du Maiztegi.

Bestalde, aurkariaren gainean galdetuta honakoa adierazi du mahoneroen entrenatzaileak: "Denboraldi hasieran hobeto arituko zirela uste zuten eta ez zen hala izan, baina egoera zail horri buelta eman diote dagoeneko".

Azkenik, pronostikoa eskatu diogu Maiztegi, baina ez du emaitza zehatzik eman gura izan: "Gurea ondo egiten badugu, irabazi egingo dugu".

### UDA ere hiru puntuen bila

Lehen derbia izango da Aretxabaletako aulkira heldu berri den Juanan Cruzendako. Lehen taldearen aulkian aurreko jardunaldian eseri zen lehenengoz, baina beheko mailetan urte askoan egondakoa da. Beraz, ondo baino hobeto daki nolakoak izaten diren gure ibarreko derbiak: "Intentsitate handiko partidua izango da; zaila, baina polita aldi berean".

Taldea "une onean" datorrela uste du Cruzek: "Oso ondo ari gara entrenatzen, intentsitate handiarekin. Pozik nago jokalariek laneako erakutsi duten jarrerarekin, eta derbiari aurre egiteko une onean gaude, fisikoki eta psikologikoki". Bergarako "talde gazte eta lehiakorra" dela uste du: "Ez ditut haien partidua asko ikusi, baina azken boladan oso ondo daudela erakutsi dute; kontuan hartu beharreko taldea da". Cruzek ere ez du pronostikorik egin: "Ondo jokatu eta itxura ona ematen badugu, hiru puntuak Aretxabaletara ekarriko ditugu".

## Soraluce BKEk Hondarribian jokatu du etzi

**J.B.** | BERGARA

Soraluce BKE eskubaloitzaileak La Bacaladera Hondarribiaren aurka jokatu du domekan, 12:00etan.

Hondarribiara partidua ona egiteko asmoarekin doaz, Josetxo Muniategi entrenatzaileak esan duenez: "Kanpoan da partidua, eta kanpoan irabaztea asko kostatzen zaigu. Jendearen berotasun falta eta batez ere kantxa bera uste dut direla arrazoiak. Labegaraietara oso ohituta gaude, egurra kategoriako onenen artean dago. Errazagoa da kantxa txar baten lan egin eta ondo dagoen batera ohitzea alderantziz baino". Bergararren jokoari dagokionez, "infantil mailako akatsak" egiten dituztela uste du: "Kontraerasoan batez ere bizkorregi jokatzeko dugu".

### Hondarribia, "hazten"

Hondarribia "hazten" doan taldea dela uste du Muniategi: "Esperientziadun jokalaria jende gaztearekin tartekatuta dituzte, partidua zaila izango da". Etiket kanpo ere puntuak batzen hasia beharrezkoa da mahoneroendako, beheko taldeak hasi dira eta sailkapena estutzen.

## Saskibaloia maite duten 70 lagun Caja Laboral taldea animatzera

Caja Laboralen eta Unicajaren arteko partidua ikustera joan ziren 70 lagun urtarilaren 29an, eta Alex Gardoki antolatzaileak esan duenez, "oso gustura" ibili ziren. Domekan, berriz, Lagun Aro ikustera joango dira Donostiara, saskibaloia eskolako haurrekin. Azkenik, Gardokik aurreratu du apirilean berriro joango direla Caja Laboral animatzera.



BERGARA KIROL ELKARTEA



**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13



Argazkia: Kiñin



# Amodiozko gutunen lehiaketako gazteen saria nori eman erabaki du epaimahaiak

Nagusien epaimahaia batzartu ostean esango dituzte sarituen izenak

**ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA**  
Dagoeneko hartu du erabakia gazte epaimahaiak. Martitzenean batzartu ziren epaimahaiko kide Maddi Muxika, Alazne Murgizu, Josu Unamuno eta Nora Txintxurreta kultura etxean. Aran-zadi ikastolako eta Ipintza institutuko ikasleak dira aipatutako gazteak. Lehiaketan parte hartu duten gazteen gutunak irakurri ostean, saria nori eman erabaki zuten. Guztira, gazteek idatzita-ko 32 gutun jaso dituzte lehiake-tan.

**Nagusien epaimahaia**  
Sari nagusiari dagokionez, dato-rrren asteko astelehenean elkar-tuko dira epaimahaiko kideak erabakia hartzeko. Aurten epai-mahaia osatuko dute Ines Osina-ga Goseko abeslariak; Itsaso Paia bertsolariak; Gari Berasaluze idazleak; eta Juan Mari Agirreu-rreta iazko irabazleak.  
Sariak otsailaren 14an bana-tuko dituzte, astelehena, arra-tsaldeko zazpietan, kultura etxean. Sari banaketaren ondoren luncha egongo da.

**Antolatzaileak pozik daude**  
Jardun euskara elkarteko kideak pozik daude aurtengo edizioak



Josu Unamuno, Nora Txintxurreta, Maddi Muxika eta Alazne Murgizu. | A.E.

izan duen erantzunarekin. 19. urtez antolatu dute lehiaketa eta erantzuna ona izan da. Azken urteetan berriro ere indarra har-tzen dabilen lehiaketa da.  
Guztira, 56 gutun jaso dituz-te; horietatik 41 Gipuzkoatik iritsitakoak; bergararrenak, berriz, 11 izan dira.  
Nabarmentzekoa da emaku-mezkoen presentzia handia izan dela: 43 gutun idatzi dituzte ema-kumee eta 13 gizonezkoek.

Aurtengo nobedadea 50 urte-tik gorakoen maila da. Maila horretan, baina, hiru gutun bes-terik ez dituzte jaso.  
**500 euroko saria**  
Irabazleak 500 euro eroango ditu; bigarrenak, 250 euro; bergarar onenak, 150 euro; gazteen saria-ren irabazleak 100 euro jasoko ditu; eta 50 urtetik gorako onenak, 100 euro. Datorren astean jakin-go da nortzuk diren irabazleak.

## Juan Aiestak margo erakusketa zabalduko du gaur Aroztegin

*Bide batez* margo erakusketa inauguratuko dute gaur 18:00e-tan Aroztegi aretoan. Juan F. Aiesta beasaindarraren mar-goak jarriko dituzte ikusgai. Bere burua autodidakta moduan aurkezten du Aiestak. Erakusketa zabalik egongo da gaurtik otsailaren 20ra arte, astelehenetik egubakoi-tzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, goizez 12:00etatik 14:00etara eta arratsalde-z 18:00etatik 20:30era; eta dome-kean, 12:00etatik 14:00etara.

## 'Salda badago' filma eskainiko dute domekan gaztetxean

Dagoeneko gertu dute gazte-txean otsaileko zineklubeko egitaraua. Otsailean musika dokumentalak eskainiko dituzte. Etzi, domeka, *Salda badago* filma eskainiko dute. Euskal rockaren hastapenei buruzko dokumentala da. 70eko hamarkadaren amaie-ran eta 80koaren hasieran, nahasmendu politikoarekin batera, sekulako eztanda ger-tatu zen euskal musikagin-tzan. Gaztetxeko zinekluba domeka arratsaldeetan da, 18:00etan.

# Nagusiendako antzerkia gaur; eta zapatuan, umeendako

**A.E. | BERGARA**  
*Maritxu, nora zoaz* kantu ospetsua abiapuntu hartuta, umorezko maitasun eta ero-tismo istorioa kontatuko dute gaur Zabalotegin: Glu Glu antzerki taldearen *Nick Mari-txu Nick Bartolo* lana, 22:00e-tan. Sarrera 5 euro da. Mari-txu eta Bartolo ezizenekin txatean topo egingo duten bi gazteren istorioa da antzez-lana.  
Antzerkiak eta dantzak bat egingo dute Zabalotegiko taula gainean. Ezustekoz bete-tako komedia da. Eromenez-ko erritmoak munduan eta denboran zehar garraiatuko du ikuslea antzerki-bidaia komikoan.

**'Den-dena niretzat'**  
Zapatuan, berriz, 5 urtetik gorako gaztetxoendako txo-txongilo emanaldia izango da Zabalotegin. 18:00etan hasiko da eta sarrera 3 euro da. Behi-bi's taldeak *Den-dena niretzat* lana eskainiko du. Hiri osoko basoak suntsitu nahi dituen Makila Jaunaren istorioa kon-tatuko dute. Patricia Franco izango da aktorea.



## ETENGABEKO FORMAZIOA BERGARAN

Langile, autonomo, funtzionario eta langabetuentzako ikastaroak  
%100ean SUBENTZIONATUAK.

|                                                                  | Hasiera data | Orduak |
|------------------------------------------------------------------|--------------|--------|
| FABRIKAZIO MEKANIKO ARLOA                                        |              |        |
| Tornu konbentzionaleko mekanizazioa                              | 2011/02/14   | 80     |
| Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa                  | 2011/04/11   | 80     |
| CNC sarpen bidezko elektrohidguraren prestaketa eta programazioa | 2011/03/14   | 30     |
| CNC hari bidezko elektrohidguraren prestaketa eta programazioa.  | 2011/05/09   | 30     |
| 3Dko Diseinu Mekanikoa. SOLID WORKS. Modelaketa eta planoak.     | 2011/02/14   | 30     |
| 3Dko Diseinu Mekanikoa. SOLID WORKS. Multzoak.                   | 2011/03/14   | 30     |
| Saiakuntza Suntsitzaileak eta ez Suntsitzaileak.                 | 2011/02/07   | 40     |
| Elektrodo bidezko soldadura, erdiautomatizazioa eta TIG          | 2011/05/02   | 55     |

|                                                       | Hasiera data | Orduak |
|-------------------------------------------------------|--------------|--------|
| ZUBI-GARABIEN erabilpena.                             | 2011/02/21   | 17     |
| JASOKETA ESKORGEN erabilpena.                         | 2011/03/14   | 23     |
| ELEKTRIZITATE ALORRA                                  |              |        |
| Automatismo elektroteknikoak.                         | 2011/01/31   | 40     |
| Baimendutako instalatzaile karneta lortzeko ikastaroa | 2011/03/14   | 100    |
| ADMINISTRARITZA ETA INFORMATIKA ALORRA                |              |        |
| Nominak eta Gizarte Segurantza                        | 2011/03/14   | 60     |
| Dokumentu informatikoen elaborazioaren kudeaketa.     | 2011/02/14   | 75     |
| Informatika aplikazioak administrazio arloan          | 2011/02/14   | 80     |

**INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:**  
Miguel Altuna Institutua - Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara.  
Tel: 943 76 70 49 // Fax : 943 76 38 41 // E-posta: [ikastaroak@imaltuna.com](mailto:ikastaroak@imaltuna.com)





# Ana Periañez da pediatria berria eta abenduan hasi zen lanean

Elena Garrido familia-medikuarekin eta Txaro Txopitea erizainarekin atendituko ditu umeak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Pediatria berria dugu Oñatin: Ana Periañez abenduan hasi zen lanean, eta Elena Garrido medikuarekin eta Txaro Txopitea erizainarekin osatzen du osasun etxeko pediatria zerbitzuko taldea. Herrian zegoen ume kopurua ikusita, bigarren pediatria baten beharra zegoela ikusi zuten Osa-kidetzako ordezkariak. Hori horrela, umeak bi pediatrien artean banatu dituzte: bakoitzak 741 ume izango ditu ardurapean.

Ana Periañez pediatria duten umeek gutuna jaso zuten urtea bukatu aurretik, aldaketaren berri emateko. Dena den, kupoa banatzeko orduan arazoak izan dituzte. "Ordenagailu bidez banatu dituzte umeak, eta familia batzuetan ume bakoitza pediatria batekin jarri dute. Hor dago ara-

zoa; familia bereko umeak pediatria berberarekin egongo dira", esan digu osasun etxeko ardura-dun Santiago Aietxuk.

Aldaketekin zerbitzua hobetu egingo dutela uste dute osasun etxean: "Bi pediatria daude, eta bakoitzak ume kopuru zehatza dauka. Hori horrela, zerbitzua hobetuko dugula uste dut. Beharra bagenuen, behintzat".

## "Pediatria gutxi dago"

Azken urteotan pediatria bakarra egon da Oñatin -Ana Rio-, eta aldika familia-medikuaren laguntza izan du. Aurrerantzean egoera berbera izango da; hau da, pediatria eta familia-medikua egongo dira. Berrikuntza da norberak ume kopuru zehatza izango duela: Periañezek 741 ume eta Garridok beste horrenbeste.



Ana Periañez, Txaro Txopitea (zutik) eta Elena Garrido. | MIREIA BIKUÑA

"Pediatrien arazoa haratago doa. Ez dago pediatriarik, eta dauden apurak hiriburu handietan geratzen dira. Hori horre-

la, Oñati bezalako herrietan gabezia izaten dugu. Egun, pediatria bakarra dugu. Elena Garrido familia-medikua da, baina azken

bi urteotan pediatria lanak egin ditu gurean, eta guraso gehienek ezagutzen dute", esan digu Santiago Aietxuk.

DATUA

# 741

UME

Horiek dira pediatria bakoitzak bere ardurapean izango dituen umeak. Familia bereko seme-alabek pediatria berbera izango dute.

ESANAK

## "Pediatria zerbitzu hobea emango dugu aurrerantzean"

SANTIAGO AIETXU | OSASUN ETXEA



Elkar Heziko neska-mutikoak kopia-kantari. | ELKAR HEZI

## Santa Ageda eguna ospatuko dute herriko ikastetxeetan gaur

M.B. | OÑATI

"Santa Ageda bezpera degu. Euskal Herriko eguna, etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua deguna". Kopia hori eta beste hainbat abestuko dituzte Errekalde herri eskolako, Txantxiku ikastolako eta Elkar Heziko neska-mutikoek gaur.

10:30ean irtengo dira kalerik kale Elkar Heziko ikasleak trikitilarien laguntzarekin. Arratsaldean, 15:00etan, Errekaldekoen eta ikastolakoen txanda izango da. Herri eskolakoak auzoan ibiliko dira eta Txantxiku ikastolakoak, herriguneko kaleetan.

## 'Hauteskunde tailerra' egingo du Ezker Abertzaleak bihar

M.B. | OÑATI

2011ko hauteskunde programa prestatzeko tailerra egingo du Oñatiko Ezker Abertzaleak bihar, 09:00etan, Zuazola institutuko aretoan. Bertan egongo dira orain arte lanean egon diren hamar taldeetako koordinatzaileak. Aztertuko diren alorren diagnosia egingo dute. Gainera, tailerrera doazen herritarrek alor bakoitzean egin daitezkeen ekintzak proposatzeko aukera izango dute. Ekarpentok herri programan txertatuko dituzte.

Tailerraren atsedenealdian, 10:45ean, prentsaurrekoa egingo dute unibertsitate aurrean.

### Parte-hartzailea

Tailerraren helburua da askotariko puntuak batuko dituen programa parte-hartzailea egitea; besteak beste, krisiak herrietan sortzen dituen arazoak ukituko, Euskal Herrian irekitzen ari den prozesu demokratikoa dastatuko eta euskaraz eta emakume ahotsarekin hitz egingo duen programa.

## Alkateen Ituna: energia gehien aurrezten duten hamar herrien artean dago Oñati

Hitzarmenari esker energia berriztagarrien aldeko apustua berretsi du Udalak

M.B. | OÑATI

Oñatik energia berriztagarrien aldeko jarrera berretsi zuen Alkateen Ituna sinatu zuenean. Hori horrela, 2010ean energia gehien aurreztu duten hamar herrien artean dago Oñati. Energiaren Euskal Erakundeak emandako datuen arabera, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Amezketza, Areatza, Irun, Abanto-Zierbena, Balmaseda, Basauri eta Oñati dira gehien aurrezten dutenak.

Guztiekin sinatu zuten bere garaian Alkateen Ituna. Europa mailako akordioa da eta helburuak dira 2020rako CO<sub>2</sub> isurketak %20 murriztea, energia kontsumoa %20 jaistea eta kontsumi-

tutako energiaren %20 berriztagarria izatea. Hau da, energia kontsumoa txikitzea eta emisio kutsagarriak murriztea. Europar dagoeneko 2.100 herri eta hirik egin dute bat ekimenarekin.

### Orain arte egindakoa

Alkateen Ituna 20-20-20 moduan ere ezagutzen da. Azaroan sinatu zuen udalbatzak Alkateen Ituna, eta orduko hartan Lourdes Idoiaga alkateak azpimarratu zuen Oñatik "aspaldidanik" zuela konpromisoa energia berriztagarriekin. Horren adibide dira, adibidez: orain dela 20 urte Oñatiko Ur-jauziak erosi zuela, azken bost urteotan eguzki plaken alde

egin duten apustua, garraio publikoaren alde eginiko lana; eta bizikleta-plana.

### Etorkizunean egin beharrekoa

Bestalde, Alkateen Itunarekin bide beretik jarraitzeko eta hainbat ekintza egiteko konpromisoa hartu zuen; hala nola emisioen inbentarioa egitea, urtero Ekin-tza Plana aurkeztea, Udalaren egiturak egokitzea; eta Energiaren Eguna antolatzea. Horrela, egungo egoera aztertuta ateratako emaitzak kontuan izanda, jarduerak planifikatu beharko ditu Udalak energia-eraginkortasunaren eta energia-iturri berriztagarrien alorrean.

## NIRE USTEZ

OLATZ OSA



## Miopearen begiratua

Miopeak garenok badakigu betaurrekoak kendu orduko guztia lanbrotuta ikustea zeren. Distantzia laburrean horrenbestean moldatzen da, baina hauspo luzeko begiratuan, zehatzasuna galtzen du miopeak.

Gure herriaren etorkizunari begira urte berriak ekarri dizkigun gertakari historikoen aurrean, erreakzio batzuk entzun eta irakurrita miope gehitxo sumatzen dut oraindik gure inguruko bazterretan.

Betaurreko gabe ibiltzeak eragiten duen intsegritatez ikusi ditut hango eta hemengo politikari batzuk, estrategia motzean; nabarduretan galduta, batzuk, eta lanbroartean eroso, beste batzuk. Baina abaguneak hauspo luzeko begiratura eskatzen du.

Urte gehiegi galdu dugu motzean begiratu, geure arteko ika-miketetan murgilduta. Bisioa

aldatzeko eta zorrozteko unea iritsi da, ordea. Gizarteak, herri-tarrok, orain arte izan duena baino protagonismo eta eragin maila handiagoa eskuratu beharko luke.

Zorroztu dezagun gure begirata eta zigortu ditzagun lanbroartean eta itsu jarraitu nahi duten pertsona guztiak, eta babes-tu eta bultzatu ditzagun, arnas luzeko begiratuan, elkar hartuta bidea egiten ari diren eragile eta ekimenak. Behe lainotik atera eta koloretako herrian bizitzea gure esku ere badagoela pentsatu nahi dut, betaurrekoekin edo gabe.



Irati Anda | Eskalatzailea

# "Ametsak bete egin daitezke; ni eskalatzaile profesionala naiz"

- ▶ Irati Andak hitzaldia egin zuen astelehenean Zuazola institutuan
- ▶ ETBko 'El conquistador del fin del mundo' saioan dihardu, kapitain

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI  
Irati Anda (Gasteiz, 1982) eska-  
latzailea Zuazola institutuan  
egon zen astelehenean. Eskala-  
daren gainean egin zuen berba  
DBHko lehenengo mailako ikas-  
leekin. Haitzean eskalatzen eta  
txapelketetan parte hartzen  
hamarkada bat bete du, eta ibil-  
bidearen gaineko irudiak era-  
kutsi zizkien.  
**Zuazolako ikasleei esan diezu harro  
zaudela eskalatzaile profesionala  
izateaz.**  
Harro esaten dut eskalatzaile  
profesionala naizela, amets bat  
bete dudalako. *Ametsak, amets,*  
dio esatera batek. Baina oso gar-  
bi daukat ametsak egia bihur  
daitezkeela. Niretzat ohore han-  
dia da eskalatzaile profesionala  
naizela esatea eta nire ogibidea  
hori dela esatea. Eskaladagatik  
naiz naizen modukoa.  
**Zure hitzalditik beste berba bat ere  
azpimarratuko nuke: diziplina.**  
Eskalada eta diziplina eskutik  
doaz beti. Kirol guztiek eskatzen  
dute diziplina, baina gureak askoz  
gehiago. Ni naiz nire entrena-  
tzaile, psikologo, nutrizionista...  
Norberak antolatu behar ditu  
entrenamenduak. Banakako kirol  
guztiak bakartiak dira, eta gogo-  
rragoak.  
**2007a izan zen zure urte onena.**  
Bai, hala da. Munduko kopan  
bosgarren sailkatu nintzen, eta  
harkaitzean 8-C bidea kateatu



Irati Anda, Zuazola institutuko arkupean eskalatzen. | MIREIA BIKUÑA

## "Munduko kopan bosgarren sailkatu nintzen 2007an; urte ona izan zen"

nuen Baltzolan. Horrek guztiorrek  
diru sarrera garrantzitsuak eka-  
rri zizkidan. Eta emakumezko  
eskalatzaile onenen artean egon  
nintzen.  
**Onenen artean egoteko... zenbat  
entrenatzen zara?**

Ordu guztiak eskaintzen dizkiot  
eskaladari. Lotarako eta jateko  
erabiltzen ez ditudan orduak  
eskaladari eskaintzen dizkiot.  
Gorengo mailan egon naizenean,  
eskaladari %100 eskaini izan  
diot.  
**Orain, baina, ez zaude onenean.**  
Ez, urte borobil hura egin ostean,  
2008an min hartu nuen eskumu-  
turrean eta ebakuntza egin zida-  
ten. Errekuperatzen nengoela,  
auto-istripua izan nuen. Kolpe  
gogorrak izan ziren, batez ere  
ebakuntza, eta hondoa jo nuen.

Poliki-poliki hasi naiz zulotik  
irteten.  
**Txapelketak prestatzen hasiko zara  
berriro ere?**  
Badakit prestatu ahal ditudala,  
baina ez dakit gogoz nagoen  
sakrifizio eta diziplinarekin  
hasteko berriro ere. Eskalada  
munduan buru-belarri hasten  
banaiz, inguruan dudan guztia  
utzi behar dut: familia, lagunak...  
Ez dakit zer egingo dudan. Agian,  
eskalatzen hasiko naiz, baina  
maila apalagoan. Dena den, egoa  
oso traidorea da, eta beti ziri-  
katzen nau gorengo mailara  
itzultzeko.  
**Itzultzeko erabakia hartuko bazenu,  
denborarik izango zenuke uztalean  
jokatuko den munduko kopa pres-  
tatzeko?**  
Bai. Esperientziak erakutsi dit  
zer egin behar dudan munduko  
kopa prestatu nahi badut.  
**Eskaladan punta-puntan eta zuloan  
egon zara. Gazia eta gozoa proba-  
tu dituzu.**  
Bai, eta oso gogorra da. Goian  
zaudenean dena da zoriontasuna,  
dirulaguntzak, babesleak... Bai-  
na zuloan zaudenean familia eta  
lagunak daude.  
**Eskaladari baino gehiago, beste  
hainbat konturi eskaintzen diozu  
denbora. Bertsoan hasi zara.**  
Lagun batzuekin hasi nintzen  
bertso eskolan eta Arabako tx-  
apelketan parte hartzeko izena  
eman dut.  
**Gainera, ETBko 'El conquistador  
del fin del mundo' saioan dihardu-  
zu, kapitain.**  
Telebista saioan parte hartzeko  
proposamena egin zidatenean,  
zalantza asko izan nituen. Kapi-  
tain izanda talde bat kudeatu  
behar nuen, eta nik bakarkako  
kirola egiten dut. Zalantzak  
zalantza, onartu egin nuen, eta  
esperientzia oso ona izan da.  
Proba ikusgarriak geratzen dira  
oraindik!

### BETERANUAK

#### EMAITZAK, "B" TALDEA

|                         |     |
|-------------------------|-----|
| Albok-Lozoromo          | 2-2 |
| Sasquatch-Etxaikat      | 5-1 |
| Kalañatasaray-Zorrobero | 1-1 |
| Paketinaikos-Ixarrixak  | 0-6 |

#### SAILKAPENA, "A" TALDEA

| TALDEA           | P  | J |
|------------------|----|---|
| 1 The Gibel Boys | 16 | 6 |
| 2 Xaguxar        | 13 | 6 |
| 3 Indar 85       | 12 | 6 |
| 4 Joxely         | 11 | 6 |
| 5 Doolygans      | 9  | 6 |
| 6 Bundeswehr     | 8  | 6 |
| 7 Gaur Bai       | 7  | 6 |
| 8 Txuskos        | 4  | 6 |
| 9 Nandrolona     | 4  | 6 |
| 10 Ankarteko     | -3 | 6 |

#### SAILKAPENA, "B" TALDEA

| TALDEA          | P  | J |
|-----------------|----|---|
| 1 Albok         | 13 | 5 |
| 2 Kalañatasaray | 13 | 6 |
| 3 Txarrixak     | 12 | 5 |
| 4 Zorrobero     | 11 | 5 |
| 5 Sasquatch     | 9  | 6 |
| 6 Lozoromo      | 5  | 5 |
| 7 Paketinaikos  | 3  | 6 |
| 8 Etxaikat      | 3  | 4 |
| 9 Jai Ari       | 0  | 5 |

#### PARTIDUAK, "A" TALDEA

|                                            |
|--------------------------------------------|
| 7 JARDUNALDIA                              |
| <b>Zapatua 14:30</b> The Gibel Boys-Joxely |
| <b>Zapatua 18:30</b> Gaur Bai-Nandrolona   |
| <b>Zapatua 20:00</b> Bundeswehr-Indar 85   |

### Aldaketak aste bukaeran

Zapatuan A taldeko hiru partidu jokatuko dituzte. Laugarrena –Xaguxar-Txuskos– hilaren 12an jokatuko da, 19:00etan, eta Doolygans-Ankarteko, hilaren 13an, 13:00etan. A taldeko bi partiduen tartean B taldearen zazpigarren jardunaldia jokatuko dute.

### A taldeko liderrak jokatuko du bihar

The Gibel Boys da A taldeko ekiporik indartsuena. Bihar, 14:30ean, lehia gogorra jokatuko du sailkapeneko laugarrenaren kontra. The Gibel Boysek lehen tokian jarraitu gura badu, irabazi egin beharko du.

### OHARRAK

#### ODOL-ATERATZEA

Urteko bigarren odol-ateratzea egingo dute gaur Txantxiku ikastolan, 18:00etatik 20:00e-tara.

#### ERAKUSKETA

Ilunpetan argazki taldeak antolatutako *Oñati begi bistan* erakusketa ikusteko azken eguna gaur da. Aker, Guria, Ona eta Boga tabernetan dau-de ikusgai argazkiok.

## Aloña Mendiko karatekek domina ugari jantzi zituzten Eibarko txapelketan

12 oñatiar lehiatu ziren kata modalitatean, eskola mailako proban



Eibarren egon ziren Aloñako ordezkariak dominekin eta garaikurrekin. | ALOÑA MENDI KARATE SAILA

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko karate saileko neska-mutikoak domina eta sari ugariarekin itzuli ziren Eibarren jokatutako txapelketatik. Oñatiko 12 karateka lehiatu ziren kata modalitatean, eta, guztiek lan bikaina egin zuten arren, azpimarratzekoak dira podiumera igo zirenek egindakoa. Alde batetik, alebin mailako kata txapelketan, nesketan, gerriko zuri-horitik berderainoko parte-hartzaileen artean, Lide Fernandez lehen tokian sailkatu zen eta Ane Guri-di bigarren. Beste alde batetik, alebin mailako kata proban, mutiletan –gerriko zuri-horitik laran-jaraino–, Mikel Untzurruntzagak irabazi zuen. Aritz Leza bigarren sailkatu zen, eta Adrian Perez eta Imanol Astudillo hirugarren. "Guztiak zoriondu behar ditugu, lan ederra egin dute-eta", diote Aloña Mendiko karate saileko arduradunek.

#### Eskola mailakoa

Eibarren jokatutako txapelketa eskolarteko mailakoa izan zen, eta Oñatiko, Aretxabaletako eta Bergarako hainbat neska-mutikok parte hartu zuten.



# Udal Gobernuaren botoekin onartu dute 12 milioi euroko aurrekontua

- Alternatiba aurka agertu da eta gainerakoak abstenitu egin dira
- lazkoarekin alderatuta %16 egin du gora; inbertsioak %10 igo dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egin zuen astelehenean udalbatzak, eta 2011ko udal aurrekontua onartu. 12.721.447 euroko aurrekontua aurkeztu zuen Udal Gobernuak, iazkoarekin alderatuta %16ko igoera duena, eta ez zuen beste alderdien aldeko botorik jaso. EA, EAJ eta Alderdi Sozialista abstenitu egin ziren eta Alternatibako zinegotziak ezezkoa eman zion.

Inaxio Garro alkatearen esanetan, 2009-2011rako ezarritako irizpideak jarraitzen ditu eta 2008an onartutako austeritate edo herstura planarekin jarraitu dute: "Ahalegin handia egin dugu gastuak murrizteko eta inbertsioek gora egin dezaten; hala, %10 egin dute gora". Gastuek, ostera, behera egin dutela jakinarazi zuen: "Iaz aurrekontu osoaren %40 zen ondasun arruntei dagokien gastua eta aurren, %34".

## Kiroldegiko lanekin kezkatuta

Inbertsio garrantzitsuena, aurreko urtean legez, kiroldegi berriaren lanetarako da, eta 3.700.000 euro jasoko ditu. Horrekin batera, Urkuluko planarendako 636.000 euro bideratu dituzte; kiroldegi berriaren ekipamendurako, 300.000 euro; eta nekazari arloko konputetarako, 60.000 euro.

Hain zuzen, kiroldegiaren lanek kezka sortu dute udalbatzako hainbat kiderengan eta zimendatze arazoengatik sortutako gastu igoerak milioi bat eurotik gora zelan bideratu aztertu



Kiroldegiko lanek inbertsioetako partidari handiena jaso dute. | M.A.

## ESANAK

**"Egindako murrizketak oso erlatiboak dira eta azterketa benetan sakona behar dute partidek"**

EDORTA MENDIETA | EA

behar dute. Hirigintza Saileko teknikariak aipatu zuen argibideak eskatuko dituztela, eta txostena egin. Txosten horrekin kontu eske joango direla gero.

## Gainerakoek babesik ez

Alderdi Sozialistako zinegotzi Ainhoa Sagarribaik aipatu zuen igarri dutela "austeritate planari jarraitzeko egindako esfortzua", baina kiroldegiko kontuak kezkarriak direla: "Ia bi milioiko desbideratzea dago. Aurrekontuan gai garrantzitsuena da, eta jakin ez nondik aterako garen hortik". Hori horrela, abstenitzea erabaki zuten.

EAJko zinegotziak ere abstenitu egin ziren, eta hiru puntutan oinarritu zuten abstentzioaren arrazoiak: batetik, aurrekontuak ez duela etorkizunerako oinarri jakinarazi zuen Arritxu Olliden zinegotziak; bestetik, Gizarte Zerbitzuei dagokien aurrekontuak orokorrean behera egin duela eta larrialdietarako aurreikuspenik ez dela egin; eta hirugarrenik, ez dutela murrizketarik ikusi aipatu zuen: "Gastu orokorrean ia %10 murriztu dela esan arren guk ez dugu halakorik ikusten. Austeritate planean ahaletin handiagoa egin beharra dago; gastu ez finantzarioetatik gehiago aurreztu, esaterako".

Alternatiba alderdiko Tomas Fernandezek, ostera, aurrekontu "antisozialak" direla esan zuen, eta ezetza eman: "Gizarte larrialdietako partida erdira murriztu da, 80.000 eurotik 40.000 eurora". Eta kontraesan handiak ikusi ditu hainbat partidatan: "Protokolara 5.000 euro; udal aldizkarirako 40.000 euro, beste komunikabide batzuk ditugunean; Urats Gain zaharren egoitzako gastua zergatik igo den jakin ez...". Horien ordez beste behar batzuk aipatu zituen: udaletxean igogailua jarzea eta errentan emateko etxeak egitea kuarterel zaharrean.

Eta EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren, esanaz aurreko urteetako aurrekontuen jarraipena dela eta gastuak mozteko saiakera ikusi arren ez dela nahikoa izango: "Aipatutako murriz-

## AURREKONTUA

| GUZTIRA (eurotan)       | 12.721.447 |
|-------------------------|------------|
| Gastu arruntak          | 4.346.647  |
| Gizarte Zerbitzuak      | 519.893    |
| Hezkuntza               | 242.200    |
| Kultura                 | 635.655    |
| Jaiak                   | 165.750    |
| Kirolak                 | 270.224    |
| Hiribide publikoak      | 132.500    |
| Enplegu sustapena       | 71.819     |
| Ingurumena              | 68.454     |
| Herri segurtasuna       | 23.310     |
| Gobernu organoak        | 62.200     |
| Parkeak eta lorategiak  | 149.949    |
| Zaborrak-Kale garbiketa | 763.850    |
| Ura                     | 406.544    |
| Inbertsio errealak      | 5.026.281  |
| Kiroldegi berria        | 3.700.000  |
| Kiroldegiko ekipamendua | 300.000    |
| Urkuluko plana          | 636.484    |
| Nekazari arloa          | 60.000     |
| Hainbat hiri-lan        | 143.000    |
| Webgune berria          | 13.000     |
| Proiektuak              | 25.000     |
| Personal gastuak        | 1.681.988  |
| Transferentziak-besteak | 1.666.530  |

ketak oso erlatiboak dira, eta azterketa sakona behar dute partidek. Kiroldegiak asko baldintzatuko du Udalaren funtzionamendua epe motz eta ertainera", esan zuen Edorta Mendieta.

## Alternatibara aldaketa

Tomas Fernandez zinegotzia Ezker Batua alderditik Alternatibara pasatu da oraintsu, eta azken osoko bilkuretako aktetan atxikitu gabeko zinegotzi izendatu dute. Fernandezek akta horien aurka bozkatu zuen izen aldaketa bakarrik egon dela esanaz, eta ez alderdi aldaketa. Udal idazkaria ez zen bat etorri horrekin.

## Santa Ageda kantuan ibiliko dira gaur musika eskolako ikasleak eta abesbatzako kideak

Gaur, Santa Ageda bezpera, kantuan ibiliko dira kalean (18:30), elkarrekin, Leizarra musika eskolako hainbat ikasle eta irakasle eta Aretxabaleta Abesbatzako kideak.

Azken urteotan hartu dute kantuan irteteko ohitura, betiere Santa Ageda neska-mutilei trabarik egin barik eta eskean ibili barik: "Kintoez doinu ezberdinekin abesten zituztela koplak konturatu ginen, eta gure asmoa da Santa Agedaren bizitzako pasarteak jasotzen dituzten bertso horiek herritarrei ezagutaraztea gure kaleetako giroa alaitu bitartean", jakinarazi dute abesbatzako kideek.

## Eztabaida mahaiak antolatu gura ditu Basotxok, herriko alderdi politikoen iritzia jakiteko

Maiatzean egingo diren udal hauteskundeei begira eta erretiratuen elkarteak ia 1.000 bazkide dituela jakinda, alderdi politikoen iritzia jakin gura ditu Basotxok. Inaxio Garro alkatearekin bi saio egin zituzten iaz, eta oso gustura geratu ziren bi aldeak. Hori ikusita, eztabaida mahaiak antolatu gura dituzte herriko alderdietako ordezkariekin, eta hainbat galdera egin.

Erretiratuen interesekoak diren galdera horiek gertatu eta saioak antolatzeke batzarra egingo dute otsailaren 10ean, eguna, Basotxon bertan (17:30). Bazkideei batzarrera agertzeko dei egin diete zuzendaritzako kideek, guztien interesekoa delakoan.



**Jakiak bedekatzera eztarria babesteko**

Herritarrek eta ikastetxeetako ume eta gaztetxoak elkartu ziren atzo, otsailak 3, Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan, urtero legez. San Blas eztarriko gaitzendako babes eske joan ziren guztiak, zorroak eta poltsak jatekoz beteta zituztela: opilak, gozokiak, fruta... baita gatzaz ere, gero urtean zehar jaki guztiei botatzeko.



## NIRE USTEZ

OIER  
ETXEBARRIABetiko  
atxabaltarrak

Danok daukagu pertsonak sailkatu edo zirkulu desberdinetan sartzeko joera. Nik, behintzat, atxabaltar eta ez atxabaltarren arteko muga garbi daukat.

Lau urte kanpoan egin arren, bueltan etortzean ez dut kanpotar edo heldu berriaren sentsaziorik izan, ni betiko atxabaltarra bainaiz: hemen jaioa naiz eta atxabaltarra izateaz harro nago.

Aldi berean kalean ikusten ditudan pertsonak bi talde horietako baten sartzen ditut,

joan aurretik egiten nuen bezalaxe. Ez dit axola zenbat denbora daraman pertsona batek hemen bizitzen edo zein den bere jarrera edo nondik etorritakoa den bera. "Ez dut betidanik hemen ikusi eta ez da atxabaltarra", esaten diot neure buruari.

Dena den, zerbait aldatzen ari da nire barruan. Azkenaldian, kanpotik etorri den bati baino gehiagori entzun diot "nik atxabaltar izan nahi dut" esaten. Norbaitek kontrakoa esango dit igual, baina atxabaltar izan nahiaren eskubidea ez onartzea ez da jarrera ona. Atxabaltan bizi den edozein pertsonak dauka atxabaltar sentitzeko eskubidea, ez? Ez al nintzateke beste modu baten hurbilduko Atxabaltan bizi den ororengana, atxabaltartzat hartuko banu? Inoiz lortuko ote dut hori?

Santa Ageda neska-mutilak gaur hasiko dira  
kantuan baserriz baserri, eta bihar herrian

1992an jaiotako neska-mutilak -60 bat - auzoetara joango dira gaur, Santa Ageda bezpera, koplak abestu eta eskean; baserriz baserri jardungo dute. Bihar, Santa Ageda eguna, herrian ibiliko dira eta ilunkeran lehen dantza saioa egingo dute Herriko Plazan (19:00). Gainera, ohiturari jarraituz, domeka guztietan izango dute dantzaldia plazan, Aratuste-domekara bitartean; aurten, bost domeka izango dituzte dantzan egiteko.

Aretxabaleta inguruko bigarren ibilbidea  
aurkeztuko du Loramendik hilaren 12an

Hainbat lagun ibili dira Ametzako karobia berreskuratu eta iturriak txukuntzen

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak gertu dauka Aretxabaleta inguruko bigarren ibilbide historikoa: Aretxabaleta-Izurieta-Galartza-Apotzagaetxe-barri-Aretxabaleta. Ibilbide horren nondik norakoak jasotzen dituen liburuxka dagoeneko jaso dute bazkideek etxean, eta gainerakoek Loramendin daukate eskura. Orain, irteera egingo dute ibilbide hori aurkezteko: otsailaren 12an, zapatua, Herriko Plazatik irtenda (09:00).

## Auzolanean txukuntzen

"Badakizue arrasatearrak Aretxabaletako iturri batera etortzen zirela uretza edatera? Badakizu non dagoen? Kontu hori eta askoz gehiago jakin gura badituzu, etorri gurekin"; halaxe diote Loramendi elkarteak kideek, eta herritarrek hilaren 12ko irteerara animatu gura dituzte: "Salda, txistorra eta giro ona ziurtatuta izango dira".

Loramendi elkarteak toponimia taldea dabil ibilbide historiko horiek egiten; lehenengoa Aretxabaletan bertan kokatu zuten eta maiatzean aurkeztu, eta bigarrenarekin auzo inguruetako bideak jasotzen hasi dira. Hainbat erretiratu eta herriko



Hainbat lagun auzolanean Ametzako inguruan. | LORAMENDI ELKARTEA

kontuetan aditu daude toponimia taldean, eta, bideak berreskuratu ez ezik, historia kontuak ezaugarazi -San Blas basiliza, armariak...-, galtzeak dauden herriko berbak jaso -*damaikasía, olatia*...- eta beste hainbat konturen berri eman gura dute -karobia zer den...

Toponimia taldeko kide horiek animatuta hainbat lagunek jardun dute lanean azken asteotan bigarren ibilbidea txukuntzen. Hala,

Ametza auzoko karobi bat berreskuratzen ibili dira eta uretz iturriak konpondu dituzte. Lan horiek guztiak bukatutakoan, Izurieta, Ametzako eta Galartza lotzen dituen bidean seinaleztapenak jarriko dituzte.

Loramendi elkarteak kideak oso pozik daude herritar horiek borondatez egindako lanarekin: "Eskerrak eman gura dizkiegu auzolanean jardun duten herritar guztiei; artista hutsak zarete!".



## 2011-2012 ikasturtea

Izena ematea: **urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra arte**

Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



## TALDE EGOKITUAK

- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokitueta

## ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

## JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

## EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

## LOGELA



***Txiki txikitatik  
jolasten heziz***

BELORRIETA 8. ARETXABALETA. Tel.: 943 77 03 77



# Udazkenerako egon liteke Zaldibar antzokia

Hilabete honetarako, erabilera askotariko aretoaren bigarren proiektua espero dute Udalean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Zaldibar antzokia itxura hartzen dabil. Lehen faseko obrak dagoeneko oso aurreratuta daude, eta Udalak hilabete honetarako espero du bigarren fasearen proiektua. Kasu horretan ere, IMB Arquitectos enpresak du horren arduraren, 37.170 euroren truke.

Lanei dagokienez, enpresa horretako Agustin de la Brena arkitektoak jakinarazi digu bi hilabetean amaituta egongo direla horiek. Horren harira, azaldu digu egitura sendotu eta kanpoalde berritu egin dutela, eraikinaren konfigurazioari eutsita. Horrekin batera, azaldu digu dagoeneko egokitu dituztela instalazioak eta orain anfiteatroarekin dabiltzala.

Bigarren faseko proiektuaren ganean Brenak azaldu du asmoa dela lehen fasea amaitu bezain

laster bigarrenaren obrekin hastea. Bestelako espazioak egokitu ko dira, hala nola aldagelak, instalazio gelak eta komunak. Jarraian, aretoa jantzi eta instalazio eszenografikoak jarriko dituzte. Dena behar bezala baldin badoa udazkenerako gertu egon daitekeela dio De la Brenak.

## Agertoki handiagoa

Antzokiak 300 metro karratu izango ditu, eta 140 lagunendako tokia. Proiektuak 150 eserleku zituen aurreikusita, baina, adituen esanetan, hasierako proiektu horretan agertzen zen agertokia txikiegia zen eta aretoari eserleku lerro bat kendu diote. Askotariko erabilerako aretoak 90 metro karratu pasatxo izango ditu eta agertokiak, 34 metro.

Bestalde, bigarren fase horren gaineko finantzazioaz berba egin



Kanpoaldea berrituta dago. | MIRIAN BITERI

du Pedro Lasagabaster alkateak. Azaldu du aurtengo udal aurrekontuetan lan horiek egiteko 600.000 euroko partida aurreikusita dagoela. Horren harira, gai-

neratu du Santa Marina ingurune urbanizazioa dela-eta Jaur-laritzak dirulaguntza eman behar diola Udalarari; eta horrekin lanak ordaintzeko asmoa dutela. Dena

dela, gaineratu du Diputazioarekin harremanetan dihardutela, proiektu horretan lagun dezan. Lehen faseko lanak Tokiko Enplegurako eta Iraunkortasunerako Estatuko Fondoarekin egiten dabilta; aurrekontua 399.300 euro da.

## Zaldibar antzokia

Bestalde, jakina denez, erabilera askotariko antzokiak izen berria du abenduaren 29a ezkerro. Egun hartan egindako osoko bilkuran adostu zuten aurrerantzean Zaldibar antzokia izatea. PSE-EEko bozeramaile Iñaki Pierruguesek proposatu zuen izena. Herriko toponimian oinarritu zen proposamena egiteko. Santa Ana kalean dagoen taxi geltokian zegoen zubiak Zaldibar zuen izena; gutxienez, XIII. mendekoa zen hura.

## Kinttada Eguna egingo dute aurten

Santa Ageda bueltan, 1993ko kintoak irtengo dira

M.B. | ESKORIATZA

Berrikuntzekin dator aurten Santa Ageda, Kinttada Eguna egingo dute-eta bihar lehen aldiz. Eingeinkeko Aritz Oianguren azaldu du eguerdian adin askotariko kintoek poteoa egingo dutela, trikitilarien laguntzarekin, eta jarraian kinttada bakoitza bere aldetik joango dela bazkaltzera.

Oianguren gogorarazi du Santa Ageda egunaren bueltan kintoek elkartzeko eta batera afaltzeko ohitura dutela zapatuan; aurten, herria "girotzeko" deialdia egin dute: "Proposamena irten

zen eta batzar bat egin genuen; gutxienez, 8 edo 9 kinttada batuko gara. Txapela edo zapia janzteko gonbita egiten dugu".

## 1993ko kintoak

Bestalde, betiko moduan, Santa Ageda eguneko koplak abesten ibiliko dira kintoak egunotan; 1993an jaiotako neska-mutilen txanda da. Gaur, baserriz baserri ibiliko dira; eta bihar, Santa Ageda eguna, kalean ibiliko dira eskean. Eta ilunkeran, 19:00etan, dantzan egingo dute plazan. Etzi ere dantzaldia egingo dute.



ESKORIATZAKO UDAL ARTXIBOA

**1949AN, KINTOAK SANTA AGEDA OSPATZEN.** Alkondara eta praka zuriak, txapel eta gerriko gorriak eta koloretako zapi handia lepoan. 1949an, horrela jantzita ibili ziren kantuan. Argazkia San Pedro elizaren ate aurrean aterata dago. Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Andres Zubizarreta, Pedro Etxeberria, Felix Iregi, Lucio Markaide, Antton Iregi, Marcos Diaz de Gereñu eta Imanol Zubizarreta. Makurtuta, ezkerretik eskumara: Patxi Barandiaran, Javier Zurbano, Antonio Badiola, Bartolo Carrillo eta Juanito Isasmendi.

## OHARRAK

### SANTA AGEDA GAUR LUDOTEKAN

Gaur, egubakoitza, arratsaldean Santa Ageda eguna ospatuko dute neska-mutikoek Tortolis ludotekan.

### SASKIBALOIA ETA ARETO-FUTBOLA

Saskibaloio eta areto futboleko lau partidu hartuko ditu Intxaurre txuetako kiroldegia bihar. 10:30ean, saskibaloian, bigarren mailako kadeteek La Salle Astigarraga taldekoak izango dituzte aurrean. Arratsaldean, 16:00etan, lehen mailako kadeteek Zarautz hartuko dute; 18:00etan, areto futboleko, gazteak San Prudencioaren kontra lehiatuko dira; eta 19:30ean, Euskal Ligan, Eskoriatza eta Goierri.

### ESKI IRTEERA, ATZERATUTA

Eskoriatza kirol elkarteak atzeratu egin behar izan du osteraren aste bukaerarako Luz Ardidenara aurreikusita zeukan eski irteera. Elur nahikorik ez dagoela eta egoera aldatuz gero irteera otsailaren 19an eta 20ean egiteko asmoa dutela azaldu dute ekimen horretako antolatzaileek.

### 2010EKO AZKEN HIRUHILABETEKO URA

Joan den urteko laugarren hiruhilabeteari dagokion estolderia eta ur hornikuntzen tasa ordaintzeko garaia da. Martxoaren 10era arte dago borondatez ordaintzeko epea, aurrezki kutxen edo banketxeen bidez.

## Freskagarri-poteekin argazki-kamerak egingo dituzte gaur

M.B. | ESKORIATZA

Ekimen berezia prestatu dute asteburu honetarako herriko gazteek. Gaur, egubakoitza, freskagarri-poteekin argazki-kamera originalak egiten ikasiko dute gazteek. 18:00etan hasiko da saioa.

Bihar kalera aterako dira gaur egindako argazki-kamerekin eta inguruko mendietan eta kaleetan ezkutatu dituzte. Horren harira, Txatxilipurdiko kide Lander Juaristik azaldu digu hainbat hilabete egon behar du dutela argazki-kamerak toki horietan, irudiak jaso ahal izateko.

## Martitzenean egingo dute Korrika Batzordea eratzeko batzarra

M.B. | ESKORIATZA

Dagoeneko hasi dira Debagoien Korrika batzordeak eratzeko batzarrak egiten. Eskoriatzan martitzenerako, hilak 8, egin dute hitzordua, 19:00etan, kultura etxean. Herriko talde, eragile, elkarte, erakunde eta herritar guztiak daude gonbidatua.

Batzar horretan, Korrika 17ren gaineko azalpenak eman go dizkiete joaten direnei. Horretaz gainera, Korrika Kulturalaz ere egingo dute berba, eta, denbora ematen badu, horren gaineko hainbat lan banatzeko ere aprobetxatuko dute antolatzaileek.

### Eskoriatzatik eguerdian

Apirilaren 7an hasiko da euskararen aldeko lasterketa ospetsua, Trebiñun, eta, 11 egunez gora eta behera ibili ostean, apirilaren 17an amaituko da, Donostian. Astebetez Euskal Herri erdia zeharkatu ostean, apirilaren 14an iritsiko da Korrika Debagoienean.

Gauean iritsiko da gurera, Elgetatik, eta, bailara osoa zeharkatu ostean, 13:21ean sartuko da Eskoriatzan. Ordurako denak prest egon beharko du, eta, hori horrela izan dadin, euskaltzaleei martitzeneko batzarrean parte har dezatela eskatu nahi diete.





Ikasle batzuk, Itsaso del Rey irakaslearekin (behean eskuman). | USOA AGIRRE

# Uste baino interes handiagoa piztu du josteko ikastaroak

Josten ikasteaz gain, atzera lagatako arropak berreskuratzen ari dira ikastaroan 12 herritar

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Jertse bati botoia josi, prakak estutu, barrenak hartu, botoi-zuloak egin, kremaileak jarri... Horiek guztiak eta gehiago ikasten ari dira Itsaso del Reyrekin jostentza ikastaroan. Batzuk zerbait bazekiten arren, gehienak hutsetik hasi dira. Etxean bazuten amaren edo amamaren josteko makina, baina sekula ez zuten makinaren pedalari eraginez josi. Ikastaroan, jostorratza eskuz erabiltzeaz gain, makinaz josten ere badabiltza ikasten.

Arrakasta handia izan du ikastaroak. Hamabirendako lekua

zegoen, eta hasieran hamabiko talde hori sortuko ez zen beldur baziren ere, azkenean beste hamarrek kanpoan geratu behar izan dute. Del Reyk dio jendeak kuriositate handia duela josten ikasteko: "Jostea ez da gauza oso konplikatu eta amorrua ematen du beste bati esan behar izatea botoi bat josteko". Dagoeneko lau eskola eman dituzte eta badoaz pixkanaka-pixkanaka jostearen oinarritzko ezagutza lortzen. Izaskun Larrañagak aitortu digu lehen ez zekiela josten, baina pixkana badoala eskua hartzen jostorratzari eta makinari.

## ITSASO DEL REY IRAKASLEA

"Josten jende gutxi daki, makina etxean eduki arren"

Jostea da Del Reyren afizio, eta horixe erakusten dabil. **Gaur egun oso jende gutxi daki josten.** Oraingo gazteek ez dakite josten. Gehienek dute makina etxean, baina ez dakite erabiltzen. **Krisia dela-eta igarri da jende gehiagok egiten dituela bere arropak?** Ikusten da lehen baino joera handiagoa dagoela orain puskatutako gauzak konpontzeko, baina ez nuke esango joera orokorra denik. Nik uste dut kuriositatea gehiago dela. Jende asko dago langabezian eta aprobetxatu egiten dute horrelako gauzak ikasteko.

Etxetik eramaten dituzte konpontzeko dituzten arropak ikastarora. Mirari Beitiak esan digu atzera lagatako arropa asko ari dela berreskuratzen ikastaroari esker. Krisi garai hauetan, diru pixka bat aurrezteko modu ona da, gainera.

**Argazkilaritza ikastaroa**

Martitzenean hasi zen argazkilaritza digitalaren eta Photoshopen gaineko ikastaroa. Horrek ere arrakasta handia izan du: hamabirendako lekua zegoen eta beste hamabostek geratu behar izan dute kanpoan.

## Kantuak, bedeinkapenak eta salda, Santa Ageda eta San Blas ospatzeko

U.A. | ANTZUOLA

Urteroko ohiturari jarraituz, Santa Agedaren eta San Blasaren omenez zenbait ekintza egingo dira herrian.

Gaur, Santa Ageda bezpera, goizean goizetik santa-eskean ibiliko dira baserriz baserri eta etxez etxe herriko kintoak. Iluntzean ere kantuan egiteko aukera egongo da abesbatzarekin. 18:30ean elkartuko dira kalez kale kantuan aritzeko.

**Auzoetako ermitak**

Basalde auzoko San Blas ermitan ere ospakizuna egingo dute zapatuan. 12:00etan meza izango da eta ondoren salda eta txorixoa banatuko dute.

Galartza auzoko Santa Ageda ermitan domekan egingo dute ospakizuna. 12:15ean meza esango dute eta ondoren hamaketakoa egongo da trikitilarietara. Biteri, Unanue eta Lezeta izango dira giroa alaitzen.

## OHARRAK

**FUTBOLA**

Nagusien taldeak Tolosaren aurka jokatu du partidua bihar, zapatua, 15:30ean, Tolosako Udalaren. Antzuola bostgarren dago sailkapenean; Tolosa, berriz, zortzigarren.

Bihar, zapatua, 16:00etan, pilotalekuan.

**KARTEL LEHIAKETA**

Martxoaren 8ko kartel lehiaketa antolatu dute Bideberri komunitateko herrietan (Antzuola, Elgeta eta Gatzaga). Irabazleak 500 euro jasoko ditu eta hilaren 21erako entregatu behar dira lanak. Oinarriak: [www.antzuola.com](http://www.antzuola.com).

**PILOTA**

Gipuzkoako eskolarteko txapelketa jokatu dute benjamin eta alebin mailetakoko pilotariek.

## Lourdeserako erromesaldia antolatu du parrokiako kristau taldeak otsailaren 11rako

Frantziako Lourdesera erromesaldia egingo du Antzuolako parrokiako kristau taldeak otsailaren 11n. Izena emateko epea zabalik dago otsailaren 8ra bitartean. Izena emateko, astegunetan areto parrokiakera joan beharko da meza aurretik edo ondoren. Domeketan, berriz, Antiguako ermitan eman ahal izango da izena. 40 euro ordaindu behar dira.

## Usurbilgo atez atekoaren nondik norakoak ezagutzeko bisita antolatu dute hilaren 12rako

Atez ateko sistema ezagutzeko eta zalantzak argitzeko, Udalak Usurbilera bisita antolatu du, usurbildarrek bi urte baitaramatzate hondakinak atez ate biltzen. Bisita otsailaren 12an izango da eta herritar guztiek dute joateko aukera. Irteera 08:00etan izango da eta itzulera, berriz, 13:00etan. Atez ateko informazio bulegoan eman behar da izena; otsailaren 7a da azken eguna.

## Enkante bidez jarri du salgai etxebizitza bat Antzuolako Udal Etxegintzak

Udalaren eskumenekoa den Antzuolako Udal Etxegintza SA enpresak deitu du salmenta prozedura irekia edo enkantea etxebizitza hori saltzeko: Lizarraga kaleko 9. zenbakian, lehenengo solairuan ezkerrean dagoen etxebizitza. 117.000 euro izango da onartuko den gutxieneko eskaintza. Proposamenak aurkezteko azken eguna otsailaren 15a da.

## Ez labaintzeko tratamendua

Herrian dauden egurrezko hiru zubiei ez iristatzeko tratamendu berezia eman diete. Euria egiten zuenean eta izotzarekin oso arriskuak ziren zubiak, oso labainkor geratzen ziren-eta. Horregatik hartu behar izan du neurria hori Udalak. Beheko auzoan, Eguzki auzoan eta Ibarren dauden egurrezko zubietan eman dute tratamendua. Beheko auzoko zubian, ez iristatzeko tratamendu berezia emateaz gainera, eskuendako heldulekuak ere jarri dituzte, bertatik pasatzea seguruagoa izan dadin.



USOA AGIRRE

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA

Apainketak eta solamenduak

Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17 ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

ZUZENKETA

Joan den asteko Antzuolako orri honetan bertan argitaratutako iritzi artikulua Alaitz Jauregik idatzi zuen, nahiz eta argazkian Tomas Larrañaga agertu. Barkamena eskatu nahi diegu akatsagatik bieira irakurleei.



# Bertsotan, gai-jartzaile edo epaile, Aramaio protagonista txapelketan

Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre eta Xabi Igoa arituko dira aurten; Aramaion bigarren finalaurrekoa jokatu da martxoaren 19an

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Badator Arabako Bertsolari Txapelketa. 2009koa inoizko txapelketarik arrakastatsuen izan zen parte-hartzaile zein jarraitzaile aldetik.

Bihar aurkeztuko dute Gas-teizen 2011ko edizioa –Amaia zentroan, 10:00etan– eta GOIENAK izan du aurten parte hartuko duten bertsolarien berri. Aramaio, azken urteetan moduan, protagonismo berezia izango du txapelketan. Lau bertsolari izango dira: Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre eta Xabi Igoa. Baina Aramaioaren ordezkari ez da hor geratzen, gai-jartzaile zein epaile lanetan ere arituko dira-eta aramaioarrak: Lierni Altuna, Idoia Beitia, Gillen Agirre eta Garazi Eriz arituko dira bertsolariei gaiak proposatzen eta Iker Elexpuru epaile lanetan arituko da. Gainera, epaileen idazkaria ere Aramaiokoa da: Endika Ruiz de Samaniego.

Txapelketa egitea ahalbidetzen duten laguntzaileak ere ezin dira ahaztu. Aramaiotik Udala eta Arbel, Lurgorri eta Txirritola elkarteak dira laguntzaileak.

## Aramaion martxoaren 19an

Txapelketako bigarren finalaurrekoa Aramaion jokatu da; martxoaren 19an izango da, kultura etxean (17:30).



Manex Agirrek ez du hutsik egingo aurten ere; 2009ko txapelketako finalean izan zen, eta hirugarren geratu. | ARTXIBOA

## Txanpinoien Saioa bihar

Arabako Bertsotze Elkarteak urtero antolatzen duen saioa da Txanpinoien Saioa, Gasteizko Udaltzaia Gasteiz Bertsotze egitasmoaren barruan. Nondik datorren izena? Honela azaldu digu Manex Agirrek: "Lehen, Txapeldunen Saioa esaten zitzaion, eta, umore ukitu bat emanda, Txanpinoien Saioa deitzea erabaki genuen. Irabazleek, gainera, txanpinoi bandeja bat irabaziko dute". Arabako txapelketako bertsolarien artean txapeldun bat izendatzea da helburua. Aurten ezberdina izango da, 2010eko txapelketa taldeka izan zelako. Aramaio taldea izan zen txapelduna iaz;

Manex Agirre, Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre bertsolariei esker. Bihar izango da saioa, hilak 5, Armentia Armentegi sagardotegian, eta azken urteetan Arabako txapeldunak izan direnen aurka lehiatuko dira aramaioarrak: Asier Otamendi, Asier Iriondo, Zigor Enbeita eta Oihane Perea –Rikardo Gonzalez de Durana ez da egongo.

Bazkaria 15:00etan izango da eta bertso saioa 16:30ean. Izena eman gura duenak 675 70 79 71 telefonora deitu behar du. Bertso saioa doan izango da eta bazkaria, berriz, 15 euro bazkideendako eta 30 gainontzekoendako. Lierni Altuna aramaioarra izango da gai-jartzailea.

## 2011ko egutegiak asteen helduko dira etxe guztietara, akatsak zuzendu ostean

Abenduan banatu zen egutegian, bestak beste, ez ziren jaiegunak jasotzen

J.B. | ARAMAIO

2011ko egutegiak abenduan banatu zituzten etxez etxe, baina hainbat akatsek: ilargi beteak gaizki margotuta zeuden eta urteko jaiegunak ez ziren jasotzen –urtarrilaren 6a izan ezik–. Hori horrela, egutegiak egin dituen Elorrioko Di-da enpresak egutegi berriak atera ditu eta berriz ere hasi dira banatzen. Joan den asteen hasi ziren eta Udalak jakinarazi du oraindik jaso ez dutenak asteen jasoko dutela.

Udalaren egutegia Aramaio hainbat etxetan erabiltzen da: abendu erdialderako jasotzen ez badute, hainbat herritar udaletxera joaten dira egutegiaz galdezka.

## Herritarren argazkiekin

Orain dela zortzi urte hasi ziren Aramaio irudiekin osatutako egutegia egiten, eta urtez urte argazki lehiaketa deitzen du Uda-



Azaroari dagokion argazkian, eskolako parkea elurtuta ageri da. | ANDER ALTUNA

lak Aramaio txokoen aurpegi ederrenak betikotzeko. Herritarrek izan ohi dira lehiaketan parte hartzen dutenak, eta, beraz, Aramaio txoko ederrenak aramaioarren begietatik jasotzen ditu egutegiak. Argazki ederrez

gain, herritarren artean horren zabalduta dagoen egutegiak ilargiaren faseak azaltzen ditu, herriko eta auzotako jaiak noiz diren zehazten du eta hilabete bakoitzeko Aramaio esatera zahar bat erakusten du.

## Aralarrek bidea itxita segitzen duela salatu du

J.B. | ARAMAIO

Oxel Erostarbe Aralarko legebiltzarkideak "erantzukizuna" eskatu die erakundeei: "Elkarren artean lan eginez, eta jarrera aktiboa hartuz, lehenbailehen konpondu behar da herritarrek pairatzen ari direna". Aralarren ustez, Jaurilaritzaren eta Aldundia- ren "beste arduretako bat" izan behar du Adif erakunde- deari azkartasuna exijitzeak. Gainera, Aralarrek AHTren aurka dagoela berretsi du: "Ez du herritarren mugikortasun arazoak konpontzeko balio". Era berean, erakundeei eskatzen die koordinazioz aritzeko: "Obren ondorio latzak pairatzen dituzten herritarren arazoei konponbidea ahalik eta arinen eman behar zaie".

## NIRE USTEZ

LIERNI ALTUNA



## Adarjotzeak etengabe

Pentsioen erreforma adarjotze hutsa da, 1995ean 2010erako arazo ekonomiko eta jasangarritasunik eza izan behar zuten pentsio publikoek egun superabita dutelako; beraz, ez dago behar ekonomiko errealik pentsioen sistema publikoa aldatzeko. Orduan ezkerreko gobernuak zergatik egiten du erreforma hau? Eta zergatik beste alderdi politiko batzuek babestu egiten dute? CCOO eta UGT sindikatuek zergatik negoziatzen dituzte miseriak? Argi dago gobernuaren bankuaren menpe dagoela, gogoratu dezagun zelako dirutzak eman zizkieten krisiaren hasieran. Beste alderdi politikoak gobernuaren menpe daude, erreforma babesten dute beste interes edo eskumen batzuen truk, eta bi sindikatu hauek gobernuak ematen dien dirutzen menpe daude. Eta diru horren truke immobilismo soziala sustatzen du.

Adarjotzeak etengabeak dira, larriak edo larriegiak, oso agerikoak edo ezkutukoak, beti komunikabideek maki-llatuak. Eta guk zer egiten dugu horien aurrean? Batzue- tan ez gara konturatzen, bai- na konturatzen garenean bi jarrera nagusitzen dira: im- mobilismoan erortzen gara edo adarjotze horren kontra egiten dugu. Azken jarrera horretan adarjotzearen arabera erant- zun mota eta tamaina aldatzen da, baina nire ustez beti erant- zun behar da: gure ustez gaizki dagoenaren aurka hitz egin eta jardun behar dugu, benetan bizitzeko eta ez bizi- rautea baldin bada gure hel- burua.

## "Adarjotze larriak eta etengabeak, beti hedabideek makillatuak"

## Martxoaren 20an Caja Laboral ikusteko beste aukera bat egongo da

Otsailaren 20an Caja Laboral eta Granadaren arteko parti- dua ikusteko aukerarik izan- go ez dutenak martxoaren 20an izango dute aukera Caja Solen aurkako lehia ikusteko. Ekimenetik kanpo geratu direnek lehentasuna izango dute bigarren lehia ikusteko; datozen orduotan emango du Udalak ekimenaren berri.



ELGETA

# Hamar lagunek azaldu dute etxebizitza erosteko premia

Udalak batzar irekia deituko du hil amaierarako, proposamenak azaltzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak Elgetan dagoen etxebizitza beharra neurtzeko galdeketa abiarazi zuen urtarrilaren hasieran. Astelehenean, urtarrilak 31, amaitu zen erantzunak jasotzeko epea eta hamar bizilagunek azaldu dute etxebizitza erosteko interesa. Gehienak 20-37 urte bitartekoak dira, eta adierazi dute berehala behar dutela etxebizitza.

## Udalaren proposamenak

Udalak jakinarazi du zuzenean jarriko dela harremanetan hamar bizilagun horiekin. Horrez gain,

hil honetan zehar herritar guztiendako batzar irekia deitzeko asmoa du. Batzar horretan, herrian babestutako etxebizitzak egiteko asmoa zertan den azalduko dute udal arduradunek.

Oxel Erostarbe alkateak aurreratu duenez, egitasmoak herrigunea birgaitzeko plan berria du ardatz. "Behin-behineko onarpena eman genion, baina behin betikoa falta da", esan du. "Asmoa da gaur egun herrigunean hutsik dauden eraikin batzuk zaharberritzea babestutako etxebizitzak egiteko". Horren harira, Azkara-

te familiaren eraikina da babestutako etxebizitzak egiteko aukeretakoa bat. "Herrigunea birgaitzeko plan berriak eraikin horretan babestutako zortzi etxebizitza egiteko aukera emango luke", azaldu du.

Alkateak esan duenez, Salbador kaleko beste eraikin baten antzerako operazioa egiteko aukera legoke. "Bi logelako etxebizitzak lirateke, 65 bat metro koadrokoak eta 107.000 eurotan". Laster deituko duen batzar irekian, Udalak jendaurrean aurkeztu nahi du Birgaitzerako Plan



Azkarate familiaren eraikina, San Roke kalean. | LZ

Berria. Gero behin-betiko onarpena eman beharko dio udalbatzak etxebizitza babestuak egiteko egitasmoak aurrera egin dezan. Udal promozioiko etxebizitzak lirateke, eta ez Eusko Jaurlaritzarenak.

## Informazio gehiago jasotzeko

Amaitu da Udalak egindako galdeketa erantzunak aurkezteko epea, baina herritarren batek egitasmoa ezagutzeko interesa edukiko balu, [danonartian@elgeta.net](mailto:danonartian@elgeta.net) helbidera idatz dezake.

# Oinezkoen guneak seinaleztatzeko panelak

Datorren astetik aurrera San Roke kale amaierako espaloiak txikitu egingo dituzte

LZ. | ELGETA

Panel berriak ikusi ditugu aste honetan herriko kaleetan. Oinezkoek lehentasuna duten guneak seinaleztatzeko dira. Hiru seinale daude ipinita: Domingo Iturbe kalean, eskolarako bidean; Salbador kalearen goiko aldean; antzokirako bidean; eta San Roke kaleko beheko sarreran.

Udalean azaldu digutenez, beste bi seinale ipintzea falta da: San Roke kaleko goiko aldean eta

Asentzión. Herritarrei seinaleak errespetatzeko eskatzen zaie.

Udalak, bestalde, jakin gura du herritarrek nola baloratzen dituzten arautegi berriak ekarri dituen aldaketak. Helburu horrekin etxer etxe galdetegi bat banatuko dutela jakinarazi dute.

## Lanak San Roke kalean

Eta, bestalde, aspaldi honetan apurtuta dauden San Roke kale amaierako espaloietan lanak



Oinezkoen gunea seinaleztatzeko panela San Roke kalearen beheko sarreran. | LZ

egingo dituzte datorren astetik aurrera. Baldosak apurtuta daude, eta, gune hori garaje irteera dela kontuan hartuta, berriak ipini bezain pronto apurtzen dira. Udalak erabaki du espalo horiek

txikitzea. "Metro bat inguru kende diegu", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Eta asfaltoa botako dugu bertan". Asteon elkartu dira udal arduradunak garajeetako jabeekin.

## III. FRONTENIS TXAPELKETA

### Bost norgehiagoka aste bukaeran

Biharko, zapatua, hiru norgehiagoka daude iragarrita; 17:30ean hasiko dira. Domekan, berriz, bi dira antolatutakoak; 10:30ean hasiko da lehenengoa.

#### AZKEN JARDUNALDIKO EMAITZAK

|                                                                                     |            |
|-------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| Eneko Maguregi-Andoni Elortza/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna                            | 25-8       |
| Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Asier Untzetabarrenetxea-Ibon Untzetabarrenetxea | 25-14      |
| Idoia Serna-Mikeldi Garmendia/Olaia Jimenez-Aitzol Jimenez                          | Atzeratuta |

### Pediatría zerbitzua dela-eta sinadurak batzeko mahaia

Hamabost eguneko epean 73 sinadura batu ditu Udalak pediatría zerbitzua hobetzeko eskaera egin ahal izateko. Beste 15 egun luzatu dute sinadurak batzeko epea eta bihar, barikua, mahaia ipiniko dute Plaza Barrenian sinadura gehiago batzeko. 18:30etik 19:30era izango da hori.

### Ludoteka-gaztelekuan lau hilabeteotarako izena emateko aukera zabalik

Bi zerbitzu horietako bat otsailetik maiatzera bitartean erabili nahi izanez gero, Udalak izenemate epe berezia zabaldu du. Ez da ikasturte osoko kuotaririk ordaindu beharko. Ludotekan 88 euro da prezioa umeko eta gaztelekuan, berriz, 54 euro. Seme-alaba bat baino gehiago izanez gero, prezio bereziak daude.

### San Blas jaiak ospatuko dituzte domekan Arantzetan

Urteroko meza esango du Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik Arantzetako San Blas ermitan; 13:00etan izango da hori. Horrekin batera, auzotarrek salda eta txorizo pintxoak eskainiko dituzte mezaren aurretik eta ondoren. Umeendako gozokiak ere egongo dira.

LEINTZ GATZAGA

# Gaztainuzketako etxeen lehiaketa deituta

Lau urterako izango da esleipena, 20 urte arte luzatzeko aukerarekin

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Urtarrilaren 25eko osoko bilkuran onartu zituzten Gaztainuzketako etxeen ustiapenerako lehiaketaren oinarriak. Otsailaren 1ean argitaratu zuen lehiaketaren deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesatuek 15 egun dituzte eskaintzak aurkezteko.

## Proposamena hobetu beharra

Mendi etxeen esleipena lau urterako egingo du Udalak, 20 urte arte luzatzeko aukerarekin alde biak konforme egonez gero; hala bada, lau urtean behin berrituko dute kontratua.

Etxeen ardura hartzen duenak 67.550 euro ordaindu beharko ditu hasierako kanon legez, eta

2012ko martxoaren 1etik aurrera errenta ordainduko du hilero. Udalak proposatzen duen kopurua 1.550 euro da hilean eta interesatuek hortik gorako eskaintzak aurkeztu beharko dituzte. Udalak, gainera, baldintzen artean ezarri du gutxienez bi lagunek hartu beharko dutela etxeon ardura. Lehiaketaren oinarriak eta bal-

dintzak zeintzuk diren zehatz jakin gura duenak udaletxera jo dezala (09:30-13:30); Udalaren webgunean ere jarri dituzte: [www.leintzgatzaga.com](http://www.leintzgatzaga.com).

## 2008an esleituta

Gaztainuzketan dauden zazpi mendi etxeen ardura Amaia Olabek eta Xabier Jausorok daukate 2008ko iraila ezker. Orduan egindako lehiaketa deialdian eskaintza bakarra jaso zuen Udalak, eta lau urterako eman zion mendi etxeen ardura bikoteari.

### Otsailaren 14an elkartuko da berriro Korrika Batzordea

Dagoeneko osatu dute Korrika Batzordea Gatzagan, eta lehen batzarra egin ere bai. Bigarrena hilaren 14an izango da, astelehena, kultura etxean (18:30). Korrikaren inguruan sortzen diren kultura ekimenak antolatu eta bideratuko ditu batzorde horrek. Herritarrek ateak zabalik dituzte parte hartzeko.



**goienakluba**

Abantailaz betetako kluba!

**URTARRILEKO  
ZOKETA**

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

**EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA**Bidali KLUBA ZIRA  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.**LIBURU SORTA**Bidali KLUBA LIBURUAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.**UMEENTZAKO PUZZLEA**Bidali KLUBA PUZZLEA  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.**REALEKO MOTXILA ETA BUFANDA**Bidali KLUBA REALA  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.**ERREMEIXUAK DVD-A**Bidali KLUBA DVDa  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.**SARI NAGUSIA  
AZAROA-URTARRILA**

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

**26 HAZBETEKO  
TELEBISTA**

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzu datuaren sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Euskaltel-Euskadiko kideak Arantzazuko santutegiko aldare aurrean, Pello Zabalarekin. | JULEN IRIONDO

# Arantzazuko Ama Birjina ere laranja janzten da

## Duela 18 denboraldi aurreneko aurkezpena egin zuen tokira itzuli da Euskaltel-Euskadi, babesa eskatzera

JULEN IRIONDO | OÑATI

Pentsa; jaio gabe ez zeuden, baina Euskaltelera iritsi diren azken txirrindularietatik bik –Jon Iza-girre eta Mikel Landa– 4 urtetxo baino ez zituzten 1993ko abendu hartan Euskadi fundazioaren profesional mailako taldea Arantzazuko aurkeztu zutenean. Iban Velascok 13 zituen, baina hura ere ez da akordatzeko: "Txikia nintzen orduan, baina hala kontatu didate; polita izan da hona itzultzea", zioen arrasatearrak eguaztenean, taldeak santutegira egindako bisitan.

Igor Gonzalez de Galdeano bai; gaur egun Euskaltel-Euskadiko manager dena oroitzen da –lehenengo aurkezpenean ez zegoen taldean, baina bigarren urtekoa ere bertan egin zuten–: "Polita da 18 urte geroa-

go Arantzazura itzultzea. Osa-suna eta denboraldi berrian taldea ondo egon dadila eskatzen dugu".

Lore eskaintza egin zioten txirrindulari taldekoek Ama Birjinari; txirrindulariek adi jarraitu zituzten Pello Zabalak Arantzazuko Amaren irudiari buruz emandako azalpenak: "Irudia Holandako harriz egina dago, zuek harbideetan hainbeste sufritzen duzuen toki haietako harriz". Frantziskotarrak taldearen jarraitzaile leialak direla baieztatu zien: "Eta ez zaituztegu itzuli handietan bakarrik jarraitzen, baita klasikoetan ere".

**Pello Zabalarentzako maillota**

Ama Birjinaren irudia ikusi –Samuel Sanchez txapeldun olinpiarra izan zen arreata handien

jarri ziotenetako bat– eta aldare aurrera jaitsi ziren ondoren bisitari bereziak. Talde argazkia egin zuten han: Migel Madariaga Euskadi fundazioko presidentea, gainerako teknikariak eta laguntzaileak ere izan ziren Arantzazuko txirrindulariekin batera. Taldeko kideek maillot laranja opari egin zioten Pello Zabalari. Bisita amaituta, Euskaltekoen hasierako asmoa zen Arantzazuko bizikleta hartu eta Donostiaraino entrenamendua egitea, baina plana aldatu egin behar izan zuten, hotza –2 gradu– eta lanbroa ziren eta han goian.

Euskaltelek 23 txirrindulari izango ditu denboraldi berrian: lehen esandakoez gain, Pierre Cazaux ere iritsi da, eta taldea utzi dutenen artean Beñat Intxausti da izen garrantzitsuenak.

## Velasco, etapa bila Itzulira

Bosgarren denboraldia izango du hau Euskaltel-Euskadin Iban Velasco arrasatearrak. Batez ere maldan gora, urteekin, gero eta gehiagotan erakutsi du bere burua aurrekoen artean: "Aurten beste pauso bat eman nahi nuke eta etapa bat irabazi, edozein lasterketatan; gustatuko litzaidake Euskal Herriko Itzuliko bat irabazteko lehian ibiltzea", zioen Velascok Arantzazuko.

Australiako beroarekin prestakuntzan jarraitu du, eta Mallorcara doa orain; martxoan Tirrenorako egon gura du sasoi onean.

IGOR GONZALEZ DE GALDEANO | EUSKALTELEKO MANAGERRA

## "Iban beteranoa da dagoeneko eta une egokia du beretzat gauza politik egiteko"

Helburuetan jauzia egin gura du aurten Euskaltel-Euskadi taldeak. Tourra du begiz jota Samuel Sanchezek, eta Vuelta Igor Antonek.

**Gustura aurtengo taldearekin?**

Talde gaztea dugu, baina talde ona. Aurtengo helburuak betetzeko egoera onean gaude.

**Eta zeintzuk izango dira helburuok?**

Betikoak, baina helmuga urrunago jarrita. Nik uste dut taldea momentu onean dagoela, adibidez, Espainiako Itzulira irabazteko edo Tourrean podiumean edo hurbil egoteko; Euskal Herri-



Igor G. de Galdeano | J.I.

ko itzulira irabazi gura dugu Samuelekin, eta Giroan ere helburuak betetzeko moduan ibiliko gara Igor Antonekin.

**Nola ikusten duzu Iban Velasco?**

Taldeko gizona da, gizon garrantzitsua guretzat. Iaz, Euskal Herriko Itzulian eta Tourrean ondo egon zen.

**Askatasuna izango du zenbait probatan bere ahalegina egiteko...**

Bai, nahiz eta kosta egiten zaion; korritzeko bere modua da. Baina, 31 urterekin, beteranoa da eta momentua da, arlo pertsonalean, gauza politik egiteko.



Igotzeko lehian dagoen Real Union hartuko du Mondrak bihar (16:30)

Sailkapenean laugarren postuan dagoen Real Unionen (40) aurka lehiatuko dira bihar Iban Rodriguezen mutilak (Mojategi, 16:30). Garaipena beharrezkoa du Mondrak (25) sailkapeneko postu lasaietan jarraitu gura badu. Partidu zaila izango da; azken bolada honetako emaitza kaskarreki eta lesioei irundarrek ekarriko duten garaipen gosea gehitu behar zaie. Real Unioneke garaipena behar du lider den Hernanirengandik (45) askorik ez urruntzeko.

Etorkizuneko euskal selekzioko errugbi jokalariak Mojategin

Infantil mailako Euskadiko errugbi jokalari onenak bilduko dira bihar Mojategin. Goizean –10:30-12:30– eta arratsaldean –15:00-17:30– egingo dituzte entrenamenduak eta bi saio horietatik hautatzailerak euskal selekzioa osatuko duten jokalariak aukeratuko dituzte.

70 neska-mutiko daude deituta eta horietatik lau Arrasate Errugbi Taldekoak dira: Joseba Azkarraga, Aitor Lizarburu, Asier Delgado eta Peru Altube.

Iban Letamendi oñatiarra Euskadiko mendi eskiko txapeldun, Joseba Tobarrekin batera

Altitoy deritzon proba gogorrean, 200 bikotetik 10. postua lortu zuten



Domekako proba hasi aurretik Tobar eta Letamendi entrenatzen. | ARANTZAZU EZKIBEL

**JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI**  
Joan den aste bukaeran Frantziako Pirinioetan –Luz Ardidendik gertu– jokatu zen Altitoy proban lortu dute Iban Letamendik eta Joseba Tobarrek Euskadiko txapelketa. Zapatuan eta domekan izan ziren mendi eskiko probak. Sailkapen orokorrean 10. postuan sailkatu ziren Letamendi eta Tobar. Hala ere, Euskadiko onenak izan dira; izan ere, federazioak Altitoy proba hartzen du aintzat Euskadiko mendi eskiko onenak zeintzuk diren zehazteko. Letamendiz gain, Debagoieneko beste hainbat parte-hartzaile ere izan ziren proba entzutetsuan.

**Ia bost ordu jo eta ke**  
Probak bi modalitate ditu: A eta B mailak. A maila profesionala da eta B maila, berriz, herrikoia. A mailakoek ibilbide luzeagoa egiten dute, zailtasun gehiagorekin. 200 bikote inguruk parte hartu zuten A mailako lasterketan. Probaren irabazleak Marc Sola eta Migel Caballero izan ziren. Letamendi oñatiarra eta Tobar tolosarra 10. postuan sailkatu ziren: zapatuan 3:05:26ko denbora egin zuten eta domekan, berriz, 1:39:14. Guztira, 4 ordu 44 minutu eta 40 segundo.

**Eguraldia protagonista**  
Altitoy proban eguraldia izan ohi da protagonista eta 2011ko edizioan ere hala izan da. Zapatuan markatutako ibilbidea osatu zuten mendizaleek, baina gauean elurra gogoz bota ostean, domekan ibilbidea moztu behar izan zuten. Hala ere, hainbat parte-hartzaile kontrola itxita iritsi ziren.



**iKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48







# EGIN TXOTX! sagardotegietan



**Nekazaritza  
turismoa**



## Arratzain

Arratzain Zahar baserria  
Arratzain auzoa  
USURBIL / 943 36 66 63

[www.agroturismoarratzain.com](http://www.agroturismoarratzain.com) / [info@agroturismoarratzain.com](mailto:info@agroturismoarratzain.com)

### Eskaintza

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- “Tolare” sagardotegia.
- Txotxetik sagardo ekologikoa.



## Begiristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA  
607 36 57 43  
[begiristainsagardotegia@gmail.com](mailto:begiristainsagardotegia@gmail.com)  
[www.begiristainsagardotegia.com](http://www.begiristainsagardotegia.com)

### Eskaintza

- Urtariletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatara, bazkariak eguenetik igandera
- Webgunean sagardotegira bazkidezeko aukera.
- “Tolare” sagardotegia



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI  
943 55 03 28  
[www.iparragirre.com](http://www.iparragirre.com)

### Eskaintza

- Eguaztenetik zapatara gauez; zapatu eta domeka eguerditan zabalik ere. Beste egunetan kontsultatu.
- Zutik edo eserita.
- Asteburuetan garraio publikoa sagardotegiraino.
- Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. “Zabadiz” banatzaileria ofiziala.
- “Tolare” sagardotegia



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO  
945 44 53 85 / 685 72 15 93  
[iturrietasagardotegia.blogspot.com](http://iturrietasagardotegia.blogspot.com)

### Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saihekiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia  
HERNANI  
943 55 58 46 / 616 28 78 67

### Eskaintza

- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik. Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik. Domeketan, eguerdira arte zabalik. Astelehenetan, itxita.
- “Tolare” sagardotegia



## Oiharte

Irukarate-gain auzoa (Mutiloa bidea)  
ZERAIN  
943 50 10 13 / 686 29 91 58  
[www.oiharte.com](http://www.oiharte.com)

### Eskaintza

- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatara gauez. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza turismoa.



## Rezola

Santio Zeharra ASTIGARRAGA  
608 14 33 32  
[rezolasagardotegia@gmail.com](mailto:rezolasagardotegia@gmail.com) / [www.rezolasagardotegia.com](http://www.rezolasagardotegia.com)

### Eskaintza

- Astigarraga erdigunetik 100 metrotara.
- Urte osoan txotxetik zabalik.
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak: arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerditan itxita.
- “Tolare” sagardotegia



## Unzueta

Zabola z/g  
ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokiak.
- Parking eta terraza.



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA  
(Andoain eta Billabona artean)  
943 69 07 74

### Eskaintza

- Urtariletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- “Tolare” sagardotegia



# KULTURA

## Kepa Errastik kamera atzean egin duen lehen filma aurkeztuko du

- 2010eko maiatzean 'Maritxu' film laburra grabatu zuen Aretxabaletan, jaioterrian bertan
- Pilar Rodriguez eta Olatz Beobide aktore ezagunak dira filmeko protagonistak

**ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA**  
Urduri dago Kepa Errasati aktore aretxabaletarra. Urduri, baina ilusioz beteta. Izan ere, datorren martitzenean herritarren aurrean aurkeztuko du bere lehenengo film laburra. *Maritxu* du izena eta ama baten eta alaba baten arteko harremanaz dihardu.  
2010eko maiatzean grabatu zuten lana, Aretxabaletan. "Aste bukaera baten grabatu genuen. Dena Aretxabaletan grabatuta dago: nire etxean, lagun baten baserrian, kalean..." azaldu du Errastik.

**Harreman baten ispilua da**  
80 urteko emakume baten istorioa da. Konkretuki, emakume horren bizitzako egun bat kontatzen da filmean. "Istorio bat baino gehiago harreman bat da, harreman baten ispilua da. Ez dauka argumenturik", dio Errastik, filma zeri buruz den galdetuta.  
Lehenengo aldia da Errastik film labur bat zuzentzen duena. "Gidoigintza ikastaro bat egin nuen. Gidoi bat idatzi nuen eta irakasleak animatu egin ninduen gidoia pantailara eramatera", azaldu du aretxabaletarrak. "Zuzendaritza mailan nik baino gehiago zekiten batzuekin jarri nintzen harremanetan eta talde txo bat osatu genuen", dio.

**Telebistako aurpegi ezagunak**  
Pilar Rodriguez eta Olatz Beobide dira filmeko protagonista nagusiak. Ama eta alaba dira eta euren arteko harremana kontatzen du filmak. Bai Rodriguez eta baita Beobide ere aurpegi aski ezagunak dira gurean. Telebistan lan asko egindakoak dira. "Akto-



Kepa Errasti, Aretxabaletako plazan. | A.E.

re profesionalak direnez, beldur apur bat neukan, errespetua ematen zidaten; baina konturatu naiz lanean urte asko daramatenek ere euren beldurrak dituztela", azaldu du Errastik. "Pilarrek hasieratik esan zidan baietz, eta edozertarako gertu egon da. Olatzek, oster, zuzendari lanean lagundu behar zidan; baina, aktorerik topatzen ez nuela ikusita, hari eskatu nion eta pozik eman zidan baiezkua", dio.  
Aktore profesionalaz gain, Aretxabaletako jendeak ere parte hartu du filmean: lagunak eta



Maritxu filma. | K.E.

### Yera Sanchez ere Arkupen

Aretxabaletako Kultura Sailak antolatu duen film labur emanaldian Yera Sanchez aretxabaletarrak ere eskainiko ditu bere lanak. Hain zuzen, *Biontzat*, *Ermugarra*, *P.D. Ondo ibili* eta *Itsasora* begira film laburrak eskainiko ditu.  
Yera Sanchezek eskarmentu handia dauka zineman; izan ere, egin dituen film laburrekin hainbat sari irabazi ditu aretxabaletarrak. Film laburren emanaldia 19:00etan hasiko da. Aretxabaletako Arkupe kultura etxean izango da, doan.

familiartekoak, gehienak. "Hamai-ketakoarekin, bazkariarekin... hainbat gauza egiten lagundu zidaten. Izan ere, lan txikia izan arren, jendea kanpotik ekartzen duzunean ondo tratatu gura izaten dituzu", esan du Errastik. Gaineratu du, barrezka, "lehenengo aldian prest" egon direla, baina datozenetan ikusi egin beharko dela "laguntzeko prest dauden edo ez".

### Martitzenean aurkezpena

Hilaren 8an, martitzena, izango da film laburraren aurkezpena, 19:00etan, Arkupen. Errasti bera han izango da eta onartu digu dagoeneko urduri dagoela: "Etxe-koek ikusi dute, baina gainerakoek ez dute oraindik ikusi. Nik uste dut aretxabaletarra izanda jendea animatuko dela ikustera", esan du. Film laburrak 12 minutu irauten du.  
Lehenengo aldia izango da filma jendaurrean aurkeztuko dutena: "Ofizialki oraindik ez dugu estreinatu, Lekeitioko zinema jaialdian bakarrik erakutsi genuen. Esan behar da, baina, zaila dela film labur bat aretoetan erakustea", azaldu du Errastik.  
Aurrera begira Errastik espero du *Maritxu* film laburra Debagoieneko beste herri batzuetan erakusteko aukera ere izatea. Bestalde, esan du badaukala beste film labur bat egiteko asmoa: "Dagoeneko idatzita daukat gidoia. Nire asmoa izango litzateke udaberri amaieran grabatzea. Izan ere, hondartza baten kokatuta dago eta eguraldi ona beharrezkoa izango da grabatzeko!". Oraingoz, hurrengo hitzordua martitzenean izango du Errastik herritarren aurrean.

### ESANAK

**"Konturatu naiz lanean urte asko daramatenek ere euren beldurrak dituztela"**

KEPA ERRASTI | ZUZENDARIA



Bernat Alberdi, Kepa Errasti eta Josu Txintxurreta. | K.E.



Kepa Errasti eta Pilar Rodriguez. | K.E.



Olatz Beobide eta Pilar Rodriguez protagonistak. | K.E.



Asier Altuna | Zinema zuzendaria

## "Gaixotasunek sortzen dituzten familia egoerak azalduko ditugu"

Zuzendari bergararrak otsailaren 21ean grabatzen hasiko diren 'Urte berri on, Amona' filmeko gidoia egiten lagundu dio Telmo Esnal zuzendariari

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Asier Altuna *Kixi* zuzendari bergararrak *Urte berri on, amona* euskarazko filmeko gidoia egiten lagundu dio Telmo Esnal zuzendariari eta lagunari. Oraingoan ez dute batera zuzenduko filma; ardura hori Esnalena bakarrik izango da. *Kixi*-k aurreratu digu *Bertsolari* dokumentalarekin buru-belarri lanean diharduela orain.

**Urte berri on, amona filmeko gidoia egiten lagundu diozu Telmo Esnal zuzendariari?**

Bai, hori da. Nik gidoia egiten lagundu diot, baina zuzentzen ez dut parterik hartuko. Telmok pelikulako lehenengo bertsioa idatzi zuen, gero niri pasatu zidan eta bion artean egin dugu azken bertsioa izango dena.

Gidoilari lanetan ibili naiz eta esan behar dut oso gustura ibili naizela.

**Filma zeri buruzkoa izango den aurreratzetik baduzu?**

Umore beltzezko filma da. Gaur egun oso zabalduta dagoen gaia hartzen dugu ardatz: alzheimerra eta nagusien gaia. Horrelako gaixotasunek sortzen dituzten familia egoera konplikatuak azaldu gura ditugu pelikulan.

**2005ean Aupa, Etxebeste filma zuzendu zenuten. Ordutik hona zertan ibili zara?**

Telebistarako *Brinkola* telesaila zuzendu genuen, eta ordutik hona beste film luze batzuk ere idatzi ditut. Batzuk bakarrik eta beste batzuk Telmorekin elkarlanean. Orain, buru-belarri *Bertsolari* dokumentalarekin nabil.

**Zelan dago egiten zabiltzan *Bertsolari* dokumentala?**

2010ean, batez ere, finantzaketa bila ibili naiz. Gainera, hainbat elkarriketa egin ditut eta bertso



Asier Altuna Kixi. | GOIENA

### "Bertsolari" dokumentala udararako amaitu nahiko nuke"

saio batzuk ere grabatu ditugu. Orain, beste saio batzuk grabatzea da falta zaiguna, eta asmoa da udararako amaituta izatea dokumentala. Nik uste dut muntaketak lanak ere denbora kenduko digula.

**Esan duzu Donostiako Zinemaldian aurkeztu nahiko zenukeela.**

Bai, Donostiako Zinemaldian aurkeztea gustatuko litzaideke. Uste dut plaza ona dela. Baina, lehenengo, dokumentala bukatu egin behar da, jaialdira garaiz iristeko.

Gainera, guk gure lana aurkeztu arren, aukeratu egin behar gaituzte parte hartzeko.

**Telmo Esnalek zuzendu behar duen *Urte berri on, Amona* filma ere jaialdian egotea polita litzateke.**

Bai, uda amaieran bi filmak Donostiako jaialdian izatea polita litzateke.

**Orain arte batera jardun izan duzue. Aurrerantzean nork bere bidea hartuko du?**

Prest gaude batera lan egiteko, baina momentu honetan bakoitzak bere bidea hartu du. Ez gara haserretu, gertatzen dena da nork bere istorioak dituela eta gure lanak aurrera ateratzea ere beharrezkoa dela. Hala ere, prest gaude aurrerantzean batera lan egiteko.

Badirudi kazetariok ez duzuela gure banaketa ulertzen!

*Urte berri on, Amona* filmean oso gustura ibili naiz gidoilari lanetan; esan daiteke gure arteko banaketa izan dela lan hau. Orain, buru-belarri nabil lanean *Bertsolari* dokumentalarekin.

## Silvia Mendibil bergararraren dokumentala aurkeztu dute

Joan den egubakoitzean aurkeztu zuten lana



Silvia Mendibil eta Otxoa dendako arduradunak. | EITB

A.E. | BERGARA

*Otxoan* dokumentalak Hondarribiko Otxoa janari-denda txikiaren erretratua egin du. Iaz itxi zen denda eta zabalik egondako azken urtean egin zituen grabazioak Silvia Mendibil zuzendari bergararrak. Giza harremanei erreparatzen die, batik bat, dokumentalak. Saltoki handietan eta auzoko denda txikietan erostearen artean dauden ezberdintasunez gogoeta egitera garamatza.

Mendibilen ustez, *Otxoan* proiektu xumea da. Dendaren egunerokotasuna erakuste horretan giza harremanei ematen zaion garrantzia azpimarratu du. "Hala, ber, belaunaldi berriei desager-tzeaz dagoen erosteko modua erakusteko bidea ere bada", azaldu zuen egileak aurkezpen egunean.

## Mikel Markez eta Erramun Martikorena domekan Zabalotegi aretoan

Euskal kantagintzako bi abeslarien kontzertua 19:00etan izango da eta 5 euro kostako da

A.E. | BERGARA

Euskal kantagintzaren ahots ezagunak dira. Ahots ezagunak biak, baina ere berean ezberdinak. Martikorena Iparraldeko lurretako kantatzeko modu garbiaren erakusle da; Markez, oster, Gipuzkoa *urbanoan* sortutako kantari originala.

Orain dela 20 bat urte eza-gutu zuten elkar; eta orain, euren ahotsak batu dituzte emalaldietan.

**Mikel Markez bakarlarria**

Erreteriarra 16 urterekin hasi zen gitarra jotzen eta kantuak sortzen. Lehenengo diskoa hiru urte geroago grabatu zuen. Roc-ka eta folka modan zeudenean

gitarra hutsarekin hasi zen Markez, aspaldiko bakarlarrien moduan, eta berehala konektatu zuen ikusle gazteekin.

2008an *Zure begiek, bilduma* argitaratu zuen, azken 20 urteetako bere musika jasotzeko.

**Martikorena artzaina**

Askoren ustez, Euskal Herriko ahotsik ederrenetakoa da. Ofizioz laboraria eta artzaina da Martikorena; horregatik, haren kantuak oso lotuta egon dira lurrarekin eta herriarekin.

2004an erretiroa hartuko zuela iragarri bazuen ere, oraindik taula gainean dabil baxenabartarra. Hitzordua domekan izango da, 19:00etan.



Mikel Markez, gitarrarekin, eta Erramun Martikorena. | GOIENA

### 'El judío errado' liburua aurkeztuko du Alberto Pradillak datorren martitzenean Arrasaten

Arrasateko Kultureteko areto nagusian egingo dute liburuaren aurkezpena. Otsailaren 8an, martitzena, izango da, 19:00etan. Aurkezpenean Alberto Pradilla liburuaren egilea eta Martxelo Diaz *Gara*-ko kazetaria izango dira.

Pradillak arabiarren eta israeldarren arteko gatazka aztertu gura izan du; eta, horretarako, estatu israeldarra bera aztertu du. Egileak elkarriketak egin dizkie gatazkako protagonistetako batzuei. Estatu kolonialak bizilagunekin dituen arazoez gain, bere buruarekin dituen arazoak ere azaltzen dira liburuan.

### 'Herio heroi' antzerkiaren irakurketa dramatizatua egingo dute gaur iluntzean Oñatiko gaztetxean

Oñatiko gaztetxean izango da hitzordua, gaur, egubakoitza, 20:30ean. *Herio heroi* egoera absurdo batetik abiatuta umorearen bitartez gaur egungo gizartearen hainbat jarrierari erreposaoa egiten dion antzezlan da. Parte-hartzaileak Ainhoa Alberdi, Amaia Corral eta Oier Guillan dira eta musika Ander Fernandezena da. Durangoko Azokan *Herio heroi* liburua aurkeztu zuten.

Emanaldiaren ondoren "goxo afaltzeko" aukera egongo da Oñatiko gaztetxean bertan.



Laneko kartela. | 'HERIO HEROI'



# Debagoieneko emakumeak izan eta ekin

*Atzoko eta gaurko emakumeen bizimodua azgazkietan*

**Ekin**  
Emakumeak • AED



## **Erakusketa**

Kulturate-ko klaustroan  
Otsailaren 11tik 25era  
Asteartetik igandera 17:30etik  
20:30era

## **Irekiera ekitaldia**

Otsailaren 10ean 19:00etan  
Bailarako hiru alkate emakumeen  
parte hartzearekin.



Laguntzaileak: Arrasateko Udala, Auzo Lagun, Emun, Goiena, Ikerlan, Joma, Kutxa, Lagun Aro EPSV



Josu Zubia | Musikaria eta magoa

# "Kantautore musikak gazteen artean ere kabida duela erakutsi nahi dugu, bestelako zerbait egin"

LANDER MUÑAGORRI | OÑATI

Josu Zubia gazte oñatiarrak asko atsegin du gitarra jotzea eta magia egitea. Betidanik gustatu izan zaizkion alorrek dira hauek, eta era autodidaktan ikasi ditu biak ere. Mago bezala hainbat emanaldi eskaini ditu, eta kantari bezala SQS bikotea osatzen du Itsaso Polekin batera. 2010eko Gipuzkoako Euskal Kantu txapelketan finalera iritsi ziren, eta 2011ko edizioan ere izena eman-go dute. Emaizta berdinduz gero, ez da marka makala izango!

## Nola barneratu zinen musika munduan?

Etxean gitarra zahar bat geneukan, ez dakit norena zen, eta osaba Gerardo Markuletak lehenengo akordeak erakutsi zizkidan, zerbait jotzen baitaki. Hortik aurrera apurka joan naiz ikasten, musika eskolan nola erakusten duten ez baitzait asko gustatzen. Silvio Rodriguez gitarrista imitatzen saiatzen hasi nintzen hasiera batean.

## Ez zenuen imitatzeko artista errazena hartu!

Ez, baina gustukoa da. Zaila egiten zitzaidan, baina ahal nuena egiten nuen.

## Gitarra jotzen ikasi, eta SQS bikotea sortu zenuen Itsaso Polekin batera. Nolatan?

Gaztelekuan egin genuen topo, eta pixkanaka elkar ezagutzen hasi ginen. Itsasok apenas zekien gitarra jotzen, eta ikasi egin nahi zuenez, nik lagundu egin nion. Oraintxe bertan nahikoa ongi jotzen du.

## Eta zer esan nahi du SQS taldearen izenak?

Eskuez irakurtzen da, baina siglak ere badira. Status Quo Stringers esan nahi du. Status Quo momentuko egoera da latinez, eta Stringers guk moldatutako hitz bat da, eta sokadunak esan nahi du. Beraz, SQS siglen atzean momentuko egoera sokadunak esanahia dago.

## Abesti propioak egiten dituzue.

Bai, Itsasok oso letra onak egiten ditu, eta ni ere saiatzen naiz horretan. Letra bakoitzari musika ordea, nik jartzen diot.

## Eta zertan oinarritzen zarete kantutak egiteko garaian?

Gauza ezberdinetan. Esaterako, nire osabaren poema batekin abesti bat egin genuen, eta ziu-rrerik kantatu horixe aurkeztuko dugu 2011ko Euskal Kantu txapelketan. Bestelakoan, askotan

hildako pertsonengan oinarritzen gara, dagoeneko hiru kantu dauzkagu gai horren inguruan. Heriotzaren gaiak zirrara sortzen digu, eta beharra sentitzen dugu horren gainean idazteko. Baina ez pentsa horregatik beti kantu tristeak egiten ditugunik, abesti alaiak ere badauzkagu.

## Proiekturik bai etorkizunerako?

Lehenengo eta behin, argi utzi nahi dut guk kantautore musika egiten dugula bi gitarrarekin. Musika mota hori zabaltu nahi dugu, gazteen artean rocka asko entzuten baita, eta guk erakutsi nahi dugu bestelako zerbait ere badagoela. Gustura entzuteko moduko musika egiten dugu.

## Baita elizan entzuteko ere?

Ez hor *Aleluya* eta tankerakoak jotzen ditugu. Entseatzeko lokalen trukean hilean behin haurrentzako mezetan kantatzen dugu.

## Magia ere egiten duzu. Nolatan?

Betidanik gustatu izan zait niri magia, pentsa nire txikitako idoloetako bat Txan magoa da. Atentzioa ematen zidan alor bat zen, eta probatzea erabaki nuen. Eskolan egiten den kultur astean Marsel magoaren aldamenen erakustaldi bat egin nuen, eta horixe izan zen nire lehen aldia. Ondoren Ganbara abesbatzakoek ere musikal batean mago bat behar zutela eta hor joan nintzen ni.

## Trukoak ordea behin nola egiten diren jakinda, ez al du grazia galtzen?

Batzuentzat agian bai, baina niretzat ez. Izan ere ikusten baitut horrekin jendeak nola gozatzen duen...

## Horretan ere autodidakta izan zara?

Bai, hemen inguruan ez baitago elkarterik.

## Eta zein dira zure ohiko tresnak?

Kartak asko gustatzen zaizkit, gauza oso egunerokoa baitira, denok jolas egiteko modukoak.

## MARRA AZKARREZ

**Ikasketak:** Batxilergoko lehen urtea Elkar Hezi ikastetxean.

**Musikari bat:** Mikel Urdangarin.

**Film bat:** *28 días después*.

**Liburu bat:** *El visitante*, Alma Maritanorena.

**Amets bat:** Musikatik bizi ahal izatea.

**Zaletasunen bat:** Musika jo eta magia egitea.

**Bidaiatzeko lekuren bat:** Edozein irla txiki.

**Bizitoki bat:** Oñati.

Josu Zubia bere bi pasioekin: gitarra eta magia egiteko kartak.



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

**Aramaio.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. 620 59 86 55 edo 658 72 52 70

**Aretxabaleta.** Duplex atikoa. 125 metro koadrokoa. 60 metroko terraza eta 30 metroko garajea. Egongela handia, hiru logela eta atikora arteko igogailua. Zoru erradiatzaile bidezko berokuntza. Ate irristagarriak sukalde, egongela eta terrazarako leihoan. Oso argitsua. Beste etxebizitza bat onar dezakegu ordainketarako. Deitu 670 37 64 01 telefonora

**Bergara.** Martzial Agirre kalean 105 metro koadroko etxebizitza salgai. Laugarren solairuan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 metroko garajea eta 11 metroko ganbararekin. 608 15 45 25

**Oñati.** 84 metroko etxebizitza ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Gainera 32 metroko lorategia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposan dago, denda eta ikastetxea ondoan baitauzka. Ingurune lasaia eta erdigunea 5 minutura dago. 678 71 36 97

**Oñati.** 85 metro koadroko etxebizitza salgai Obispo Otaduy kaleko 13. ean, 2. solairuan. Sukaldea, hiru logela, komuna eta egongela. Dena jantzia eta oso eguzkitsua. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. 169.000 euro. 659 05 11 57 edo 630 52 17 89

**Oñati.** 60 metroko etxebizitza salgai San Loretzo auzoan. Bi logela, komun bat eta sukalde-egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro negoziagarri. Deitu 20:00ak eta 22:00ak bitartean. 699 78 47 49

**Oñati.** Kalebarrian 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna guztiz hornituak. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. 665 71 77 98

**Oñati.** Etxebizitza salgai Kelebarrian. 80 metro koadro. 9 urte. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handia. Igogailua. Altzariz hornitua. Garajea aukeran. 622 42 83 18

103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Apartamentua ematen da errentan erdialdean. Berokuntza zentralarekin. 350 euro. 628 22 45 09

**Debagoiena.** Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata Aramaion eta bestea Arrasaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 22 09 38

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Hiru logelako etxea errentan hartuko nuke. 654 24 13 27

105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 648 86 05 49 zerbakira.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu Erguin aldean etxebizitza osatzeko. Ignacio. Deitu 670 59 73 62 telefonora.

**Bergara.** Bi logela ematen dira errentan Bolun, prezio onean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 645 67 79 75

**Bergara.** Ozaetan, etxea osatu nahi nuke. 606 63 19 91

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Uarkapen, erosteko aukerarekin. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 615 73 98 30 edo 943 24 53 57

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargaraikalean. 679 74 00 61

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entseatzeko egokia. 690 95 45 47

4. LANA

401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeazaintzeko. 669 70 89 36

402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27

**Arrasate.** Mutil arduratsua edozein lan mota egiteko gertu, asteburu zein astean zehar. 943 79 60 89

**Bergara.** Igeltsero lanetan edo mendia garbitzeko lanetan aritzeko gertu egongo nintzateke. 663 34 11 55

**Bergara.** Mutil gaztea edozein lanerako gertu. Auto dut. 654 24 13 27

**Bergara edo Arrasate.** Gertu garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko, 15:30etik 21:30era. 677 81 10 00

**Debagoiena.** Neska gertu denetarikoa lanetarako: dendan, arrandegi zein okindegian, jate-txe, taberna, umeak zaintzen, garbitzen. 605 54 45 34

**Debagoiena.** Gizon arduratsua gertu edozein lan egiteko. 669 64 76 28

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen zein sukalde laguntzaile lanetarako. 661 00 46 55

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen zein sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. Baita okindegian ere. 600 81 99 34

**Debagoiena.** Neska lanerako prest: nagusiak eta umeak zaintzeko zein garbiketara egiteko. Lan egin dezaket etxean bertan biziz, orduka edo asteburutan. Erreferentzia onak. Momentuan lanean hasteko prest. 638 93 11 48

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa lanetan jarduteko. Eskarmentuduna. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 689 88 80 23

**Debagoiena.** Emakume sukalderia gertu gauetan eta asteburuetan lan egiteko. Eskarmentuduna. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 619 78 63 41

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. Eskarmentuduna. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 679 04 42 68

**Debagoiena.** Tabernan zerbitzari edo sukalderia laguntzaile lanetan lan egingo nuke. Kotxea daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 680 92 59 14

# ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | [sailkatuak@goiena.com](mailto:sailkatuak@goiena.com) | [www.goiena.net/sailkatuak](http://www.goiena.net/sailkatuak)

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 20,5 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

TATUAJE ETA PIERCING

Tatuaje eta piercing mundua gustuko duen pertsona bat behar dugu 10 urte jardunean daraman negozioa konpartitzeko. Autonomoa izan behar du. Informazio gehiago: 626 66 12 92

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketa lanak eta nagusi edo ume zaintzarako eskaintzen da. Gloria. Deitu 630 26 13 28 edo 943 79 13 88 zerbakietara.

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu sukalderi, sukalde laguntzaile, menuak prestatzen eta abar jarduteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 666 21 88 95

**Debagoiena.** Pertsona arduratsua nagusien zaintzarako edota etxeak garbitzeko. 688 80 32 03 edo 943 53 37 00

tzari moduan lan egiteko ere. Autoa daukat. 654 24 13 27

**Emakume gaztea pertsona nagusiak zaintzeko gertu.** Esperientziaduna. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Oñatin edota Bergaran egingo luke lan. 679 59 33 65

**Margoketa.** Etxeak, lokalak eta lantokien margoketa. Paretak, garbitu, masa heman eta margotzen ditut. margotzen ditut. 3 urteko esperientzia. Lan ona, azkarra eta merkea. Deitu galdezko lasai asko. 648 68 24 30.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

**Bergara.** Goi mailako sarrera frogar egiteko matematika eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona euskalduna behar dut. 685 75 91 72

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketarako egiteko. Deitu 943 71 53 74 (arratsaldez edo gauaz) edo 695 73 87 95 zerbakietara.

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile titulua duen esperientziadun emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Lourdes. Deitu 652 76 65 06 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsonahelduen zaintza lanak eta bestelako garbiketa lanak egiteko gertu nago, baita tabernari edo zerbi-

**Oñati.** 3.DBHko eskola partikularrak jasoko nituzke. Deitu 617 35 63 53 telefono zerbakira.

502. EMAN

**Bergara.** DBH eta Batxiler mailetan eskola partikularrak emateko neska eskaintzen da. 630 83 67 19

**Bergara.** Goizez etxera joanda ingeleseko eskolamaten ditut. Gurasoei zuzendutako eskolak, ohiko maila lortzeko. Pazientzia handia daukat. 679 74 00 61

**Bergara.** Klase partikularrak emango nituzke. Haur, lehen hezkuntza eta ingelesa. 645 72 01 50

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89

**Ingeles eskolak.** Haur edo gaztetxoei ingeleseko eskola partikularrak emateko gertu. Ordutegi malgua. Esperientzia handiko neska. Taldeka nahiz banaka. 15 euro/ordua (banaka). Arrasate edo inguruak. Alemaniera eta eskola laguntza ere eskeintzen da. Deitu konprometuzurik gabe. 635 12 87 82

**Neska euskalduna** eskola partikularrak emateko prest. 5. mailako ingeneritza ikaslea eskola partikularrak emateko prest. 625 74 91 50

6. MOTORRA

601. SALDU

**Audia.** salgai. 285.000km. 1.950 euro. Egoera onean dago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 686 79 80 30

7. ANIMALIAK

701. SALDU

**Artzai txakurra.** 8 hilabeteko artzai txakur arra salgai. Uletzua eta polita da. Deitu 655 71 39 27 telefono zerbakira.

704. BESTELAKOAK

**Katua galdu.** Katu zuri-beltza galdu zen zapatuan, urtarilaren 15ean, Arrasaten. Begi horiak dauzka. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu mesedez 638 01 46 98 telefonora.

8. DENETARIK

801. SALDU

**Altzariak.** Dekorazio aldaketa-gatik salgai: bi plazako sofa -ohea, Ikeako mahaia eta Philips telebista, 19 hazbetekoa, DVD eta guzti. Gazte lokaletarako paregabeak. Oso merke eta egoera onean. Deitu 17:30etik aurrera zerbaki honetara: 619 81 70 72

**Bizikletarako kaskoa.** Giro "Encinal Sport" modeloa. Estreinatzeke. Gorria eta beltza. Eguzkitako biserarekin. Erosoa, arina, doigarria. Dendan 71 euro balio du eta nik 55 euroan saltzen dut. Deitu 639 29 40 11 telefono zerbakira

**Kafe makina.** Nespresso kafe makina salgai. "Essenza Delonghi automatica" modeloa. &nbsp;Beltza eta zilar kolorekoa. Berria. Abendura arteko bermearekin. Dendan 149 euro balio du eta nik 90 euroan saltzen dut. Deitu 639 29 40 11 telefonora.

**MP3a.** samsung YP-Q2 JAB. Erabili gabea. Beltza. Samsung-en bermea indarrean. 50 euro. Deitu 639 29 40 11 telefono zerbakira.

**Ordenagailua eta Home Cinema.** Packard Bell ordenagailua eta Home Cinema, Philips etxekoa, salgai. Deitu 943 79 60 89 telefono zerbakira.

**Reflex Digitala, Nikon D80 + Nikkor 18-200 VR.** Hiru urte eta erdiko argazki kamera digitala (Nikon D80 10Mpik) eta objektiboa (Nikkor 18-200VR) salgai egoera onean. 375+400 euro. Arrazoiak: formatu aldaketa. 679 90 79 97

**Retroproiektorea.** 42 hazbeteko retroproiektorea saltzen dut, 250 euroan. Egoera oso onean. 658 72 09 87

**Umearendako osagarriak.** Kapazurako zakua salgai. Berdea eta beroa. 35 euro. Jane markako Maxi-cosierentzat zakua salgai, gris kolorekoa. 25 euro. Pardelakaldatzekoa, erruberekin 35 euro. Esnea ateratzekoa. Avent markakoa 40 euro. Idatzi mezu bat [maryseal15@hotmail.com](mailto:maryseal15@hotmail.com) helbidera edo 653 72 22 54 telefono zerbakira deitu.

805. TRUKATU

**Bizikleta.** Neurri handiko 2002ko MTB bat (1,90 metro inguruko pertsona) aldatu nahi dut errepideko bizikleta bategatik (neurri handia). Conor WRC 2, aurreko suspentsioa, pedal automatikoak, nahiko erabilia bainakubiertak, bielak eta koroak berriak dauzka. Erabiltzeko moduan. Dagoeneko maila ertaineko errepideko bizikleta baten bila nabil. Deitu 648 70 02 07 telefonora.

806. GALDU

**Argazki kamara.** Galdu da Aretxabaletan. Beltza, Fujifilm etxekoa, funda eta guzti. Aurkitu baduzu, deitu zerbaki honetara mesedez. Eskerrik asko. 639 99 33 34

**WESC markadun berokia.** WESC markadun beroki beltza galdu nuen abenduaren 31n Arrasateko Ekaitz tabernan. Aurkitu duenak eraman dezala, mesedez Ekaitz tabernara.

**Ume baten baserritar jantzia.** Joan den Ostegunean, hilak 13, urtebeteko neskatilaren baserritar jantzia galdu genuen Iturriotz kaletik Sebero Altube bitartean. Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez hurrengo zerbakira: 605 775738 Eskerrikasko. 605 77 573 8

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

**Gasteizera.** Egunero Gasteizera autoan joaten naiz. 09:00etan Gasteizen egoten naiz eta 13:00etan bueltatzen naiz. Joateko bakarrik, edo bueltatzeko aukera. 690 19 82 79

**Gitarrista baten bila.** La Madriguera (Rock-urbano) taldea gara, eta gitarrista serio baten bila gabilta. Behar dugun gitarrista denbora izan behar du entseiu eta kontzertuak emateko. Harremanetarako begiratu Myspace orria: [www.myspace.com/losmadriguera](http://www.myspace.com/losmadriguera) edo deitu zerbaki hauetara: 680 48 94 38 (Andoni) edo 646 61 63 29 (Juan txu).

**Sagardotegira irteera.** Martxoaren 12an sagardotegira joateko autobusa betetzeko jende bila gabilta Debagoienan. Dagoeneko 15 pertsona gaude. Asmoa bazkaltzeko joatea eta arratsaldean Hernanin egon ondoren gau aldean etxera bueltatzeara. Deitu 686 28 76 80 edo 943 76 59 21



ASTEA GOIENAN



GOIENA

Euskalteko txirrindularien gainekoak

Eguaztenean Euskaltel-Euska-diko txirrindulariak Arantzazun izan ziren; Iban Velasco arrasa-tearrarekin egon ginen, baita Igor Gonzalez de Galdeano manage-rrekin ere. Horiek eta gehiago, *Harmailatik*-en.

'Harmailatik'  
Astelehena, 20:45



GOIENA

Haurren elikaduraz, osasun tartean

Amaia Diaz de Monasterioguren dietista ofatiarrak liburu bat kaleratu berri du haurren elika-durari buruz. Harekin solasaldia izango dugu egueneko *Magazinea*-n, eta liburuan idatzitakoen berri emango digu.

'Magazinea'  
Eguena, 19:45

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 4

ZAPATUA 5

DOMEKA 6

ASTELEHENA 7

MARTITZENA 8

EGUAZTENA 9

EGUENA 10

13:15 Marrazki bizidunak  
13:45 Kantari  
14:15 Onein  
14:45 Berriak  
15:15 Ur eta lur  
15:45 Kulturzulo  
16:00 Leku txiki bat  
16:10 Danbaka  
16:45 Berriak  
17:15 Marrazki bizidunak  
17:45 Gipuzkoa kultura  
18:15 Ipupomamua  
18:45 Berriak  
19:15 Kantari  
19:45 Goiena Magazinea  
20:45 Gipuzkoa kultura  
21:15 Goiena Magazinea  
22:15 Danbaka  
23:45 Goiena Magazinea

08:00 Marrazki bizidunak  
09:30 Antzerki topaketak  
10:00 Ipupomamua  
10:30 Leku txiki bat  
10:45 Goiena Magazinea  
11:45 Ur eta lur  
12:15 Onein  
12:45 Berriak  
13:00 Kantari  
14:00 Leku txiki bat  
14:15 Marrazki bizidunak  
15:45 Esatea libre  
16:45 Gipuzkoa kultura  
17:15 Kulturzulo  
17:30 Tertulia  
18:30 Ikusmira  
18:45 Danbaka  
19:45 Berriak  
20:00 Goiena Magazinea  
21:00 Nire Herria  
21:30 Gipuzkoa kultura  
22:00 Bi tartean  
22:45 Berriak  
23:00 Danbaka  
23:45 Ikusmira

08:00 Klik  
08:35 Leku txiki bat  
08:55 Ipupomamua  
09:20 Marrazki bizidunak  
10:45 Kantari  
11:15 Antzerki topaketak  
11:45 Iragana gogoratuz  
12:15 Berbetan  
12:55 Ur eta lur  
13:30 Tertulia  
14:30 Onein  
15:00 Berriak  
15:15 Ipupomamua  
15:45 Goiena Magazinea  
16:45 Bi tartean  
17:30 Ikusmira  
17:50 Esatea libre  
18:50 Marrazki bizidunak  
20:15 Danbaka  
21:15 Goiena Magazinea  
22:15 Nire Herria  
22:45 Gipuzkoa kultura  
23:15 Berbetan  
23:55 Esatea libre

13:15 Marrazki bizidunak  
13:35 Kantari  
14:15 Berbetan  
14:45 Berriak  
15:15 Handik eta hemendik  
15:45 Ikusmira  
16:15 Gipuzkoa kultura  
16:45 Berriak  
17:10 Marrazki bizidunak  
17:45 Klik  
18:15 Marrazki bizidunak  
18:45 Berriak  
19:15 Kantari  
19:45 Goiena Magazinea  
20:45 Harmailatik  
21:30 Goiena Magazinea  
22:30 Harmailatik  
23:15 Gipuzkoa kultura  
23:45 Goiena Magazinea

13:15 Marrazki bizidunak  
13:45 Kantari  
14:15 Onein  
14:45 Berriak  
15:15 Harmailatik  
16:00 Kulturzulo  
16:15 28.Klip  
16:45 Berriak  
17:15 Marrazki bizidunak  
17:45 Harmailatik  
18:25 Marrazki bizidunak  
18:45 Berriak  
19:15 Kantari  
19:45 Goiena Magazinea  
20:45 Danbaka  
21:30 Goiena Magazinea  
22:30 Iragana gogoratuz  
23:00 Goiena Magazinea

13:15 Marrazki bizidunak  
13:35 Kantari  
14:00 Harmailatik  
14:45 Berriak  
15:15 Onein  
15:40 Bi tartean  
16:30 Leku txiki bat  
16:45 Berriak  
17:10 Marrazki bizidunak  
17:30 28.Klip  
18:30 Marrazki bizidunak  
18:45 Berriak  
19:15 Kantari  
19:45 Goiena Magazinea  
20:45 Tertulia  
21:45 Goiena Magazinea  
22:45 Tertulia  
23:45 Handik eta hemendik

13:15 Marrazki bizidunak  
13:45 Kantari  
14:15 Onein  
14:45 Berriak  
15:10 Nire Herria  
15:35 Bi tartean  
16:20 Ikusmira  
16:45 Berriak  
17:15 Marrazki bizidunak  
17:45 Ipupomamua  
18:15 Marrazki bizidunak  
18:45 Berriak  
19:15 Kantari  
19:45 Goiena Magazinea  
20:45 Iragana gogoratuz  
21:15 Goiena Magazinea  
22:15 Gipuzkoa kultura  
22:45 Danbaka  
23:45 Goiena Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan

Astean zehar Arrasate Irra-tiko uhinetan izan diren protagonisten solasaldiak berreskuratuko ditugu 107.7an. Astean irratian egon denaren laburpena eskainiko dugu, beraz, zapatuan eta domekan, 22:00etan hasita.

Gazte Bulegoko informazioa, eguaztenean

Garibai etxeko bi solairue-tako batera bisita egiten dugu eguaztenero. Orain-goan, Gazte Bulegoak eskai-niko digu azken berrien inguruko informazioa. Dato-rren eguaztenean, ostera, sexologiaz jardungo dugu irratian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

|                 |                     |                    |              |
|-----------------|---------------------|--------------------|--------------|
| Zapatua, 5      | M. FCA. AZCOAGA     | Iturriotz, 17      | 943 79 79 99 |
| Domeka, 6       | ANA FDEZ. CORCUERA  | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 7   | JUAN ANTONIO IRIZAR | Erguin, 11         | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 8   | LOURDES AMEZUA      | Sta. Marina, 32    | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 9    | ANA ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14   | 943 79 18 65 |
| Eguena, 10      | AURORA RUIZ         | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Egubakoitza, 11 | ERKUDEN ETXEBERRIA  | Zarugalde 42, 43   | 943 77 16 30 |

BERGARA

|                 |                     |                   |              |
|-----------------|---------------------|-------------------|--------------|
| Zapatua, 5      | L. ALVAREZ-M. MOZOS | Iparragirre       | 943 76 12 15 |
| Domeka, 6       | L. ALVAREZ-M. MOZOS | Iparragirre       | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 7   | A. URRUTIKOETXEA    | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 8   | IÑIGO ZABALA        | Barrenkale, 25    | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 9    | MERCEDES GUALLAR    | San Antonio, 5    | 943 76 11 05 |
| Eguena, 10      | E. JAVIER ESTELLA   | Matxiategi, 5     | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 11 | L. ALVAREZ-M. MOZOS | Iparragirre       | 943 76 12 15 |

OÑATI

|                 |             |                 |              |
|-----------------|-------------|-----------------|--------------|
| Zapatua, 5      | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 6       | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 7   | GARATE      | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 8   | GARATE      | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 9    | JULDAIN     | Kale Barria, 6  | 943 78 11 28 |
| Eguena, 10      | JULDAIN     | Kale Barria, 6  | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 11 | ANDUAGA     | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

ARETXABALET

|                 |                |                   |              |
|-----------------|----------------|-------------------|--------------|
| Zapatua, 5      | JUAN FRAILE    | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 6       | JUAN FRAILE    | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 7   | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza   | 943 71 48 28 |
| Martitzena, 8   | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza   | 943 71 48 28 |
| Eguaztena, 9    | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza   | 943 71 48 28 |
| Eguena, 10      | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza   | 943 71 48 28 |
| Egubakoitza, 11 | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza   | 943 71 48 28 |

Farmazien eskuko telefonotarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria T1Cek kudeatuta (www.altiria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 14°  
Min. 6°



Max. 13°  
Min. 5°

ZAPATUA, 5  
Tenperaturak gora egingo du eta eguneko beroenak 12-14 gradu bitartean ibiliko dira; egun polita izango dugu.

DOMEKA, 6  
Egunaren lehen partean hodei hondarrak egongo diren arren, egunak aurrera egin ahala ostar-teak izango dira.

EUSKAL HERRIA



Zapatuan, tenperatura gora. Domekan, eguraldia mantendu egingo da eta ostarteak izango dira.

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

**Eskozia.** British Council. Esko-zian ikasteko Stevenson bekak. Epea: martxoak 31.

LANA

**Disneyland Paris.** Hainbat lanpostu eskaintzen dira 2011-ko udan lan egiteko. Elkarriz-ketak eta hautaketa Madril en egingo dira otsailaren 15ean eta 16an, martxoaren 15ean, apirilaren 19an, maiatzaren 17an eta ekainaren 14an.

**Begiraleak.** Sastarrain base-ri eskola. Baserri eskolan ari-tzeko begiraleak behar dira. *sastarrain@sastarrain.com*.

**Begiraleak.** Ruta Quetzal BBVA 2011. Baldintzak: 22-30 urte artean izatea. Titulazioa: lizenziadunak, ingeniariak, arkitektoak eta doktoreak. Titu-

lazio bereziak: uretako eta lurreko sorosle titulua. Epea: otsailak 16.

LEHIAKETAK

**Kartelak.** Arrasateko Udala. Martxoaren 8a iragartzeko. Derrigorrezko leloa: *Gora femi-nismoa!*. Epea: otsailak 18.

**Kartelak.** Arrasateko Udala. Inauteriak iragartzeko kartela. Derrigorrezko leloa da: *2011 INAUTERIAK ARRASATE*. Epea: otsailak 17.

**Kilometroak.** 2012an Andoa-i-nen izango den Kilometroak jairako logotipoa eta leloa auke-ratzeko lehiaketa. Epea: otsail bukaera.

**Literatura.** III. Mikel Essery bidaia-kontakizun lehiaketa 2011. Epea: maiatzak 1.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net)  
**Bergarako Gazteendako Informazio Gunea:** Kultura etxea | 943 77 91 57 | [gzerbitzua@euskalet.net](mailto:gzerbitzua@euskalet.net)  
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | [gazteinformazioa@oinati.net](mailto:gazteinformazioa@oinati.net)





HILDAKOAK

Jesus Antonio Urmeneta Gambra.

Bergaran, urtarrilaren 25ean. 73 urte.

Felisa Perez Barrera.

Oñatin, urtarrilaren 28an. 90 urte.

Maria Revuelta Noguero.

Arrasaten, urtarrilaren 29an. 88 urte.

Benito Barandiaran Etxebarria.

Arrasaten, urtarrilaren 29an. 83 urte.

Ageda Francisco Gonzalez.

Arrasaten, urtarrilaren 29an. 76 urte.

Andres Agiriano Zubia.

Eskoriatzan, urtarrilaren 29an. 104 urte.

Josefa Belayos Montero.

Arrasaten, urtarrilaren 29an. 96 urte.

Manuel Guereta Mugarza.

Arrasaten, urtarrilaren 29an. 89 urte.

Ramon Zabala Arruabarrena.

Elgetan, urtarrilaren 29an. 81 urte.

Santi Salgado Galan.

Bergaran, urtarrilaren 29an. 65 urte.

Felix Umerez Agirre.

Oñatin, urtarrilaren 30ean.

Juan Trinidad Carbonero.

Aretxabaletan, urtarrilaren 31n. 77 urte.

Jesus Aranguren Urmeneta.

Bergaran, urtarrilaren 31n. 61 urte.

Lorenzo Manuel Joospen.

Arrasaten, otsailaren 1ean. 61 urte.

Juana Albisua Oregi.

Bergaran, otsailaren 1ean. 88 urte.

Endika Gonzalez Marcos.

Arrasaten, otsailaren 2an. 5 urte.

URTEURRENA

Magdalena Yabar Alegria



Bigarren urteurreneko meza domekan, otsailaren 6an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztuak izango zaretenoi, eskerrak asko sendikoen izenean.

ESKER ONA



Felisa Perez Barrera

Julian Alzelaireren alarguna



Oñatin hil zen 2011ko urtarrilaren 28an.

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

—

Adierazi, ondra meza bihar zapatua, 19:30ean, Oñatiko Agustinoetan ospatuko dugula.

Felisaren sendiak.

Oñatin, 2011ko otsailaren 4an.

ESKER ONA



Felix Umerez Agirre



Oñatin hil zen 2011ko urtarrilaren 30ean.

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Felixen sendiak.

Oñatin, 2011ko otsailaren 4an.

OROIGARRIA

Endika Gonzalez Marcos



Arrasaten hil zen 2011ko otsailaren 2an.

Ezkutaketan: bat, bi, hiru, lau, bost...  
Korrika estu arnasa  
Ez dakigu non baina ederki  
Gorde zara zure kasa  
Pasa parkea, pasa zuhaitzak

Ikastola ere pasa  
Umezaintzako gela, etxea...  
Ta Arrasateko plaza  
noizbait aurkitzen zaitugun arte  
segi dezagun jolasa!

Umezaintzako lagunak.

Arrasaten, 2011ko otsailaren 4an.

ESKER ONA

Jesus Antonio Urmeneta Ganbra

'Xolonpo'. Maria Luisa Belategiren alarguna.



Gasteizen hil zen 2011ko urtarrilaren 25ean, 73 urte zituela.

Azken agurrean,  
gure artean izan zaretenoi  
mila esker sendikoen izenean.

Bergaran, 2011ko otsailaren 4an.

ESKER ONA

Jesus Aranguren Unamuno



Bergaran hil zen 2011ko urtarrilaren 31n, 61 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2011ko otsailaren 4an.

OROIGARRIA

Endika Gonzalez Marcos

Ikastolako ikaslea



Endika, bada lekutxo bat ipuin ta kantuz bete  
bertatik eigu zu keinu geure mukuak hartzean.

Arizmendi

Arizmendi Ikastolako guraso eta langileak.

Leintz bailaran, 2011ko otsailaren 4an.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO  
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.  
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.

Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ARRASATE

Goiena: Otalora lizentziaduna 31.  
943 25 05 05.

BERGARA

Goiena: Ibarra kalea 6.  
943 25 05 05.

OÑATI

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9.  
943 78 10 65.

ARETXABALETA

Goiena: Durana 11.  
943 79 86 21.  
edo: Basabe poligonoa E05.  
943 25 05 05.

ARAMAIO

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11.  
945 44 50 22.

ELGETA

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2.  
943 76 80 98.

ANTZUOLA:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1.  
943 76 60 62.



**ARRASATE** Ain\_1 taldea

*Musika kaxa* izeneko proiektu berria aurkeztuko du gaur Arrasateko taldeak gaztetxean. Urtebete egon dira kontzerturik eskaini gabe eta abesti berriak sortzen. Sorkuntza horren emaitza da proiektu berria. Musika, poesia, dantza eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko dute Ain\_1 taldeko neskek.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.



AIN\_1



GLU GLU PRODUCCIONES

**BERGARA** 'Nick Maritxu Nick Bartolo'

Maritxu eta Bartolo ezizenekin gazte bik txatean topo egingo dute. Denbora batez Internet bidez komunikatzen egon eta gero hitzordua egitea erabakiko dute. Umorezko maitasun eta erotismo istorioa da. Sarrera: 5 euro.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

**MUSIKA**

**BERGARA** Mikel Markezen eta Erramun Martikorenen kontzertua Emanaldi berezia izango da. Sarrera: 5 euro.

Otsailaren 6an, domeka, Zabalotegi aretoan, 19:00etan.

**ANTZUOLA** Txistularien diana

Domekeroko diana egingo dute herriko txistulariek.

Otsailaren 6an, domeka, herrian zehar, 10:00etan.

**ARETXABALETA** Txelo eta akordeoi emanaldia

Leizarra musika eskolako ikasleen kontzertua. Sarrera doan.

Otsailaren 7an, astelehena, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan.

**BERGARA** Daltondarrak eta Oi! dek Oi!-ren kontzertua

Etorkizun handiko bi talde gazteren kontzertua.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean

**NON-ZER**

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazten eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

**OTSAILA 4**  
**OTSAILA 10****ARRASATE** Moby Dick bakarlaria

Kooltur Ostegunen barruan. Bizkaiko musikariak arrakasta izan du Bilbo Hiria musika lehiaketan ospetsuaren azken edizioan eta geroz eta ezagunagoa da.

Otsailaren 10ean, eguena, gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA** 'Den-dena niretzat' txotxongilo emanaldia

Behibi's taldearen txotxongilo emanaldia. Ingurumenaren gaineko istorioa kontatuko digute. 5 urtetik gorakoei zuzendua. Sarrera: 3 euro.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan, 18:00etan.

**ANTZERKIA****OÑATI** 'Herio heroi' antzezlanaren irakurketa dramatizatua

Emanaldiaren ostean afaltzeko aukera egongo da.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 20:30ean.

**OSPAKIZUNAK****ARETXABALETA** Santa Ageda bezpera

1992an jaiotako neska-mutilak Santa Ageda kantuan eta eskean joango dira baserriz baserri.

Gaur, egubakoitza, 07:00etan.

**ESKORIATZA** Santa Ageda bezpera

Santa Ageda neska-mutilak baserriz baserri ibiliko dira Santa Ageda eguneko koplak abesten.

Gaur, egubakoitza, herrian.

**ARRASATE** Santa-eskea

Santa Ageda korua kalez kale ibiliko da santa-eskean.

Gaur, egubakoitza.

**ANTZUOLA** Santa-eskea

Goizeko seietan herriko kintoak aterako dira baserriz baserri eta etxez etxe abesten. 18:30ean abesbatzako kideekin abesteko aukera egongo da herrian.

Gaur, egubakoitza, 18:30ean.

**BERGARA** Santa Ageda koplak

Alai Taldea abesbatza Santa Ageda koplak abesten ibiliko da herriko kaleetan barrena.

Gaur, egubakoitza, 18:30ean.

**ANTZUOLA** San Blas egunaren ospakizuna

Basaldeko San Blas ermitan meza egingo dute eta San Blas opilak bedeinkatzeko aukera egongo da. Ondoren salda eta txorizoa egongo da bertaratutakoendako.

Bihar, zapatua, Basaldeko San Blas ermitan, 12:00etan.

**ARETXABALETA** Santa Ageda eguna

Santa Ageda eguna ospatuko dute 1992an jaiotako neska-mutilek. Kanean ibiliko dira kantuan eta eskean eta iluntzean dantza egingo dute Herriko Plazan.

Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 19:00etan.

**ESKORIATZA** Santa Ageda neska-mutilen dantza

Urteroko ohiturari jarraituz, Santa Ageda neska-mutilek dantza egingo dute Herriko Plazan.

Otsailaren 6an, domeka, Herriko Plazan, 19:00etan.

**ANTZUOLA** Santa Ageda egunaren ospakizuna

Galartza auzoko Santa Ageda ermitan meza esango dute 12:15ean eta bertan janaria eta haziak

bedeinkatzeko aukera egongo da. Ondoren, hamaiketako trikitilariekin alaituta.

Otsailaren 6an, domeka, Santa Ageda ermitan, 12:15ean.

**DEIA****ELGETA** Sinadurak batzeko mahaia

Pediatría zerbitzua eskasa dela-eta, hobetzeko eskaera egin gura du Udalak Eusko Jaurlaritzan. Horretarako sinadura gehiago batzeko mahaia ipiniko dute.

Gaur, egubakoitza, Plaza Barrenian, 18:30ean.

**ERAKUSKETAK****BERGARA** 'Bide batez' margo erakusketa

Juan F. Ayestaren margoak ikusi ahal izango dira Aroztegin.

Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00 - 20:30; zapatuetan, 12:00 - 14:00 eta 18:00 - 20:30; eta domeketan: 12:00 - 14:00.

Gaurtik, egubakoitza, Aroztegi aretoan.

**BERTSOLARITZA****ARRASATE** Bertso afaria gaztetxokoan

12-17 urte bitarteko gazteak doan afaltzeko aukera izango dute, gainontzekoek borondatea ordaindu beharko dute. 30 pertsonentzako lekua dago. Bertsolariak: Mikel Arrillaga eta Felipe Zelaieta, 11 Bertute taldekoak. Afaria prestatzen eta gai-jartzaile lanetan berriz

Maitane Unamuno eta Jon Olibares arituko dira, biak ere gaztetxokoetako hezitzaileak.

Bihar, zapatua, Erguingo gaztetxokoan, 20:30ean.

**ARAMAIO** 'Txanpinoien' bertso saioa

Arabako Txapelketako Bertsolarien artean txapeldun bat izendatzea da helburua. Aramaio taldea izan zen 2010eko txapel-duna. Txanpinoien saioan, azken urteetan bakarka Arabako txapeldunak izandakoen aurka jokatuko dute aramaioarrek. Bazkaria 15:00etan izango da, eta bertso saioa 16:30ean. Izena emateko [araba.sustapena@bertsozale.com](mailto:araba.sustapena@bertsozale.com) helbidera idatzi edo deitu 675 70

**BONOFOTOA****GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA\***

ZOTZ EGINGO DUGU, GALDERA ZUZEN ERANTZUN DUZUENON ARTEAN:

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.  
Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago krintatza: botila bat.

ERANTZUNA:

IZEN-DEITURAK:

HERRIA:

TELEFONOA:

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzatara

**Aspaldiko ohitura da Santa Ageda eskea Euskal Herrian. Zein egunetan ospatzen da, baina, Santa Ageda Arrasaten?**

**Argazkia eta galdera:** Jose Felix Diaz de Tuesta

Zorionak aurreko zenbakiko irabazleari:

**Rikardo Agirrebaltzategi. Oñati.**

Erantzun zuzena:

**San Juan ermita. Garagaltza auzoan dago.**

ETXEZ ETXEO BANAKETA  
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak.  
943 76 98 51





BODOLLY (FLICKR.COM CC BY-NC-SA)

### ARETXABALETA 'Hijos de las nubes' erakusketa

Sahara mendebaleko giza eskubideen egoeraren berri ematen du erakusketak, hango bizimoduaren beste aurpegi bat erakutsi nahi du. Ordutegia: egubakoitzean, 11:00-13:00 eta 18:00 -20:00; zapatuan, 11:00-13:00; eta domekan itxita. Gaurtik otsailaren 28ra arte, Arkupen.

79 71 zenbakira. Saioa doan izango da eta bazkaria 15 euro bazkideendako eta 30 gainontzekoendako. Lierni Altuna izango da gai-jartzailea. Txapel-dunek txanpinoi bandeja bat irabaziko dute. Bihar, zapatua, Armentiako Armentegi sagardotegian, 16:30ean.

## AISIALDIA

**ARRASATE** Ludoteka ibiltaria, Musakolan

Txatxilipurdik antolatuta San Antolin ikastetxe ondoko eraikin urdinean. 10:30 - 12:30, 3-12 urte bitarteko umeendako. 12:30 - 13:30, 1-8 urte bitarteko haurrek heldu baten laguntza beharko dute. Bihar, zapatua, Musakola auzoan, 10:30ean.

## LITERATURA

**ARRASATE** 'El Judio Errado' liburuaren aurkezpena

Alberto Pradilla liburuaren idazlea eta Martxelo Diaz *Gara*-ko kazetaria izango dira aurkezpenean. Otsailaren 8an, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI** Etxeko lanak, hizpide

Gaia hau izango da: *Etxerako lanak: zentzua, helburuak, ondorioak, onurak eta arriskuak*. Hizlaria: Joxe Amiama, unibertsitate irakaslea, psikologoa eta pedagogo. Nori zuzendua: LH, DBH eta Batxilergoko ikasleen gurasoei. Sarrera librea izango da, izena eman gabe. Otsailaren 9an, eguaztena, Elkar Hezi

## IKASTAROAK

**ARRASATE** Argazkigintza digitala

Antonio Murillok emango du ikastaroa. Otsailaren 9tik apirilaren 13ra bitartean izango da. Eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara, Kulturaten. Prezioak: 20 euro, 12 euro ikasle edo langabetuentzat. Izena emateko eta informazio gehiagorako Gazte

Bulegora jo dezakezue. Telefonoa: 943 25 20 65. E-posta helbidea: [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net) Otsailaren 9an, eguaztena, Kulturaten, 18:00etan.

**ARRASATE** Emakumeak kameraren aurrean

Emakumeentzako jabetza eskolen barruan, Emakume Txokoaren eskutik. Eguaztenetan izango da, 18:00-20:00. Belen Nevado izango da irakaslea eta gaztelaniaz emango du. Otsailaren 9an hasiko da. Izena emateko eta informazio gehiagorako jo ezazue Emakume Txokora. Otsailaren 9an, eguaztena, Emakume Txokoan, 18:00etan.

**ARRASATE** Flamenko ikastaroa

Askoa Etxebarrietaren eskutik. Otsailaren 8tik apirilaren 12ra arte, martitzenetan, 18:30-20:00, Kulturaten. Prezioak: 20 euro, 12 euro ikasle edo langabetuentzat. Izena emateko Gazte Bulegoan, 943 25 20 65 edo [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net) Otsailaren 8an, martitzena, Kulturaten, 18:30ean.

**ANTZUOLA** Ikastaroak KZgunean

KZgune zerbitzua tutorearekin. Otsailaren 8an, martitzena, Torresoroan, 09:00etatik aurrera.

**BERGARA** Oinarrizko joskintza ikastaroa

Egunak: Otsailaren 8tik martxoaren 24ra, martitzen eta eguenak. Ordutegia:18:00etatik 20:00etara Lekua: Anezka. Bergara Informazio gehiago eta izenematea: Bizikasi. 943 76 93 94, [info@bizikasi.com](mailto:info@bizikasi.com). Otsailaren 8an, martitzena, Anezkan.

**BERGARA** Ogitarteko eta sandwichak egiteko ikastaroa

Otsailaren 8an, 9an, 15ean eta 16an izango da ikastaroa. Edonori dago zuzenduta, baina lehentasuna izango dute Gureakeko kideek. Doan. Informazio gehiago: [info@bizikasi.com](mailto:info@bizikasi.com) eta 943 76 93 94. Otsailaren 8an, martitzena.

**ELGETA** Tutorea KZgunean

Ikastaroa egin ahalko du Kultura etxeko KZgunera bertaratzen den 16 urte baino gehiago dituen edozeinek. Otsailaren 7an, astelehena, KZgunean, 09:00etan.

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**3 metros sobre el cielo**  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30.

**Los viajes de Gulliver**  
Domeka: 17:00.

### BERGARA

#### ZABALOTEGI

**Un tipo serio**  
Eguaztena: 20:30.

#### GAZTETXEA

**Salda badago**  
Domeka: 18:00.

### OÑATI

#### KULTUR ETXEA

**3 metros sobre el cielo**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Midas erregearen altxorra (euskaraz)**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La vida en tiempos de guerra**  
Eguena: 20:00.

### ARETXABALETA

#### ARKUPE

**3 metros sobre el cielo**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Los viajes de Gulliver**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.

**Film laburrak: Maritxu, Biontzat, Ermugarra, P.D. Ondo ibili eta Itsasora begira**  
Martitzena: 19:00.

**Yo soy el amor**  
Eguena: 19:30.

### ARAMAIO

#### KULTUR ETXEA

**Que se mueran los feos**  
Egubakoitza: 21:45.

**Nanny McPhee eta big band-a (euskaraz)**  
Domeka: 17:00.

### ELGETA

#### ESPALOIA

**Alguien voló sobre el nido del cuco**  
Eguaztena: 21:30.

### GASTEIZ

#### FLORIDA GURIDI

**The fighter**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Enredados**  
17:30, 20:00.

**Animal kingdom**  
22:30.

**Miel**  
17:30, 22:30.

**Camino a la libertad**  
20:00.

**El discurso del rey**  
17:30, 20:00, 22:30.

**También la lluvia**  
18:00, 20:15, 22:30.

**De dioses y hombres**  
18:00, 20:15, 22:30.

**El demonio bajo la piel**  
18:00, 20:15, 22:30.

Otsailaren 4tik 10era.

#### GURIDI

**Balleta: Parisko operatik - Caligula**  
Martitzena: 19:30.

**Opera: Parisko operatik - Giulio Cesare**  
Astelehena: 19:00.

**Enredados (3D emanaldiak)**  
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.  
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.  
Astelehena: 17:00.  
Martitzena: 17:00, 22:30.  
Eguaztena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

**Mas allá de la vida**  
17:30, 20:00, 22:30.

**RED**  
17:30, 22:30.

**Morning glory**  
20:00.

**La trampa del mal**  
17:30, 20:00, 22:30.

**778 la chanson de Roland**  
18:00, 22:30.

**¿Cómo sabes si...?**  
20:15.

**Primos**  
18:00, 20:15, 22:30.

**127 horas**  
18:00, 20:15, 22:30.

Otsailaren 4tik 10era.

## ZINEMA

#### YELMO GORBEIA

**Enredados**  
16:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:00, 22:00, 0:00.

**Enredados (3D emanaldiak)**  
17:00 (zapatua eta domeka), 19:00, 21:00, 23:00, 0:50.

**Primos**  
16:30 (zapatua eta domeka),18:30, 20:30, 22:30, 0:30.

**127 horas**  
16:40 (zapatua eta domeka), 18:40, 20:40, 22:40, 0:40.

**La trampa del mal**  
15:45 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Más allá de la vida**  
17:25, 19:50, 22:20, 0:50.

**RED**  
17:45, 20:00, 22:51, 0:30.

**También la lluvia**  
16:15 (zapatua eta domeka), 18:15, 20:15, 22:15, 0:15.

**Los próximos 3 días**  
19:50, 22:10, 0:35.

**La sombra prohibida**  
16:35 (zapatua eta domeka), 18:35, 20:35.

**Carne de neón**  
22:35, 0:35.

**Los viajes de Gulliver (3D emanaldiak)**  
15:50 (zapatua eta domeka).

**Las aventuras de Sammy (3D emanaldiak)**  
17:50.

**Tron legacy (3D emanaldiak)**  
19:50.

**The green hornet (3D emanaldiak)**  
22:20, 00:45.

**Como la vida misma**  
Zapatua eta domeka: 16:05, 18:05, 20:05.  
Domekatik eguenera: 16:05, 18:05.

**Balada triste de trompeta**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:05, 0:05.  
Domekatik eguenera: 20:05, 22:05

**3 metros sobre el cielo**  
15:30 (zapatua eta domeka).

**Las crónicas de Narnia**  
15:30 (zapatua eta domeka), 17:40.

**Amor y otras drogas**  
15:40 (zapatua eta domeka).

**¿Cómo sabes si...?**  
17:50, 22:35.

**Camino a la libertad**  
20:00.

**The tourist**  
00:50.

**No controles**  
15:40 (zapatua eta domeka), 17:40, 19:40.

**Biutiful**  
21:30, 00:15.

Otsailaren 4tik 10era.  
Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.

#### ABACO BOULEVARD

**Primos**  
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 0:30.

**La trampa del mal**  
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 0:50.

**¿Cómo sabes si...?**  
15:50, 18:05.

**Amor y otras drogas**  
20:25, 22:40.

**Enredados (3D emanaldiak)**  
16:20, 18:25, 20:30, 22:40, 0:45.

**Como la vida misma**  
16:00, 18:10.

**Carne de neón**  
20:25, 22:35.

**RED**  
15:50, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

**Más allá de la vida**  
17:00, 19:30, 22:00, 0:45.

**Enredados**  
15:55, 18:00, 20:10, 22:15.

**Camino a la libertad**  
16:30, 19:20, 22:00, 0:40.

**The tourist**  
16:05, 18:15, 20:20, 22:30.

**127 horas**  
16:10, 18:15, 20:15, 22:20, 0:30.

**Los viajes de Gulliver**  
16:20, 18:25.

**La sombra prohibida**  
20:30, 22:30, 01:00.

Otsailaren 4tik 10era.  
Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.

### KRITIKA



**CAMINO A LA LIBERTAD** ★★★★★  
**Zuzendaria:** Peter Weir.  
**Herrialdea:** AEB.  
**Urtea:** 2010.  
**Aktoreak:** Jim Sturgess, Ed Harris, Colin Farrell, Saoirse Ronan.  
**Iraupena:** 133 minutu.

## Kanpoko eta barneko bidaia

Peter Weir artista bikaina da: *Picinic en Hanging Rock, El año que vivimos peligrosamente, El show de Truman* eta *Master and Commander* dira hark eginitako film batzuk. Orain estreinatu duen *Camino a la libertad* ez dago bere lan aipagarrien artean, baina Weir-ek, bere estiloarekin jarraituz, oso ondo filmatzen daki eta eszena ederrak ikusteko aukera ematen digu.

Kontatzen zaigun istorioa 1940. urtean hasten da. Siberiako Gulag bateko preso talde batek hortik ihes egingo du eta 6.500 kilometro ibili ondoren Indiara iristen ahaleginduko dira. Beraz, filma abenturetako generoan koka

daiteke. Horrelako istorioetan bi bidaia mota izaten dira: kanpoko bidaia eta barnekoa. Iheslariak bizirik jarraitzeko etsealdi ugari pasatuko dute: ur eta janari falta, basamortuko bero izugarria eta han sortzen diren ekaitzak, elurra, bidean topatzen duten jendea eta oztopo orografikoak. Horrek guztiak ahulezia fisikoak ekarriko dizkie eta ahulezia horiek pertsonaien izaera psikologikoa astinduko dute. Horixe da barneko bidaia.

Filmean oso ondo islatzen da zer bidaia mota den, pertsonaiek jasaten dituzten arrisku eta gabezi guztiak ondo islatuta daude, baina ez da berdin gertatzen pertsonaien deskribapenarekin. Esate

baterako, Ed Harris eta Saoirse Ronanen artean sortzen diren lotura afektiboak oso ondo azaltzen dira, pertsonaien begiraden bitartez, baina beste pertsonaia batzuk nahiko eskematikoak dira. Filmaren hasierako zatian, Gulagean daudenean, eta hortik ihes egiten dutenean, eszena horiek nahiko motz geratzen dira. Dena oso azkar agertzen da, pertsonaiak ez daude ondo zehaztuta eta zehaztasun falta hori filmean zehar nabari da.

*Camino a la libertad*-ek talde baten egoera ondo deskribatzen du, baina zerbait motz geratzen da horren indibidualtasuna azaltzerakoan.

ANTONIO ZABALA





goiena

2011-02-04

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

# Inoiz ez da berandu euskara ikasteko

- Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkartean euskara eskolak ematen dituzte
- Aurtengoa hirugarren ikasturtea da eta 15 laguneko taldea osatu dute

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Astelehen eta eguazten arratsaldeetan Pake Leku erretiratuen elkarteko bilera gela euskaltegi bilakatzen da. Gauza askorekin gertatzen den moduan, euskara ikasteko ere sekula ez da berandu, eta horixe uste dute, hain justu ere, euskara eskoletara joaten diren hamabost lagunek. "Euskaraz ondo hitz egiten ikasi nahi dut, etxean denek euskaraz hitz egiten dutelako", kontatu digu Josefina Martinek. "47 urte daramatzat hemen eta beti ikasi nahi izan dut euskara, baina orain are gehiago, biloba txikiak ditudalako eta haiek euskaraz hitz egiten dutelako", dio Pedro Gartzia.



Lagun koadrila polita osatu dute Pake Lekuko euskara eskoletan. | ARRITXU BARRUSO

## Urterik urtera gehiago

Aurtengoa hirugarren ikasturtea dute Pake Lekuko euskaltegi berezian, eta ikasle kopuruak urtetik urtera gora egin du. Joan den ikasturtea bederatzi ikasleekin amaitu zuten eta aurrean hamabost laguneko taldea osatu dute.

Hasieran erretiratu euskaldun zenbait hasi ziren irakasle lanetan eta iaz Pili Irazabal, irakasle izandakoa, hasi zen baita ere lan horietan. "Gustura hartu nuen



Pili Irazabal. | A.B.

proposamena, talde oso jatorra da, goxoa. Gainera, ez nago bakarrik: Mila Martinek ere laguntzen dit eta lan handia egiten du", kontatu digu. Eskola oso arinak izaten dira eta euskara praktikatzeko eta mingaina askatzea da helburu nagusia.

Irakasleak kontatu digu oso ikasle finak dituela: "Plazera da horrelako ikasleak izatea. Asistentzia oso ona da, gauza larriren

bat izan behar dute eskoletara ez etortzeko. Gainera, etxeko lanak bidaltzen badituzu beti ekartzen dituzte eginda".

Piliren eta Milaren ikasleak badoaz apurka-apurka aditzak, deklinabidea eta euskarak dituen zailtasunak menperatzen. Jarrai dezatela beste urte askoan ere horrelaxe, beldur eta lotsa barik ikasten eta dakitena erabiltzen, hori da eta garrantzitsuena.

## AZKEN HITZA

XABIER ZUBIZARRETA



## Ze urrun Kamerun

Udalbiltza absolbatua! Oraingoan ere, 3.ez erreskadan, zutabetxo honetan tokatu zaidan txandan, epaiketa; euskaldunon aurka, noski; baina, tira!; frogarik gabeko epaiketa baten ondoren, oi miraria, 22 udal ordezkari, euskaldun, *adardun*, absolbatuak! Eta beraiei, eta guztioi egin diguten kaltearen ordaina?; politikari insolentez betetako estatu insolente bati alferrik ez eskatu; ez ote hobe, estatu espainolari eman beharreko erantzun gisa, Udalbiltza absolbatutik Udalbiltza batura pasatzea?; ez litzateke ondorio eta lorpen txarra...; Udalbiltza udalbiltza izatera eraman behar dugu, lehenbailehen.

Pentsioak behera, prezioak gora; gora langabezia; gora Euriborra, gora argindarraren prezioa; elkarteetan erretzea, Bai ala Ez?; Nafarroakoetan Ez; Nafarroa (Maritimokoetan) Bai... edo Ez; NaBai ala NaEz? Tabako orria erretzeko gero eta zailtasun gehiago dugin arren, inoiz baino ke gehiago dario la dago euskal gizartea. NafarroaOsoaBai ez al da benetakoa kontua?; estatu-kontu bezala tratatu beharrekoa, gainera.

Ze urrun dagon Kamerun!; ala Aramaixo? Baina ze arraixo! Helduko gara.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51